



LABURPENA

I. EKONOMIA

Munduko jarduera ekonomikoak erresistentziarako gaitasuna erakusten jarraitu zuen 2024an, eta hedatzen jarraitu zuen; hala ere, beste behin ere, desberdintasun nabarmena nabaritu zen sektore eta eskualdeen artean.

Urtean zehar ziurgabetasuna areagotuz joan zen, tentsio geopolitikoak eta politika ekonomikoei buruzko galderak areagotzen ari ziren testuinguru batean, batez ere azaroan AEBn egin ziren hauteskunde presidentzialen ondoren.

NDFren kalkuluen arabera, munduko BPGa % 3,3 hazi zen 2023 eta 2024 bitartean, termino errealean. Ekonomia aurreratuen BPGa % 1,8 hazi zen, AEBkoa % 2,8, eurogunekoa nahiko apal, % 0,9, eta Japoniakoa % 0,1. Hazten eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomietan, igoera % 4,2koa izan zen, Asiako ekonomia berriak % 4,3 hazi ziren (Txina % 5 eta India % 6,5), Europakoak % 3,4 eta Latinoamerika eta Karibekoak % 2,4. Errusia, bestalde, % 4,1 hazi zen.

Merkataritza trukeei dagokionez, munduko merkataritzak % 3,4ko hazkundea izan zuen, eta 2023an izandako dezeleraziotik berreskuratu zen (% 0,7ko hazkundea).

Inflazioari dagokionez, dezelerazio-prozesua sendotuz joan zen, batez ere energiaren prezioetan aurreikusitakoa baino moteltze nabarmenagoak lagunduta. Ekainaz geroztik, inflazio-tasa orokorra eta azpiko inflazio-tasa eskala globalean jaitsi ziren, nahiz eta zerbitzuetako inflazio-presioek beheranzko nolabaiteko erresistentzia erakusten jarraitu zuten. Hala ere, aldeak daude munduko eskualde nagusien artean. Bilakaera horretan, presio inflazionista mugatuagoak izan ziren ondasun industrial ez-energetikoetan.

Brent upelaren prezioa % 2,2 jaitsi zen 2023tik 2024ra. Urtarrilean prezioa 82,7 dolar/upela zen, apirilean 90,9 dolar/upela preziora igo zen eta, azkenik, 75,7 dolar/upela prezioarekin amaitu zen urtea.

Ekonomia garatu nagusietako banku zentralak beren moneta-politiken kutsu murriztailea izan bazuten ere, urteko azken hilabeteetan erlaxatzen hasi ziren (Japonia izan ezik); moneta-erlaxazio hori ekonomia berrietara zabaldu zen, eta, bereziki, Latinoamerikara, Brasilera izan ezik.

Horrela, Europako Banku Zentrala % 4,50eko esku-hartzearekin hasi zen urtarrilean, eta % 3,15ekoarekin amaitu zuen abenduan. AEBetako Erreserba Federala % 5,5ekin hasi zen urtarrilean eta % 4,75ekin amaitu abenduan. Japonian, aldiz, esku-hartzea -% 0,1ean hasi zen urtarrilean, eta abenduan % 0,25ean amaitu.

Euroguneko moneta-merkatuko interes-tasei dagokionez (gordailuak), murrizten jarraitu zuten, urteko batez bestekoan, epe guztietan; zehazki, 2024ko abenduan, Euriborra honela kokatzen zen: hilabetera +% 2,89; 3 hilabetera +% 2,83; sei hilabetera +% 2,63 eta urtebetera +% 2,44.

Bestalde, moneta-erakunde finantzarioek EDBn bizi diren etxeei emandako interes-tasak gora egin zuen 2023tik 2024ra bitartean kontsumorako kredituetan, % 8,21etik % 8,53ra, eta behera etxebizitza erosteko kredituetan, % 4,01etik % 3,96ra.

Dibisen merkatuari dagokionez, euroak balioa galdu zuen AEBetako dolarren aldean, eta yenaren aurrean balioa irabazi zen. Zehazki, dolarren kanbio-tasa erreal efektiboa 1,048 \$/€ izan zen 2024ko abenduan, eta 1,090 \$/€ 2023ko abenduan. Horrek esan nahi du euroak dolarrekiko % 3,8ko balio-galera izan zuela.

Burtsa-merkatuetan, Euro Stoxx zabalak eta Ibex 35ek igoerak izan zituzten 2023tik 2024ra bitartean, eta azken hori % 14,8 igo da.

Eurogunean, BPG erreala % 0,8 hazi zen 2024an, eta % 1, berriz, 2023an. Europako Banku Zentralaren arabera, euroguneako ekonomiaren hedapena errenta errealean susperraldiak, munduko merkataritzak eta Next Generation EU (NGEU) programak babestu zuten. Eskariaren aldetik, hazkundeak kontsumo publiko eta pribatuaren eta kanpo-eskari garbiaren ekarpen positiboak islatu zituen, eta inbertsioak eta izakinen aldaketak jardura ekonomikoa geldiarazi zuten. Eskaintzaren aldetik, hazkunderen igoera batez ere zerbitzuei egotzi ahal izan zitzaizen. Industria sektorean zerbitzuetan baino eragin handiagoa izan zuten moneta-politikaren baldintza oraindik murriztaileek eta inputen kostu altuek. Industriari ere eragin zioten euroaren eremuko esportazio-kuotaren galerak, bai eta erregulazio-erronkek eta gertakari politiko eta geopolitikoei lotutako ziurgabetasun handiak ere.

Testuinguru horretan, EUROSTATen datuen arabera, Euroguneako administrazio publikoek BPGd-arekiko duten zorra % 87,4ra iritsi zen 2024an. Ratorik handienak herrialde hauetan izan ziren: Grezian (% 153,6), Italian (% 135,3), Frantzian (% 113), Belgikan (% 104,7) eta Espainian (% 101,8); eta txikiak Estonian (% 23,6), Bulgarian (% 24,1) eta Luxenburgon (% 26,3). Defizitari dagokionez, Eurogunean 2024an BPGd-aren % 3,1an kokatu zen. Ratio altuenak Errumanian (% 9,3), Polonian (% 6,6) eta Frantzian (% 5,8) izan ziren. Danimarkak, Ziprek, Irlandak, Greziak, Luxemburgok eta Portugalek superabita izan zuten.

Espainiako ekonomiaren BPG-a, EINen datuen arabera, % 3,2 hazi zen termino errealetan 2023 eta 2024 artean, aurreko urtean baino 5 hamarren gehiago. Eskari nazionalari esker 2,9 puntuko ekarpena egin zion 2024ko BPG-aren hazkunderi, aurreko urtean baino 1,2 puntu gehia. Bestalde, kanpo-eskariak 0,3 puntuko ekarpena egin zuen, 2023an baino 7 hamarren gutxiago. Familien kontsumoa ekonomiaren hazkunderen euskarri nagusietako bat izan da.

Finantza publikoei lotuta, administrazio publikoek, oro har, 50.187 milioi euroko defizitarekin itxi zuten 2024. urtea (EBko araudia betez egindako informazioaren arabera), hau da, BPG-aren % 3,2ko ratioarekin, 2023an erregistratutako % 3,5eko ratioa baino txikiagoa. Saldoaren hobekuntza nabarmena da ibilbideari erreparaturik gero, 2021ean % 6,7 izatetik 2024an % 3,2 izatera igaro baita. Azpisektoreka, toki-korporazioek izan ezik, agente guztiek defizitarekin itxi zuten 2024. urtea: Administrazio Zentralak BPG-aren % 3, autonomia-erkidegoek % 0,1 eta Gizarte Segurantzak % 0,6. Toki-korporazioek, bestalde, BPG-aren % 0,4ko superabita izan zuten.

Baliabide publiko ez-finantzarioen guztizkoa % 7,1 igo zen 2023aren aldean, eta 672.659 milioi eurora iritsi zen, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren “Adierazle Ekonomikoen Sintesian” jasotako Sektore Publikoaren Aurrekontu Betearazpenaren datuen arabera. Diru-sarreraren hobekuntza gastu publikoaren hazkunderi eustearekin osatzen da, eta hori bateragarria da laguntza-neurri beharrezkoenei eustearekin. Gastu publiko agregatua % 6,2 hazi zen 2024an

Orain, **EAEko ekonomiaren** bilakaera azalduko dugu.

EUSTATen Jardura Ekonomikoen Direktorioko (JEGID) azken datuek, 2024ko urtarilekoak, EAEn 147.524 **enpresa**¹ aktibo zenbatu dituzte, 945.626 pertsonari lana ematen dietenak; beraz, **batez besteko tamainak** handitzen jarraitzen du eta 6,41 enplegukoa da enpresa bakoitzeko. 2023ko urtarilaren 1etik 2024ko urtarilaren 1era, enpresa-kopurua % 1 gutxitu zen (1.546 enpresa gutxiago), eta langileek aldakuntza positiboa erregistratu zuten (+% 1,9).

EUROSTATEk argitaratutako *Key figures on European business – 2024 edition* txostenean jasotako datuen arabera (*enpresa-estatistikek industria, eraikuntza, banaketa-merkataritza eta merkaturako beste zerbitzu batzuk hartzen dituzte, eta jardura ekonomiko batzuk baztertzen dituzte, hala nola nekazaritza, basogintza eta arrantza, baita administrazio publikoa ere*), 2021ean 30,1 milioi enpresa zeuden EBko enpresa-ekonomian. Guztira, 156,1 milioi pertsona enplegatzen

¹ Enpresa: establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dion unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira. 2012az geroztik, EUSTATen estatistikak lehen sektoreko enpresak barne hartzen ditu.

zituzten. Ondorioz, batez besteko tamaina 5 enplegukoa zen enpresa bakoitzeko, eta gehienak (% 99,1) 50 pertsona baino gutxiago enplegatzen dituzten enpresa mikro edo txikiak ziren.

Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresei dagokienez, datuek erakusten dute 2024ko abenduaren amaieran langileak zituzten enpresak 57.585 zirela, hau da, % 0,56 jaitsi ziren 2023ko aldi berarekin alderatuta (326 enpresa gutxiago), aurreko aldiaren izandako % 0,16ko igoeraren aldean. Jarduera-sektoreen arabera, guztietan ikusten da beherakada: lehen sektorean (-% 2,4), industrian (-% 1,8), eraikuntzan (-% 0,3) eta zerbitzuetan (-% 0,4).

EUSTATen Kontu Ekonomikoek erakusten dute 2024. urte osorako **BPG-aren urte arteko hazkundera**, termino errealean, % 2,2koa dela 2023koarekin alderatuta; ehuneko 0,5 puntu txikiagoa da 2023koa baino (% 2,7), eta puntu bat txikiagoa Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoa baino (% 3,2, EINen arabera). Hala ere, EAEko hazkundera eurogunekoa (% 0,9) eta EB-27koa (% 1) baino handiagoa da, EUROSTATen datuen arabera.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren informazioaren arabera, euskal ekonomiaren termometroak hazkunde leuneko eremuan hasi zuen 2024. urtea, 83,6ko balioarekin, eta goranzko joerarekin jarraitu zuen ekainera arte (orduan 99,3ko balioa izan zuen); ondoren, gorabeherak izan zituen, beheranzko joerarekin, eta abendua 96,3 punturekin amaitu zen.

Eskariaren aldetik, barne-eskariaren portaera BPG-arena baino positiboagoa izan da, % 2,3ko hazkundera izan baitu, termino errealean, 2024. urte osoan. Hala, kanpo-eskariak BPGd-aren hazkundeari egiten dion ekarpena negatiboa izan da (-0,1 puntu). Gastu pribatuaren eta gastu publikoaren baterako bilakaerak azken kontsumoko gastuaren % 2,4ko hazkundera ekarri du (2023an % 1,7ko hazkundera erregistratu zen). Kapital-eraketa gordinak (inbertsioa) % 2,1eko urte arteko aldakuntza-tasa izan du 2024an. Ekipo-ondasunetan egindako inbertsioa % 2,3 hazi da, eta kapital-eraketa gordinaren gainerakoa, eraikuntzari lotuago dagoena, % 1,9. Hala ere, eraikuntzari gehien lotutakoa aurreko urteko ratioaren gainetik hazi den bitartean (% 1,9 vs % 1 2023an), ekipa-ondasunetan egindako inbertsioak hazkundera moteldu du (% 2,3 vs % 3,1 2023an).

Kanpoko sektorearen bilakaeran, termino nominaletan, *Kanpo-merkataritzaren Estatistikak* (Aduanen Erregistroetan oinarritua) atzerriarekiko (ez du barne hartzen estatuaren gainerakoa) ondasunen kanpo-merkataritzari buruz ematen dituen behin-behineko datuek erakusten dute 2024an esportazioak % 5,1 jaitsi direla (30.967 milioi euro guztira). Esportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 93,7) % 5,4 murriztu dira, eta, energetikoak, % 1,4. Paraleloki, inportazioak (27.039,9 milioi euro) % 0,9 hazi dira 2023arekin alderatuta. Ez-energetikoak (guztizkoaren % 73,7) % 0,1 murriztu dira, baina energetikoak % 4 hazi dira.

EAEko kanpoko merkataritzak 3.927,5 milioi euroko saldo positiboa izan zuen, % 114,5eko estaldura-tasarekin.

Eskaintzaren ikuspegitik, agregatu makroekonomiko handi guztiek 2024an urte arteko bariazio erreal positiboak erregistratu dituzte, baina 2023an erregistratutakoak baino txikiagoak dira.

Industria eta energia % 1 hazi da, eta % 1,8, berriz, 2023an. Manufaktura-industriak erritmo txikixeagoan egin du gora (% 0,6), baina 2023an ikusitakoa baino altuagoan (% 0,2).

Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datuek erakusten dutenez, EAEko industria-jarduerak jaitsiera nabarmena izan zuen 2024ko urtarrilean (*aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean (A(m-12))*), eta hazkunde negatiboko eremuan sartu zen. Eremu horretan eutsi egin zitzaion urte osoan zehar, eta abendua % 1,1eko jaitsiera-tasarekin amaitu zen. EAEn pisu handiena duten azpisektore industrialek ere IPIren aldakuntza negatiboak ekarri dituzte 2024ko abenduan: kautxuzko produktuen eta plastikoen eta metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (-% 2,7), oinarritzko metalen eta produktu metalikoen fabrikazioa (makineria eta ekipoa izan ezik) (-% 0,1), material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa (-% 0,5), makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (-% 0,5) eta garraio-materialaren fabrikazioa (-% 4,5).

EAEko industriaren teknologia-mailari dagokionez, 2023ko datuek frogatu dute urteetan zehar hazi egin dela EAEn maila teknologiko ertain eta altuko sektoreetan² langileen kopurua. Hala, sektore horietako langileak % 32,9, ziren; 2022an, aldiz, % 32,4 eta 2018an % 31,8. Euskal industriaren maila teknologikoari dagokionez, 2023ko datuekin, ikusten da urteetan zehar maila teknologiko ertain eta altuko sektoreetako enpleguak hazten joan direla EAEn. Horrela, 2021etik 2023ra bitarteko ratioak % 32,7tik % 33,1era eta % 31,3tik % 32,8ra igaro dira.

Eraikuntzaren sektorea % 1,6 handitu da (2023an, % 2,6). Eraikuntzaren egoera-indizeari buruzko urteko balantzeak urtetik urterako % 2,3ko hazkundera erakusten du lan-egutegiko zenbaki homogeneotan; % 0,1 igo da eraikuntza, eta % 7,3 obra zibila.

Zerbitzuen sektorea % 2,6 hazi da urtetik urtera (2023an, % 3). Merkatu-zerbitzuek portaera heterogeneoak dituzte. Hala, Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren adarrak 2024 osoan % 1,8ko hazkundera erregistratu du (2023ko % 1,1a baino altuagoa) eta Gainerako zerbitzuen adarreko (higiezin jarduerak, jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta finantzarioak eta aseguruetaoak) jarduerak urte arteko % 2,9ko hazkundera erregistratu dute (aurreko urtean, % 5,4). Bere aldetik, merkaturako ez diren zerbitzuak, hau da, Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak adarra % 2,9 hazi da, 2023an erregistratutako hazkunde-tasaren ehuneko 2 puntu gainetik.

EUSTATen txikizkako merkataritzaren salmenta-indizearen hazkundera moteldu egin da 2023tik 2024ra bitartean. Horrela, txikizkako merkataritzako salmentak % 3 igo dira (lan-egutegiko baldintza homogeneotan eta prezio konstanteetan), aurreko urteko % 3,2aren aldean. Bestalde, *azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizeak* (IGSC) % 0,5eko hazkundera izan du, 2023an izandako % 0,2koa baino handiagoa, eta 2023an hasitako goranzko joerarekin jarraitu du.

EUSTATen *Establezimendu turistiko hartzaileen inkestako* datuek erakusten dutenez, 2023 eta 2024 bitartean gora egin zuten EAEko establezimendu turistikoetako (hotel-establezimenduak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak eta aterpetxe turistikoak) sarrerek eta gaudiek, batez besteko egonaldiek eta okupazio-mailak. Horrela, sarreraren kopurua % 3,3 handitu zen eta 4.400.684 izan ziren, guztira 9.075.705 ostatu-gau (+% 4,4 2023arekin alderatuta). Batez besteko egonaldia 2,1 egunekoa izan zen eta plazakako betetze-maila % 52koa. Hotel-establezimenduetako sarrerak eta ostatu-gauak sarreraren % 85,5 eta ostatu-gauen % 82,2 izan dira, baina bestelako turismo-establezimenduen mesedetan murriztu egin dira.

Finantza-sektoreari dagokionez, Espainiako Bankuaren datuen arabera, administrazio publikoen titulartasunekoak diren gordailuen saldo osoa 10.480 milioi eurokoa izan zen EAEn 2024 bukaeran. Horrek esan nahi du urtean % 5,3ko igoera izan zela, eta estatuko gordailuen % 7,5 dira. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen balioa 89.847 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 4,1eko hazkundera izan zuen aurreko aldiarekin konparatuta, eta % 6ko ratioa estatuko guztizkoaren gainean. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epera eta aktiboen aldi baterako lagapena), haxe ikusiko dugu: % 73,1 ageriko gordailuak dira, % 14,9 eperako gordailuak eta % 1,35 aktiboen aldi baterako lagapenak. Epe gordailuak % 24,6 igo dira eta ageriko gordailuak % 0,4.

² EUSTATEk erabiltzen duen ELGaren sailkapenaren arabera, maila teknologiko altuak hauek hartzen ditu: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak fabrikatzea eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Ertain-altuan hauek daude: 4. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipoen elektronikoaren fabrikazioa, makinaren eta ekipoen fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio-material batzuen fabrikazioa, ontzizintza eta eraikuntza aeronautikoa izan ezik, eta 8. Tresna eta hornidura mediko eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-baxuan hauek jasotzen ditu: 9. Euskarri grabatuen erreproduktzioa, 10. Koke-gaiak eta petrolio-fintzea, 11. Kautxuko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk fabrikatzea. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makinak eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzizintza, eta 14. Makineria eta ekipamendua konpontzea eta instalatzea. Baxuan hauen jasotzen ditu: 15. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta jantzizintzaren industria. Larrugintza eta zapatagintza. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarigintza, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Sailkatu gabe.

Gordailu-erakundeek administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen aurrean emandako kredituaren saldo bizia % 1,7 jaitsi da (66.465 milioi eurotik 65.335 milioi eurora). Beherakada hori administrazio publikoei (-% 4,2) eta sektore pribatuari (-% 1,3) emandako kredituaren saldoaren jaitsierak eragin du. Azken hori guztizkoaren % 86,7 da.

EINen datuen arabera, etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 10,3 igo da, baina hipotekatutako etxebizitzaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa apur bat jaitsi da (-% 0,1), 159.176 eurotik 158.976 eurora.

Inflazioari dagokionez, 2024a inflazio-urtea izan da berriro, prezioek gora egiten jarraitu baitute Estatu osoan eta eurogune osoan baino gehiago. Prezioen igoera 2023an erregistratutakoari gehitu behar zaio. 2024ko abenduan, KPlaren urte arteko tasa % 3,6koa izan zen EAEn (0 2,8koa Estatuan). Erregaien prezioen igoerak eta, neurri txikiagoan, turismoaren prezioen igoerak eragin zuten inflazioaren portaera hori. Hala ere, erregaien prezioak inflazio handiaren eragile nagusiak diren arren, erosketa-saskiaren prezioak gora egiten jarraitu zuen.

Lan-kostuei³ dagokienez, INEren *Lan Kostuaren Hiruhileko Inkestako* datuek adierazi dute EAEn, 2024ko laugarren hiruhilekoan, % 1,8 igo dela 2023ko aldi berarekin alderatuta (Estatuan, + % 3,6), eta 3.708 eurora iritsi dela langile eta hilabete bakoitzeko, hau da, Estatuan baino 450 euro gehiago.

Bestalde, **lanaren ustezko produktibitatea**, ekoizpena enplegua baino gehiago hazi zenez, % 0,4 hazi zen benetan 2024an⁴.

Errentaren banaketa funtzionala: Gure ekonomian sortutako balio erantsia nagusiki berau sortzen lagundu duten ekoizpen-faktoreetan banatzen da eta, bigarrenik, pertsonen eta familien artean, ekoizpen-faktore horien jabetzan duten partaidetzaren eta jasotako askotariko errenten arabera. Argitaratutako azken datuek erakusten dutenez, 2021 eta 2023 bitartean soldatapekoen ordainsaria BPG-aren guztizkoaren % 48,8 izatetik % 47,2 izatera igaro da; ustiapeneko soberakin garbia % 27,2tik % 30,1era, kapital finkoaren kontsumoa % 13,7tik % 13ra eta dirulaguntzen zerga garbiak % 10,3tik % 9,7ra. Bestalde, 2019 eta 2023 bitartean soldatapekoen ordainsaria BPG-aren guztizkoaren % 41,1 izatetik % 47,2 izatera igaro da; ustiapeneko soberakin garbia % 32,4tik % 30,1era, kapital finkoaren kontsumoa % 10etik % 13ra eta dirulaguntzen zerga garbiak % 10,5etik % 9,7ra.

EUSTATEN *Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistikaren* arabera, EAEko 18 urte eta gehiagoko egoiliarren batez besteko **errenta pertsonala** (errenta osoa) % 7,7 hazi zen 2021 eta 2022 artean, eta 25.061 eurokoa da. Pandemia aurreko 2019. urtearekin alderatuta, % 11,1 hazi zen. % 58,3 lanaren errentetatik dator, 14.609 € batez beste (+% 7,2, 2019. urtearen aldean), % 28,6 gizarte-transferentzia edo -prestazioetatik⁵, 7.158 € batez beste (2019. urtearekin alderatuta +% 18,6), % 8,8 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (2.207 €, +% 16,3 2019. urtearen aldean) eta % 4,3 ekonomia-jardueren errentetatik (1.087 €, +% 2,9 2019. urtearen aldean). Errentaren banaketa pertsonalak adierazten digu kapital-errenten ekarpenak gehiago handitzen ari direla lan-errenten ekarpenak baino.

Sexuen arabera, banaketa ezberdina da gizonen eta emakumeen artean, genero-arrakala agerian geratzen delarik. Hala, gizonek 30.356 euroko batez besteko errenta (guztira) lortzen dute, eta emakumeek 20.180 eurokoa.

³ Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeen enplegatzaile jarduerak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak izan ezik).

⁴ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATEN datuetatik abiatuz kalkulaturik.

⁵ Pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabezia-prestazio edo -subsidioak, ekintza terroristen ziozko prestazio publikoak, giza immunoeskasiaren birusak erasandakoek jasotako laguntzak eta ezintasun iraunkorren ziozko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioak.

Errentaren banaketari dagokionez (errenta guztia) 18 urteko eta gehiagoko biztanleria egoiliarren % 59,5 inguruk EAEko batez bestekoa (25.061 euro) baino errenta pertsonal txikiagoa dute, baina kontuan izan behar da talde horretan sartuta daudela 2022an errentarik jaso ez zutenak (% 12,8); beste muturrean, biztanleria horren % 9,2ren errenta batez bestekoaren bikoitza da, hau da, 50.122 euro baino gehiagokoa.

Aldi berean, biztanleen % 33,5ek 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala dute, eta % 39,7k 15.000 baino gutxiagokoa (kasu bietan barne hartzen da errentarik ez dutenen % 12,8).

EAEko enpresa ez-finantzarioen errentagarritasun ekonomikoa % 5,6koa izan zen 2022an, eta **errentagarritasun finantzarioa**, berriz, % 9,5ekoa, 2010etik izandako emaitzarik onenak. Erregistro horiek 2021ean lortutako ratioa baino 1,4 puntu gehiago dira errentagarritasun ekonomikoaren kasuan, eta 2,5 puntu gehiago errentagarritasun finantzarioaren kasuan. Palanka-efektuaren ratioa 1,7koa izan zen (beraz, 1), 2021ean ikusitakoaren berdina, baina 2010eko hamarkadaren hasieran lortutako mugak baino askoz txikiagoa, orduan balioak % 200 baino askoz handiagoak baitziren.

Bestalde, **Kanpo Inbertsioen** Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa kapital eta ondarean murriztu egin da EAEn 2023 eta 2024 artean, 1.561,4 eurotik 1.044,8 milioi eurora (- % 33,1). Hala, 2024an, EAE hirugarren postuan dago inbertsio-bolumenari dagokionez, Madrilen (19.523,5 milioi euro) eta Kataluniaren (4.605,1 milioi euro) atzetik. Sektoreka, inbertsio osoan duten pisuagatik bereziki azpimarragarriak dira Garraioan eta biltegiatzean, Handizkako eta txikizkako merkataritzan, Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketan eta Makineria eta ekipoen fabrikazioan egindakoak. Lurraldearen ikuspegitik, EAEn egiten den inbertsioaren % 76,5 Europako herrialderen batetik dator, eta ia den-dena EB14tik (% 72,8). Esparru geografiko horren barruan, nabarmentzekoa da Herbehereetatik egindako inbertsioa: (641,1 milioi euro, guztiaren % 61,4) Europatik kanpo, Ameriketako Estatu Batuek (152,9 milioi euro) egindako inbertsioak nabarmendu behar dira (guztizkoaren % 14,6).

Bestalde, EAEk atzerrian egindako inbertsioa nabarmen handitu da 2023tik 2024ra bitartean, 1.356,4 milioi eurotik 4.271,8 milioi eurora. Hala, EAE bigarren tokian dago autonomia-erkidegoen sailkapenean atzerrian eginiko inbertsioetan, Madrilen atzetik (15.602,5 milioi euro). Sektoreen arabera, nabarmentzekoak dira Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura, Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa eta Handizkako eta txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa. Lurralde-ikuspegitik, % 94,6 ELGAko herrialde batera doa. Zehazkiago, guztizkoaren % 82,3 Ipar Amerikara joan da (AEBra bere osotasunean) eta % 9,4 Europara (EB-14ra, guztizkoaren % 7,4). Latinoamerikak guztizkoaren % 7,2 jasotzen du, eta Asiak eta Ozeaniak % 1,1. EBko herrialdeetatik, azpimarratzekoak dira Alemanian (guztiaren % 4,1), Italian (% 2,8) eta Polonian (% 1,9) egindako inbertsioak.

EAEko **sektore publikoari** dagokionez, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren “Aurrekontu-betearazpenaren estatistikaren” arabera, 2024an Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek batera likidatutako diru-sarrerak guztiak 21.233,1 milioi eurokoak izan ziren eta aurreko urtearekin alderatuta % 0,6 igo ziren (2023an, +% 6,7). Zuzeneko eta zeharkako zergen eta transferentzia arrunten diru-bilketak igo egin dira (hurrenez hurren, +% 0,6 eta +% 2,5), eta tasen eta bestelako sarreraren diru-bilketa % 5,2 gutxitu zen. Gainera, eta 2023an bezala, finantza-pasiboak % 18,1 gehitu ziren (hau da, zorpetze gehiago). Zorpetzearen igoera hori, 4.4 atalean ikusiko dugun moduan, Eusko Jaurlaritzaren finantzetan (+% 20,1) eta foru-aldundienetan (+% 12) gertatu da. Diru-sarreraren igoera Eusko Jaurlaritzarentzat bakarrik gertatu zen (+% 1,8); izan ere, foru-aldundientzat igoera zero izan da, eta, esan bezala, agregatua +% 0,6.

Balantze gisa, Euskal Sektore Publikoak Erkidegoko BPGd-arekiko dituen diru-sarreraren multzoa, 2023an % 22,8 zena, puntu bat jaitsi da 2024an, % 21,8ra arte (behin-behineko datuak), BPGd-a diru-sarrera publikoak baino proportzio handiagoan hazi baita (+% 5 termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

Bigarrenik, *2024an hitzartutako zergen diru-bilketaren* gaineko zifrak aitortu ziren; beraiek osatzen dute zerga zuzenen eta zeharkakoen multzoa eta guztiaren % 90 baino gehiago dira. 2024an 18.310 milioi eurokoa zen, aurreko ekitaldian baino % 0,5 gehiago. Zifra horiek 2024ko urrian egindako azken aurreikuspenaren % 92,9 eta aurrekontuaren zifraren % 96,4 dira, eta, ekonomiaren bilakaerak ez ezik, mutualistei egindako itzulketek PFEZn duten eraginak ere azaltzen ditu. Gainera, zuzeneko zergapetzearen (+% 0,5) eta zeharkakoaren (+% 0,7) portaera nahiko antzekoa ikusten da.

Laburbilduz, bildutako bolumena 18.310 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko 2024ko BPGd arruntaren % 18,8 izan da (2023an % 19,7). Bildutako guztiaren % 38,1 PFEZari dagokio, % 37,5 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), % 9,5 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 14,9a, zenbait zerga bereziri.

Bestalde, *Euskal Sektore Publikoaren gutzitako gastua* (tokiko erakundeak alde batera utzita) 21.795,1 milioi eurokoa izan da 2024an, eta % 1,5 igo da 2023aren aldean, aurreko urteko +% 7ren aldean. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen ehunekoa 8 hamarren murriztu da, % 23,2tik % 22,4ra, BPGd-aren bilakaera dela-eta (% 5 hazi da zifra arruntetan, behin-behineko datuen arabera). Gastuaren gehikuntza bai Eusko Jaurlaritzan (+% 3,5), foru aldundietan murriztu baita (-% 0,4) gertatu da, eta +% 1,5ko agregatuaren aldakuntza gertatu da, partida batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

EAEko sektore publikoko gastuaren kapituluaren aldakuntza garrantzitsuenek (tokiko erakundeak salbuetsiz) zenbait ezberdintasun izan dituzte aurreko urteekin alderatuz. Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2023an baino zertxobait gutxiago hazi dira (+% 5,4, aurreko urtean baino 0,9 puntu gutxiago), bai aldundietan (+% 5,7), bai Jaurlaritzan (+% 5,4). Aldi berean, transferentzia arruntak batez bestekoaren gainetik igo dira, 2023an baino proportzio txikiagoan bada ere (+% 3, 5,9 puntu gutxiago). Funtzionamendu-gastuek (ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez) aurreko urteetako joerari eutsi diote, eta, gainera, aurreko ekitaldietan baino gehiago hazi dira (+% 9,5, eta 2023an, aldiz, +% 4,9). Inbertsio errealei dagokionez, 2023an % 31 handitu baitziren, eta, horrela, 2020ko jaitsieraren ondoren bilakaera positiboko hiru ekitaldi metatu baitziren, 2024an berriro jaitsi dira, kasu honetan % 9 kopuru agregatuan, Eusko Jaurlaritzaren % 19,8ko eta Foru Aldundien % 1,7ko jaitsieraren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, 2024ko "*EAEko Aurrekontu Orokorrak gauzatzea*" txostenaren datuek erakusten dute gastua % 3,5 handitu dela 2023tik (obligazio aitortuak), urte horretan % 5 igo baitzen. Gastu-bolumen handiena duten bi sail nagusiak Hezkuntza (% 24,2) eta Osasuna (% 35) dira oraindik ere. Gastu likidatua 14.915,7 milioi eurokoa da, eta gure erkidegoko aurtengo BPGaren % 15,3 da, behin-behineko datuekin (% 15,5 2023an).

Bestalde, 2024an EAEko Sektore Publikoaren (Jaurlaritza gehi foru aldundiak) sarrera arruntak % 0,6 igo direnez eta izaera bereko gastuak % 5,5 igo direnez, % 42,4 jaitsi da aurrezki gordina, hau da, 1.178,9 milioi euro gutxira. Zenbateko honek gure autonomia-erkidegoko BPGd-aren % 1,2 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 564,2 milioi euroko (BPGd-aren % 0,6) defizit publikoa erregistratu da (finantzatzeko beharrak), finantzazkoak ez diren diru-sarrerak (arruntak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako gastuak baino. Aurreko ekitaldian, 135,2 milioi euroko superabita izana zen (BPGd-aren % 0,1).

Eusko Jaurlaritzaren "*Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikak*" erakusten duenez, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak) zorpetze garbia (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), 2022an eta 2023an ez bezala, positiboa da 2024an: hau da, amortizazioa txikiagoa da zor berriaren jaulkipena baino. Zehazki, 171 milioi euro dira (-151,4 milioi 2023an). Zorpetze gordina nabarmen murriztu zen 2022an (-% 67,1), baina hazi egin zen 2023an (+% 56,9) eta, berriz ere, 2024an, 1.087,1 milioi eurora iritsi zen (+% 18,1); horietatik 834 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (+% 20,1), eta gainerako 253,1ak foru-aldundiei (+% 12 2023aren aldean).

Zorpetze gordinaren igoera horrekin batera, dagoen zorraren amortizazioa jaitsi egin da (916,1 milioi euro, eta horietatik 631,9 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Hala, ekitaldiaren amaieran zor bizia % 1,4 handitu da. Ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 12.732,8 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-aren % 13,1, behin-behineko datuen arabera; 2023an, berriz, % 13,6). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztien % 84,6, eta % 84,2 aurreko urtean).

2024an, bestalde, *bonu jasangarrien* zortzigarren jaulkipena egin da. Tresna horren bidez, Eusko Jaurlaritzak Garapen Jasangarrirako Helburuei lagundu nahi die, EAEko ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-erronkei aurre egiteko finantzaketa arduratsua eta eraginkorra sustatuz. 2024ko jaulkipena 600 milioi eurokoa da, eta orain arte egindako zortzi jaulkipenen zenbateko osoa 5.000 milioi eurokoa da.

Eta, azkenik, *enplegu publikoari* dagokionez, EAEko administrazio publikoek 149.104 langile zituzten 2024ko urtarrilaren 1ean⁶, EUSTATen “*Administrazio Publikoen Direktorioko*” datuen arabera. Hau da, aurreko urtean baino % 1,5 gehiago eta EAEn 2024ko lehenengo hiru hilabeteetan lan egiten zuten guztien % 15,2 (% 15,3 2023an), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero. Datu horietan ez da kontuan hartzen estatuko administrazioko eta Gizarte Segurantzako langileen multzoa, baina Lurralde Politika eta Memoria Demokratikoko Ministerioak, 2024ko urtarriko estatistika-aldizkarian kalkulatu zuen EAEn 9.255 pertsona zeudela lanean estatuko administrazio publikoan (horietatik 4.113 estatuko administrazio nagusian eta 5.142 “beste batzuk” kategorian, hau da, nagusiki estatuko segurtasun- eta indar-kidegoetan). Zifra biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2024a hastean, 158.359 inguru lirateke (aurreko urtean baino +% 1,5). Edozelan ere, zenbatespen bat baino ez da zenbateko hori, erreferentzia-data eta metodologia desberdinak erabili baitira⁷.

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2024ko urtarriean ziren 149.104 enplegatu publikoetatik % 65,6 EAEko administraziokoa zen, % 18,6 tokiko erakundeetakoa, % 8,5 foru aldundietakoa eta gainerako % 7,3a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa.

Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 64,6 ziren (+1,9 puntu 2023rekin alderatuta), % 34,5 langile lan-kontratadunak ziren (-1,9 puntu), kasu bietan Osakidetzaren estatutupeko langileak barne, eta % 1 goi-karguak ziren (2022ko eta 2023ko ratio berbera). Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetakoa) pertsonalaren % 57,2 zen (2023an baino +2,3 puntu gehiago), % 20,3 bitarteko funtzionarioak ziren (+0,1 puntu) eta % 21,6 aldi baterako pertsonala zen (-2,3 puntu). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 41,9koa izan zen (% 44,1koa aurreko urtean).

...

COVID-19aren pandemiak aurreikuspen ekonomikoak aldatu zituen, eta agerian utzi zuen merkatu bakarraren berdintasun-baldintzak hausteko eta Batasuneko kideen arteko desadostasun ekonomikoak areagotzeko arriskua. 2020ko uztailaren Europako Kontseiluak akordio historikoa lortu zuen azkenean, Europako Batzordeak proposatutako irismen handiko neurri-sorta bati buruz, 2021-2027 aldirako Erkidegoko aurrekontuek izango dituzten finantza-aurreikuspenekin lotuta. Europako suspertze-tresna da, **NextGenerationEU** izenekoa, 750.000 milioi eurokoa, eta haren zati nagusia, 672.500 milioi euro, **Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari (SEM)** dagokio.

⁶ Lanaldi osoko langile landun baliokideak.

⁷ Ministerioaren datuek egonkorra deritzon plantilla zenbatesten dute, 6 hiletik beherako aldi baterako kontratuak baztertuz.

Laguntza lortzeko, estatu kideek *Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalak* egin zituzten, eta 2021eko uztailaren 13an, Europako erakundeek *Espainiako Erresumaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana* onartu zuten. Plan horrek 140.000 milioi euro arteko transferentziak eta kredituak emango dizkio Espainiari 2021-2026 aldian.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren informazioaren arabera, 2025eko martxoaren 31n Estatuak banatutako 27.652,68 milioi euroetatik, EAEk 1.299 milioi euro jaso ditu, Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatzeko (guztizkoaren % 4,7). 1.299 milioi euro horietatik, % 90 (1.173 milioi euro) proiektuetarako esleitu dira (indarrean daudenak edo amaituta daudenak), eta 1.173 milioi horietatik % 80 gauzatu da (935 milioi euro).

Gainera, Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatzeko 1.299 milioi euroko zenbatekoari EAerako 2.075 milioi euroko estatuko kudeaketa gehitu behar zaio, eta 299 milioi euro gehiago, Sailak “beste erkidego batzuetako kudeaketa autonomikorako” gisa kalifikatzen duena. Horrela, Euskadiri 2025eko martxora arte esleitutako Next Generation funtsen zenbateko osoa 3.673 milioi eurokoa da.

II. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTA ETA DIGITALIZAZIOA

I+G+b jarduerak

EUSTATen arabera, 2023an, EAEn 2.002,5 milioi euro inbertitu ziren I+Gko jardueretan (+% 11,6 gehiago, aurreko urteko datuarekin alderatuz gero). Ahaleginari dagokionez, BPGaren % 2,16 da, aurreko aldian erregistratutakoa baino ehuneko handiagoa (% 2,07). Ratio hori Estatuko batezbestekoa baino handiagoa da (% 2,16 vs % 1,49), baina eurogunean ikusitakoa (% 2,25) eta arlo horretan erreferentziazkoak diren herrialdeetan erregistratutakoa baino txikiagoa. Ratio hauek nabarmentzen dira: Hego Koreakoa (2022an, % 4,85), AEBkoa (2022an, % 3,59), Suediakoa (% 3,57), Japoniakoa (2022an, % 3,41), Belgikakoa (% 3,32), Austriakoa (% 3,29) eta Alemaniakoa (% 3,11).

Gastua egikaritzeari dagokionez, enpresek % 77,2 exekutatu zuten⁸; goi-mailako irakaskuntzak % 16,4, eta Administrazioaren mendeko erakundeek gainerako % 6,4. Horrela, enpresa-sektorea da oraindik ere gastuaren zatirik handiena egikaritzen duena.

Gastuaren finantzaketari dagokionez, sektore pribatuaren partaidetza % 55,5ekoa da. Administrazio Publikoak gastuaren % 34 finantzatzen du. Eurogunean, EUROSTATen 2021eko datuen arabera, ehunekoak % 58,1 eta % 30,5 dira. Herrialde hauetan, I+Gren arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan zen 2022an: Txina, Hong Kong kenduta (% 79), Japonia (% 78,5), Hego Korea (% 76,3), AEB (% 77), Suitza (% 65,9, 2021eko datua), Belgika (% 64,4, 2021ean), Alemania (% 62,8, 2021eko datua), Malta (% 61,3, 2021eko datua) eta Suedia (% 60,6, 2021eko datua).

I+Gko jardueretan lanaldi osorako enplegatutako langileen kopuruak (lanaldi osoko langileak, LOL) gora egin du berriro ere (23.299,7 pertsona), % 7,1 zehazki, aurreko urtearen aldean. Sexuaren araberako analisiak agerian uzten du jarduera horietan lan egiten duten langile guztien % 37,3 baino ez direla emakumeak; hala ere, horien pisua 3,9 portzentaje-puntu igo da 2010etik, eta 10,7 puntu 2000tik.

Enpresen sektoreko I+G adierazleen analisia honako hau da, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko zentroak eragiketarik kanpo utzita: 2023an I+Gko jarduerak egin zituzten enpresak 1.426 izan ziren, aurreko urtean baino % 1,5 gehiago. Horietatik 565 industria-sektorekoak dira (aurreko urtean baino 15 gehiago); 792 zerbitzuen sektorekoak (1 gehiago); 57 eraikuntzakoak (7 gehiago), eta 12 lehenengo sektorekoak (2 gutxiago). Jarduera horietan lanaldi osoan aritzen diren langileen kopuruak gora egin du berriro: 12.276,8tik 13.104,1era. Langile horietako gehienak zerbitzuetan eta industrian biltzen dira; % 52,9 (6.926,5 LOL) eta % 43,8 (5.745,2 LOL), hurrenez hurren. Enpresek jarduera horietan egiten duten guztizko gastua % 11,1 igo da 2022tik 2023ra bitartean, eta 1.213,7 milioi eurora iritsi da. Nabarmentzekoa da I+Gn aritzen diren euskal enpresen batez besteko tamaina handia: 77 langilekoa da, euskal enpresa-multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa, azken hori 6,4 lagunekoa baita. Antzeman dugunez, euskal enpresek beren funtsekin jarraitzen dute I+Gko gastuak finantzatzen, neurri handi batean (guztizkoaren % 72,2 funts propioak dira).

Enpresen berrikuntza-jarduerari dagokionez, 2023an, EUSTATen arabera, 10 enplegu eta gehiagoko enpresen % 38,4 berritzaileak ziren, aurreko urtean baino 3 portzentaje-puntu gehiago. EINen 2022ko datuen arabera, 10 enplegu edo gehiagoko EAEko enpresen % 29,8 berritzaileak ziren, Estatuko batezbestekoa baino ratio handiagoa hori (% 23,9). Autonomia-erkidegoen rankingean, EAE dago lehen postuan.

Sektoreka, EUSTATen datuen arabera, industria-enpresen % 44,4, eraikuntza-enpresen % 35,7 eta zerbitzuetakoen % 36,8 berritzaileak dira.

10 enplegu eta gehiagoko enpresek jarduera berritzaileetan egindako gastua, EUSTATen arabera, 3.140 milioi eurokoa da (+% 9,3, aurreko urtearen aldean), hau da, BPGaren % 3,39.

⁸ Komeni da kontuan hartzea I+Gren arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela-eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.

10 enplegu edo gehiago dituzten enpresen % 67,9k uste dute berrikuntza zailtzen duten faktore jakin batzuk daudela. Hauek dira nagusiak: “Enpresaren barruan beste lehentasun batzuk daude” (enpresen % 51,9k adierazi zuten), eta “kostuak altuegiak dira” (enpresen % 44,3k adierazi zuten). Gero, hauek datoz: “enpresaren barruko finantzaketa falta”, “laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzeko zailtasunak”, “merkatuko eskariaren inguruko ziurgabetasuna” eta “enpresaren barruan langile kualifikatuak falta dira”.

“Europako Berrikuntzaren Adierazleen 2024ko Panelak (EIS)” erakusten du EAE berriz ere “berrikuntza handiko herrialdeak” taldearen barruan kokatzen dela. Zehazki, sintesi-adierazleak 0,616ko balioa du, Estatuaren (0,497) eta EB27ren (0,553) gainetik.

- ESPARRU-BALDINTZAK blokean, EAEk 0,71ko puntuazioa du, eta EB27k 0,50ekoa; gainera, gure erkidegoak Europako batezbestekoa gainditzen du blokea osatzen duten hiru dimentsioetan: *Giza baliabideak*, *Ikerketa-sistema erakargarriak* eta *Digitalizazioa*.
- INBERTSIOAK blokean ere, EAEk, 0,67ko puntuazioarekin, Europako batezbestekoak (0,58) baino puntuazio hobea lortu du. Eta, *Finantzaketa eta babesak*, *Enpresen inbertsioa* eta *Informazioaren teknologien erabilera* dimentsioetan, EAEk EB27k baino puntuazio hobea lortu du.
- BERRIKUNTZA-JARDUERAK hirugarren blokeak enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu, eta EAEk (0,46) Europako batezbestekoa (0,47) baino puntuazio txikiagoa lortu du. Bloke honen hiru dimentsioetatik — *Berritzaileak*, *Lankidetzak* eta *Ezagutza-aktiboak*—, EAE bigarrenaren soilik dago EB27ren aurretik. Berrikuntza-prozesuen etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubideen formak atzematen dituen *Ezagutza-aktiboak* dimentsioan, adierazlea 0,36 da, EB27ko (0,54) batezbestekoaren azpitik. Esan dugunez, historikoki aztertuta, EAEk I+Gko jardueretan inbertsio handiak egin baditu ere, dirudienez, oraindik ere zailtasunak dauzka inbertsio hori emaitzetara eramateko, ezagutza-aktiboen adierazleak baxuak izaten jarraitzen dutelako; horrek efizientzia edo produktibitate txikiagoa erakusten du.
- Bestalde, INPAKTUAK blokean (enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu), EAEk Europako batezbestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du: 0,61ekoa eta 0,66koa dira, hurrenez hurren. Bloke honetako hiru dimentsioetatik —*Enpleguko inpaktuak*, *Salmentetako inpaktuak* eta *Ingurumen-jasangarritasuna*—, EAE hirugarrenean baino ez dago EB27ren aurretik.

Azkenik, EAEko 2030eko ZTBParen balantzeari dagokionez, kontseilu honek honako hau ikusi du:

- 2026rako helburua lortu duten adierazleak hauek dira: Enplegu intentsiboa ezagutzan, I+Gko inbertsioa, Enpresek finantzatzeko I+Gko inbertsioa eta Patenteen Europako Bulegoko patenteen eskaera kopurua.
- Bide onean doazenak hauek dira: Goi-mailako eta erdi- eta goi-mailako teknologiko produktuen esportazioak, Negozio-prozesuetan edo/eta -produktuetan berritzaileak diren enpresak, Berrikuntzako inbertsioak, EB diseinu industrialen eskaera kopurua, I+Garen nazioarteko finantzaketa, Argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan eta Gradu STEM titulazioetarako sarbide berriak.
- Bilakaera negatiboa duten adierazleak honako hauek dira: Nazioarte-mailan gehien aipatu diren hamar argitalpen zientifikoak, Produktu berrien salmenta fakturazio osoaren gainean, Europako Horizon proiektuen lidergoa, Euskal enpresen partaidetza Europako Horizon programan, Ikerlari doktoreak eta Emakume ikertzaileak.

Ekonomia eta gizarte digitalak

EUSTATen *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta-IGI-Familiak* inkestaren datuen arabera⁹, 2024an, azken hiru hilabeteetan etxean, lantokian edota beste leku batean Internetera konektatu diren 15 urteko eta gehiagoko pertsonak biztanleen % 89,9 dira. Ehuneko hori 1,6 puntu igo da 2023tik. Komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko zerbitzuak dira Interneteko erabiltzaileek gehien erabiltzen dituztenak. WhatsApp-en eta berehalako mezularitzako antzeko beste aplikazio batzuen erabilera da hedatuena, Interneteko erabiltzaileen % 97,7k erabili baitute.

EUSTATen *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta-IGI-Enpresak* inkestak bederatzi adierazle erabiltzen ditu enpresen eraldaketa digitala aztertzeko (4.0 industria)¹⁰. 2024an, enpresaren tamaina edozein dela ere, enpresaren xedeetarako sare sozialak erabiltzea da adierazlerik azpimarragarriena (establezimendu guztien % 53,8k eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 76,5ek). Jarraian, "hodeian" dauden zerbitzu informatikoak ageri dira, establezimendu guztien % 31,7k (10 enplegu edo gehiagokoen % 57,3k) ordaintzen baitute ostatatze horrengatik, eta, hirugarren tokian, zibersegurtasun-jarduerak daude, establezimendu guztien % 25,4k egiten baitituzte (10 enplegu edo gehiagokoen % 51,4k). Bigarren multzoa aplikazio mugikorrek, gauzen Internetek eta big-data analisiak osatzen dute. Eta, urrunago, adimen artifiziala, 3D inprimagailuen erabilera eta robotikaren erabilera daude.

Bestalde, EINen "*Enpresetan IKTak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkestaren*" 2024ko lehenengo hiruhilekoko datuen arabera, 10 enplegu edo gehiago dauzkaten eta egoitza sozialak EAEn dauzkaten enpresek intentsitate handia erakusten dute IKTen erabileran. Zehazki, Estatuko rankingean, dimentsio hauetan hirugarren tokian daude enpresa horiek, Madrilen eta Kataluniaren atzetik: adimen artifiziala erabiltzen duten enpresen ehunekoa, urrutiko bilerak egiten dituzten enpresen ehunekoa eta telelana egiten uzten duten enpresen ehunekoa; hauetan, berriz, laugarren tokian daude: hodeiko zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresen ehunekoa (cloud computing) eta IKTetako segurtasun-neurriren bat erabiltzen duten enpresen ehunekoa.

Halere, IKTetan adituak diren langileen ehunekoari dagokionez, posizioak askotarikoak dira. Hala, 10 enplegu edo gehiago dauzkaten eta egoitza sozialak EAEn dauzkaten enpresak bosgarren tokian daude hauetan: zibersegurtasunaren arloko IKT adituen ehunekoa eta datuen analisiaren arloko IKT adituen ehunekoa; bederatzigarren tokian honetan: adimen artifizialaren arloko IKT adituen ehunekoa, eta hamargarren tokian honetan: hodeiko konputazioaren arloko IKT adituen ehunekoa.

Telelanari dagokionez, EINen datuen arabera, 2024an erregulartasunez telelanean aritzen diren pertsonen ratioa (telelana ahalbidetzen duten enpresetan) % 14,9koa da EAEn, Estatuko % 19,8ren aldean. Gure erkidegoak laugarren postua betetzen du Estatuko sailkapenean, Madrilen (% 33,8) eta Kataluniaren (% 21,6) ostetik.

Transakzio elektronikoei dagokionez, EUSTATen datuen arabera, 2024an, 15 urteko eta gehiagoko euskal biztanleen % 56,8k erosi dituzte ondasunak eta zerbitzuak Interneten bidez. Zifra hori 15 urte eta gehiagoko euskal biztanleria osoaren % 51 da. Bi ratioek egin dute gora, aurreko urtearekiko.

Bestalde, 2022an 45.800 establezimendu inguruk egin zuten merkataritza elektronikoa EAEn; hau da, establezimendu guztien % 29,2k (aurreko urtean baino % 0,5 gehiagok). Gehikuntza hori, neurri handiagoan, erosten duten establezimenduetan oinarritzen da. Establezimendu guztien % 26,3k Internet bidez erosi zuten (aurreko urtean baino portzentajezko 6 hamarren gehiagok), eta % 8,58k salmenta elektronikoa egin zituzten (aurreko urtean baino portzentajezko 3 hamarren gehiagok).

⁹ Estatistikan jasotako datuen data edo aldia bat dator urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoarekin.

¹⁰ Hauek dira: sare sozialak enpresaren xedeetarako erabiltzea, "hodeiko" zerbitzu informatikoak erabiltzea, zerbitzu mugikorrek erabiltzea, gauzen Internet (IoT) erabiltzea, zibersegurtasun-jarduerak, makrodatuen analisia (big data), adimen artifizialeko sistemak erabiltzea, 3D inprimagailuak erabiltzea eta robotika erabiltzea.

EAEko merkataritza elektronikoak berriro ere gora egin du zifra ekonomikoetan, aurreko urtearen aldean. Horrela, sortutako negozio-bolumena % 12,8 hazi da salmenta elektronikoei dagokienez, eta % 10,3 erosketari dagokienez.

Balioesten denez, merkataritza elektronikoaren bidezko salmentak egin zituzten establezimenduen salmenta guztien % 45,7 elektronikoak izan ziren. Bestalde, enpresek egindako erosketa guztien % 36,7 izan ziren elektronikoak.

Eurostat arabera, EB27an, 10 enplegu edo gehiago izan eta online (aurrekontuaren % 1 gutxienez) saldu zuten enpresen ehunekoa (Internet, EDI edo beste sare batzuen bidez) % 19,7koa izan zen 2023an, finantza-sektorea kenduta. Danimarkak eta Suediak izan zuten linean saltzen duten enpresen proportziorik handiena EBko herrialde kideen artean, % 36,5ekin eta % 35,4rekin, hurrenez hurren. Espainiako Estatuan, % 30,2 dira.

Administrazio Elektronikoaren erabilera aztertuko dugu orain.

- Eskaria, bai herritarren aldetik, bai enpresa-sarearen aldetik.

EUSTATen datuen arabera, 2024an Administrazio Elektronikoa erabili duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa % 61,9koa da, eta ratio hori 0,4 portzentaje-puntu handiagoa da 2023an erregistratutakoa baino. Administrazioek ematen dituzten zerbitzuen artean, administrazio-izapideak telematikoki egitekoa (betetako formularioak bidalita) da ohikoena (% 58). Balioespenen arabera, 1.276.400 lagunek erabili dute banka elektronikoa (erabiltzaileen % 74,1ek, +2,8 puntu), 2023an baino 85.000 lagun inguruk gehiagok.

Administrazio Publikoarekin elkarreragin elektronikoa duten establezimenduen ehunekoa enpresa guztien % 97,3ra eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 98,3ra iritsi da 2024an.

Izapidetzea zuzeneko izan daiteke, edo hirugarrenen bidezkoa (aholkularitza-enpresak...), edo bi prozeduron konbinaketa. Hala, enpresen % 61,8k egiten dituzte izapideak zuzenean, eta % 77,5 da hirugarrenen bitartez izapideak egiten dituzten enpresen portzentajea (horietako zenbaitek zuzenean ere egiten dituzte). Bestalde, 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, handiagoak izanik bitarteko gehiago dauzkaten, neurri handiagoan egiten dituzte izapideak zuzenean. Hala, hauexek dira portzentajeak, hurrenez hurren: % 88,6 eta % 64,3.

Enpresek Administrazioarekin egiten duten izapide motari dagokionez, establezimendu guztietan nabarmentzen dira hauek: BEZa aitortzea (gutzizkoaren % 81,7), informazioa lortzea (% 72,7), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 69,8) eta enplegatuen gizarte-kotizazioak aitortzea (% 66,9). 10 enpleguko edo gehiagoko establezimenduei begiratuta, nabarmentzekoak dira hauek: informazioa eskuratzea (tamaina honetako establezimenduen % 87,3), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 85,6) eta betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 85,1).

- Eskaintza.

Eusko Jaurilaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak 2021ean argitaratutako azken "Zerbitzu Publiko Elektronikoaren Estatistika" txostenak adierazten duenez, 2016tik 2021era bitartean EAEko administrazio eta sektore publiko guztiek Internet bidez eskainitako zerbitzu, prozedura eta izapide guztiak % 20,8 igo dira, 38.212 izatera iritsiz. Sofistikazio-mailari dagokionez, eskaintzaren % 81,2 Internet bidez has eta buka daiteke; horrek esan nahi du 14,4 portzentaje-puntuko igoera izan dela 2016arekin alderatuta. 2016an gertatzen zen bezala, webguneetan eskaintza numeriko erlatiborik txikiena zuten erakundeek zuten sofistikazio-mailarik handiena. Beren webguneetan eskaintzarik handiena zuten erakundeen artetik, Eusko Jaurilaritza zen sofistikazio elektronikorik handiena zeukana.

- Telelanari dagokionez, 2024an, EAEko Administrazio Publikoko langileen % 5,3k (2023an baino -1,3 portzentaje-puntu gutxiago) lantokitik kanpo egin zuten lan, gutxienez lanaldiaren heren bat, erregularitasunez, IKT sistemekin konektatzeko sare telematikoa erabiliz. Ondorioz, telelangiletzat jo daitezke. Sexuaren araberrako banaketaren

azterketak agerian uzten du telelana egiten duten emakumeen ehunekoa (% 60,4) gizonena (% 39,6) baino handiagoa dela.

Bukatzeko, *Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta gizarte digitalak*. DESI 2023 txostenaren 2023ko edizioak esaten duenez, EAEk indargune argiak dauzka **gaitasun digitaletan**, baina Europan buru izan gabe. Are, IKTetan adituak diren emakumeen adierazlean bakarrik dago lurralde liderren artean kokatuta. Etorkizunera begira, arreta ematen duen arlo bat dugu IKTetan graduatutakoen kopurua, EAEk rankingean behera egin baitu eta herrialde liderretatik nahiko urrun baitago. **Azpiegitura digitaletan**, EAE Europako liderren artean dago, 5G estalduran izan ezik, hor motel ari baikara aurrera egiten. **Enpresen eraldaketa digitalaren** arloan, egoera askotarikoa da, indargune eta ahulgune argiak baitauzkagu. Enpresak digitalizazioaren oinarrietan ondo kokatuta badaude ere (adibidez, intentsitate digitalaren oinarrizko maila edukitzea, informazioa elektronikoki trukitzea eta sare sozialak maneiatzea), kokapena zertxobait baxuagoa da elementu aurreratuagoetan, hala nola makrodatuen, hodeiaren, fakturazio elektronikoaren eta, bereziki, adimen artifizialaren erabileran. Halaber, lineako merkataritzarekin lotutako adierazleetan, EAEk Europaren batezbestekoaren atzetik egoten jarraitzen du. Amaitzeko, **zerbitzu publikoen digitalizazioan**, ez dauzkagu Europako DESI txostenean jasotzen diren zenbait adierazle, zaila delako *e-Government Benchmark*-ekin bateragarriak diren adierazleak edukitzea.

III. INGURUMENA, ENERGIA ETA GARRAIOA EAE-N

Ingurumena eta energia

Klima-aldaketa XXI. mendeko ingurumen-erronka handienetako bat da. Klima-aldaketaren ondorioek barne hartzen dute, besteak beste, ibai- eta kosta-uholdeen arriskua handitzea pertsonengan, ekonomian eta azpiegituretan, osasunaren gaineko eragina tenperatura altuen ondorioz, ekosistemetako asaldurak, lehortea...

Etorkizunerako ekonomia jasangarriagoa lortu behar da eta, horretarako, **deskarbonizazioak (atmosfera isurtzen dugun karbonoa pixkanaka murrizteko prozesua)** ezinbesteko papera du.

Klima-neutraltasunak esan nahi du berotegi-efektuko gas-isuri (BEG) garbiak zero izango direla. Modu horretan, isuriak xurgapenekin konpentsatuko dira nagusiki **isuriak murriztearen, teknologia berdeetan egindako inbertsioen eta ingurumena babestearen bitartez.**

Deskarbonizazio-helburuak lortzeko sektore guztietan murriztu behar dira isuriak eta EBk helburu gisa ezartzen du 2030erako gutxienez % 55 gutxitu beharko direla 1990ekin alderatuta.

EAEen Energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legeak helburu hauek finkatzen ditu:

- Isuriak: % 45 murriztea 2030ean, 2005eko datuekin alderatuta.
- Energiaren azken kontsumoa: gutxienez % 12 aurrezte 2030erako, eta % 37, berriz, 2050erako, 2021eko datuak oinarri hartuta.
- Energia berriztagarriek energiaren azken kontsumoan duten partaidetza: gutxienez % 32koa izan beharko da 2030ean.

Klimaren eta energiaren ekobarometroaren arabera, euskal biztanleek klima-aldaketaren larritasunari 7,5 puntu eman dizkiote 1etik 10erako garrantziaren eskalan. Klima-aldaketaren inguruan nagusi diren sentimenduak dira “ezintasuna” (% 49k sentimendu nagusien artean sartu zuten), “haserrea” (% 39) eta “beldurra” (% 31).

Bere aldetik, Euskadin gertagarrientzat jotzen dituzten ondorioak bero-boladak (% 86k diote oso edo nahiko gertagarriak direla), itsas maila igoetzea (% 82) eta uholdeen maiztasuna handitzea (% 78) dira.

Lurraldean sustatu beharko liratekeen energia-motei dagokienez, herritarrek erantzun zuten gehienbat eguzki-energia (8,1 0tik 10erako eskalan), itsasokoa (7,9), eolikoa (7,7), eta geotermia (7,5) eta ondoren biomasa (6,5), hidrogenoa (6,4) eta gas naturala (5,5) izan beharko liratekeela. Petrolioaren deribatuak eta energia nuklearra dira gutxien sustatu beharko liratekeenak (3,9 eta 2,6 hurrenez hurren).

Beste datu azpimarragarri bat da ia % 69k uste dutela lasaitasunez analizatu behar direla energia berriztagarrien instalazioen inpaktuak, nahiz eta klima-aldaketaren aurkako borroka moteldu.

IHOBEk argitaratutako **“Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Efektuko Gasen isuriaren Inbentarioa, 2022”** agiriaren arabera, Euskadiko isuriak guztira 2005etik % 27,4 jaitsi dira, 1990etik % 10,8 eta 2019tik % 0,6; hala ere, 2021etik % 4,7 igo dira. Datuak ikusirik, BEGen murrizketen joera 1/2024 Legean ezarritako helburuak lortzeko bidearen azpitik dago (2030ean % 45 murriztea 2005ekin alderatuta).

Isuri gehien egiten dituzten sektoreak garraioa, energia, eta industria dira. 2022an hiruren artean gutxi gorabehera isuri guztien % 86,9 batzen dute (garraioak % 35,6, energia-eraldaketak % 33,7 eta industriak % 17,6).

Hala eta guztiz ere, ikusirik energia-sektorearen isuriak gainerako sektoreei energia hornitzeagatik sortzen direla, sektore bakoitzean elektrizitatearen eta beroaren kontsumoaren isuriak gehitzen baditugu, industria-sektorearen eta garraioaren isuriak % 30,3 eta % 35,2 dira hurrenez hurren. Energia-eraldaketaren sektoreak % 12,8 egingo luke eta bizitegi-sektorearen eta zerbitzuen baturak % 14,7. Nekazaritza eta hondakinen sektoreek isuri gutxiago sortzen dituzte ikuspegi bietatik.

Egiaztatu dugu isuri zuzenen eta isuri guztien ikuspegietatik (zuzenak+elektrizitate-kontsumoa) industria-sektorean isuriak nabarmenki gutxitu direla. Bizitegi-sektoreak eta zerbitzuen sektoreak ere isuri zuzenen antzeko patroia jarraitzen dute eta 1990etik isuriak gehitu dituzte, baina garraio-sektoreak baino askoz ere gutxiago.

BPGd unitateko isuriak (sortutako aberastasun-unitate bakoitzeko isuriaren intentsitatearen inguruko ideia bat ematen dute) EAEn gutxiago dira EB27ko batezbestekoa baino 2022an. Bestalde, biztanle bakoitzeko isuriak EB27ko batezbestekoa baino pixka bat handiagoak dira 2022an (8,4 T CO₂ baliokide biztanle bakoitzeko Euskadin eta 7,8 Ebn).

EEEren *Euskadi Energia 2023* txostenaren arabera, **barne-kontsumo gordina edo eskaria** % 10,4 gutxitu zen 2022 eta 2023 artean eta 5.860 Ktep izan zen. **Energiaren azken kontsumoa**, bere aldetik, % 7,2 gutxitu zen (4.527 Ktep) eta sektore guztietan jaitsi zen.

Lehen mailako energia-ekoizpena (569 ktep) nagusiki energia berriztagarrietan oinarritu zen (546 Ktep).

Energiaren autohornikuntza-tasak energia-ekoizpena (569 ktep) ordezkatzan du barne-kontsumo gordinarekiko edo eskariarekiko (5.860 ktep) eta % 9,7koa izan zen. Ondorioz, EAEk kanpoaldearekiko duen **energia- mendekotasuna** % 90,3n kokatu zen.

Iturri berriztagarrietan oinarritutako ekoizpenak (546 ktep) azken energia-kontsumoaren % 12,1 asetzea ahalbidetu zuen (4.527 ktep); hau da, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetza-ratioa Euskadiko 2030rako Energia Estrategian (3E2030) ezarritako % 21eko helburutik 8,9 puntura dago.

Azken kontsumoa energia-motaren arabera analizatuta, petrolioak eta deribatuak dira oraindik ere kontsumoaren gehiengoa (% 48,4). Ondoren, energia elektrikoa (% 25) eta gas naturala (% 18,5) daude. Urruti daude energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatz eta deribatuak) eta energia eratorriak.

Kontuan hartu behar da *hidrokarburoak (petrolio eta gas naturala)* erabiltzea sorrarazten duten isuriengatik (bereziki petrolioaren eratorrien errekuntzakoak) ez direla energi-iturri garbitzat hartzen, jatorri naturala duten arren.

Bere aldetik, *erregai fosilen (eta deribatuen)* errekuntzak ingurumen-arazoak sortzen ditu. Arazo nagusia BEG isuriak dira, baina baita ere sufreak eta nitrogeno-oxidoen isuriak, oso kutsatzaileak baitira.

Energia-intentsitatea BPGd unitate bakoitzeko energia-kontsumoa da eta 2022an baino 8 puntu hobea izan zen eta hamarkada guztiko joera efizientzia handiagoarena da. Hala, industriako energia-intentsitatea 34 puntu hobetu da orain dela hamarkada batekin konparatuta, garraio-sektorea 4 puntu hobetu da eta zerbitzu-sektorea 36 puntu.

Energia-faktura 2022an nabarmenki hazi eta gero, asko gutxitu zen 2023an, 7.049 M€. Kostu horretatik, % 55,5 garraio-sektoreari dagozkio, % 23,1 industriari, % 11,1 bizitegi-sektoreari, % 9,7 zerbitzuei eta % 0,6 lehen sektoreari. Bizitegi-sektorean biztanleko fakturak % 29,2 egin zuen behera —357 eurora iritsi zen—, eta etxeko fakturak % 29,4 —849 eurora iritsi zen—.

EEEren datuen arabera, **energia berriztagarrien aprobetxamendua** 2023an 510 ktep izan da (2022an baino % 11,4 gutxiago). Kontsumoari egindako ekarpen handiena biomasarena da; guztiaren % 57, ondoren bioerregaiak daude % 28rekin, eguzkia, aero eta geo % 6rekin eta hidraulikoa % 4rekin.

2022rekin alderatuta bioerregaiak % 33,9 gehitu dira eta, bestalde, eguzki fotovoltaikoa, eguzki termikoa, aerotermia eta geotermia batera % 14,5. Kontrara, gutxitu egin dira biomasaren aprobetxamendua (–% 24,9), hidroelektrikoa (–% 17,1) eta eolikoa (–% 14,4).

Instalatutako potentziari dagokionez, 2023an instalatutako potentzia guztiaren % 23 energia hidraulikoari dagokio, % 23 biomasari (% 15 elektrikoa eta % 8 termikoa), % 21 eguzki-energiari (% 17 fotovoltaikoa eta % 4 termikoa), % 20 energia eolikoari eta % 13 itsas energiari.

2022rekin alderatuta, fotovoltaiakoaren sektoreak 46 MW gehitu zuen instalatutako potentzia, geotermiak 2 MW eta, kontrara, biomasak energia sortzeko 12 MW gutxitu zuen.

Alde batetik, EAEko **airearen kalitatearen** ebaluazioa egunero egiten da, Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen AIREAREN KALITATEAREN INDIZEAREN bidez, eta, bestetik, sare osoan erregistratutako datuen azterketa egiten da urtero, URTEKO TXOSTENA egiteko. Informazio horren arabera, jasangarritasun-adierazlea 2023an, hau da, kalifikazio “oso ona” eta “ona” duten egunen ehunekoa guztizkoaren % 91,2 izan zen. Ratio hori 3,5 puntu hobetu da 2022rekin alderatuta, eta horrek esan nahi du airearen kalitatea hobetu egin dela.

Edateko urari dagokionez, EINen datuen arabera, gure autonomia-erkidegoan 2022an 152,6 Hm³ ur eman zitzaizkien hiri-hornidurako sare publikoei (+% 1,5 2020rekin alderatuta). Saneamendu-sarea matxuratu, apurtu edo isuriak direla eta galdutako ura sare horietara hornitutako uraren % 15,8 izan zen, aurreko urteetako ratioak baino askoz ere gehiago eta estatuko % 15,4ko ratioaren antzera kokatu zen.

Biztanle bakoitzeko kontsumoa Espainiako batezbestekoa baino txikiagoa izan zen berrir, 85 eta 128 litro biztanleko eta egun bakoitzeko, eta 2020 eta 2022 artean % 12,4ko beherakada erregistratu zen, Espainian % 3,8ko beherakada izan zen bitartean.

Uraren aleko kostua (ur-horniduragatik ordaindutako zenbatekoak eta estolda, arazketa eta saneamendu eta isurketa kanonengatik ordaindutako zenbatekoak zati erabiltzaileei banaturiko eta erregistraturiko ur bolumenarekin eginda) 2,51 euro/m³ izan zen 2022an, hots, beste igoera bat, kasu honetan % 17,3koa 2020rekin alderatuta. Estatuko batez besteko unitate kostua txikiagoa izan zen (1,92 euro/m³).

Hondakinak sortu eta kudeatzeari dagokionez, 2020 eta 2022 artean kudeatutako **hondakin ez-arriskutsuek** % 4,2 egin zuten gora. Hondakin horien tratamenduari dagokionez, % 68,1 birziklatu edo konpost egin zen (2018an % 53), % 3,6 energetikoki balorizatu zen eta gainerako % 28,3a deuseztatu egin zen (2018an % 43,8).

Bere aldetik, **hondakin arriskutsuen** kantitatea % 4,6 gehitu zen 2021 eta 2022 artean. Hondakin horien tratamenduari dagokionez, % 60,4 birziklatu edo konpost egin zen % 0,1 erraustu egin zen eta gainerako % 39,5a zabortegira eraman zuten.

Hiri-hondakinei dagokienez, EINen datuen arabera, 2022an hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek EAEn (eraikuntza- eta eraipen-hondakinak zenbatu gabe) 916 Tm.hiri-hondakin bildu zituzten, 2021ean baino % 2,2 gutxiago. Gaikako bilketako hondakinak izan ziren (RCDak gehitu gabe) hondakin guztien % 39,5, 2021eko ratio berbera eta 2020ko eta 2019ko datuen azpitik. Espainiako ehunekoa % 22,4 izan zen, aurreko urtekoaren antzekoa.

EAEn gaika bildutako hiri-hondakinen artean bolumenarengatik papera eta kartoia nabarmendu ziren (131.739 Tm, guztien % 14,4 RCD zenbatu gabe), eta animalia- eta landare-hondakinak (70.860, % 7,7) eta beira (64.246 eta % 7) ere bai. Espainian horiek gailentzen dira.

Biztanle bakoitzeko terminoetan, hiri-hondakinen 414,8 kg bildu ziren EAEn 2022. urtean (guztira, nahastuta zein bereizita); estatukoa baino kopuru txikiagoa da hori, 482 kg biztanleko. Euskal Autonomia Erkidegoa biztanleko bildutako hondakin-kopuru txikiak erregistratzen dituzten autonomia-erkidegoen artean dago, Madrilen eta Errioxaren atzetik. Bereizitako hondakin motaren arabera, honako hauek dira nagusiak: papera eta kartoia (59,6 kg biztanleko; ostera, 31,3 kg biztanleko Espainian), beira (29,1 kg biztanleko; ostera, 19,6 kg biztanleko Espainian) eta ontzi mistoak eta bilgarriak (23,7 kg biztanleko; ostera, 19,4 kg biztanleko Espainian).

Tratamendua aztertzeke helburuarekin, eta EINek autonomia-erkidegoka horri buruzko informaziorik ematen ez duenez, Eusko Jaurlaritzaren "EAEko Hiri Hondakinen Estatistika" erabiltzen dugu. Horren arabera, 2022an EAEn 503 kg/hiri-hondakin kudeatu ziren biztanle bakoitzeko. Hala, 2021 eta 2022 artean jaitsiera erregistratu zen, 516tik 503 kg/biztanleko kopurura pasatu baitzen. Biztanle bakoitzeko 503 kg horietatik, 191 birziklatu egin ziren, 38 konpostari dagozkio (ongarri organikoa), 137 balorizazio energetikoa eta errausketa izan ziren; eta gainerakoak, hau da, 89 zabortegira joan ziren. 2021ekin alderatuta, birziklatutako hondakinak eta ongarri organiko bihurtu eta energetikoki balioztatu eta erraustu zirenak hazi egin ziren (+1 kg/biztanleko bakoitza). Zabortegietan utzitakoak gutxitu egin ziren, 16 kg/biztanleko.

Ingurumenaren babesari dagokionez, EINen Industriak ingurumena babesteko egindako gastuari buruzko inkestaren azken datuek erakusten dutenez, EAEn, 2022an gastu hori (gastu arrunta eta inbertsioa) % 48,3 handitu zen 2021aren aldean. Esfortzuarekin lotuta (hau da, BPGd-ren ehuneko gisa), ratioa % 0,35ekoa da, 2021ean erregistratutakoa (% 0,26) baino handiagoa. Hala, EAE zazpigarren postuan dago ahalegin handiena egiten duten erkidegoen sailkapenean.

Garraioak

Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen **EAEko garraio**-eskaeraren irudia txostenaren datuen arabera, lanegunetan EAEn batez beste 2021ean eta motordun garraioetan egindako joan-etorriak 3.346.948 izan ziren, hau da, 2016an baino % 6,2 gutxiago. EAEko bidaietako garraio-mota nagusia oraindik ere ibilgailu arina da (autoa, motorra eta taxia). Horiek sartze-kuotaren % 73,8 dira. Autobusa (% 14,3) eta trena (% 11,1) bigarren eta hirugarren daude, hurrenez hurren. Azkenik, kableen bidezko arraioak eta beste batzuek % 0,5 dute eta hegazkinak % 0,3.

Bere aldetik, EAEn batez besteko lanegun batean 2021ean errepidez, hegazkinez, trenez eta itsasoz garraiatutako salgaien bolumena urteko 188.245.048 tonakoa izan zen. 2015ekin konparatuta % 19,4 gehiago, 157.677.864 tona garraiatu baitziren. Salgaien garraioaren modu-banaketa dagokionez, 2021ean ere errepidea da gehien erabiltzen dena eta sartze-kuotarik handiena du; EAEn batez besteko egun batean mugitzen diren salgaien % 79,7 errepide bidez mugitzen dira. Itsasoa da bigarrena, guztiaren % 18,52. Trenbidearen kopurua txikia da, % 1,74, eta aire bidezko salgaien garraioa bakarrik % 0,04 da. Gainerakoak kable bidezko garraioa eta beste batzuk izango lirateke.

Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE OPERATZAILEA) EAEn egindako ingeniari-tza zibileko **adjudikazioei** buruz Garraio Ministerioak argitaratutako datuek erakusten dute erakunde guztiek gora egin dutela, AENAK izan ezik, 2023tik 2024ra. Hala, ADIFenak 49,5 milioitik 100 milioi eurora igaro dira, PORTUETAKOAK 12,1 milioitik 87,3 milioi eurora eta RENFE OPERATZAILEARENAK 1,4tik 3,1era. Bestalde, AENARENak 17 milioitik 8,4 milioi eurora igaro dira.

Aireko garraioari dagokionez, Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2024an 7.514 mila bidaiari igaro ziren EAEko hiru aireportuetatik (% 90,2 Bilboko aireportutik), hau da, 2023an baino % 5,4 gehiago. Bestalde, salgaien trafikoa % 1,4 murriztu zen, eta 71.420 tonakoa izan zen. (% 98,7 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Portuko trafikoari dagokionez (salgaiak, hornidura eta arrantza), Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2023tik 2024ra % 5 egin zuen gora Bilboko Portuan, guztira 34,6 milioi tona. Bestalde, Pasaiaiko portuan, zeinak askoz ere kota apalagoak baititu, trafikoa % 1,8 jaitsi zen, 3,4 milioi tonarekin.

Trenbide-azpiegiturari dagokionez, 2024an Espainia-Euskadi Transferentzien Batzorde Mistoak onetsi zuen Euskadira transferitzea Renfeko aldirietako trenen gaineko eskumenak. Transferentzia [2024ko apirilaren 19ko EHAAn jasota dago](#). Modu horretan, EAeri transferitu zitzaizkion estatuko administrazioak aldirietako tren-bidaiariak garraiatzeko zerbitzuetako eginkizunak, Batzorde Mistoaren erabakian eta bertan adierazitako baldintzetan ezartzen den moduan.

Beste alde batetik, akordioak Bilboko portura sartzeko lineak transferitzea aipatzen du. Etorkizunean Hegoaldeko trenbide-saihesbidea ordezkatuko ditu. Transferentzia eraginkorra izango da Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea bukatu eta martxan jartzen denean.

2024ko azaroan Espainiako gobernuak "Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidearen informazio-azterlana. 1. fasea "eta" Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbideari buruzko informazio-azterlana. 1. fasea. Ortuellako saihesbidea "(aurrekoaren osagarria) onetsi zituen. Onetsitako informazio-azterlanaren 1. Fasearen xedea Serantesko tunelaren konexioa da (jada eginda dago) Bilboko Olabeaga auzoko trenbide-sarearekin, hain zuzen ere. **Horri esker, Bilboko portuan sarbide berri bat dago trafiko mistorako eta horrek ekidin egingo du salgaiak Bilbo Handiko hiri-nukleoetatik igarotzea, Nerbioi ibaiaren ezker aldean.**

Euskal Yari dagokionez, 2024an zehar jarduketa hauek egin dira:

- Ekaina: Abiadura handiko trena Gasteizera iristeko ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena jaso zen. Trena hirian integratzeko informazio-azterlanaren behin betiko onespina izanik, azpiegitura planifikatzeko fasea bukatu zen eta proiektua idazten eta obrak egiten hasi ziren.
- Abendua: Adif Alta Velocidaden (AV) eta Euskadiren artean hitzarmena sinatu zen Arkauteko tren-lotunea eraikitzeko.

Garraio Ministerioaren 2022ko *Estatistikako urtekariaren datuen* arabera, urte horretan (hau da, eskumenak transferitu baino lehen) EAeko **trenbide-sarea** 549,44 kilometro osatzen zuten. Horietatik 517,43 elektrifikatuta zeuden (% 94,2). Bideen 517,43 km horietatik % 65,7 ADIFenak dira (eta ADIF ALTA VELOCIDAD). 2022an hark kudeatzen zituen distantzia ertaineko eta penintsularanzko ibilbide luzeko zerbitzuei lotutako azpiegitura eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak. Gainerako % 34,3a Euskal Trenbide Sarea-ETSk kudeatzen du (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne). Elektrifikazioari dagokionez, ETSk kudeatzen duen sarearen zatirik handiena elektrifikatuta zegoen 2022an; elektrifikatu gabea Urolako (Azpeitia – Lasao) trenari eta Larreinetako funikularrari eta Ariz-Basurtu eta Irauregi-Barakaldo tarteei dagokie.

*Espainiako Trenbidearen Behatokiaren (OFE)*¹¹ datuen arabera, 2022an eta 2023an tonen bolumena guztira % 5,3 gutxitu zen, 12,9 milioi tonatik 12,2 milioi tonara. Datuak Portu Agintaritzaren arabera berezita, hauek dira lehenengo bostak: Bartzelona (3,5 milioi tona); Valentzia (3,2 milioi); Bilbo (1,46 milioi); Santander (milioi 0,96) eta Gijón (0,85 milioi).

Salgaien portuko garraioko tren-kuotari dagokionez, Bilboko Portuko Agintaritzak % 4,8 izan zuen eta Pasaiaikoak % 7,5, biak ere Espainiako % 3,2ko kuotaren gainetik. Kuota handienak Maringo eta Pontevedrako Itsasadarren Portuko Agintaritzan erregistratu ziren (% 15,5), ondoren Santanderren (% 13,9), Bartzelonan (% 8), Pasaian (% 7,5) eta Valentzian (% 6,8). Horien barnean, Pasaiaiko kuotaren gehikuntza azpimarratu behar da (ehuneko + 1,2 puntu 2022rekin alderatuta).

¹¹ *Espainiako Trenbidearen Behatokia (OFE) Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren eginkizunen parte da, beharrezko sektore-azterlanak, koiuntura-txostenak eta garraio-zerbitzuen eta dagozkien kudeaketa-organoen funtzionamenduaren analisia programatu, zuzendu eta koordinatzeari dagokionez. Ministerio-eginkizun horiek Estatistika Plan Nazionalari eta dagozkion urteko programei egiten dieten ekarpenaren baitan daude.*

Banaketa modalaren emaitzek adierazten dutenez, Estatua urrun dago EBren antzeko oreka modaleko balioak lortzetik, eta argi dago errepideko salgaien garraioa dela nagusi. Zehazki, Europar Batasunaren esparruan (datuek bide nabigagarrietako garraioaren kuota ere jasotzen dute), salgaien trenbideko garraioa % 17,1ekoa izan zen 2022an. Espainiaren kasuan, balioa (ibai-garraioa barne) % 3,4koa da.

Bide-azpiegiturari dagokionez, azpimarratu behar da, 2022ko datuekin, EAEko errepide-sarearen % 15,2 baino gehiago edukiera handiko bideak direla, eta Estatuan, berriz, % 10,6; bidesari-autobideak edukiera handiko errepideen % 39,6 dira EAEn, eta Estatuan, berriz, % 10,2. Gainera, ikus daitekeenez, Espainian bidesaria duten autobideek ahalmen handiko bide guztiekiko duten proportzioak beheranzko joera du, baina EAEn egonkor jarraitzen du.

Abiapuntua edo helmuga EAEn izanik (igarobideko nazioarteko trafikoa alde batera utzita) **errepidez garraiatutako salgaien bolumena** 103,4 milioi tonakoa izan zen 2023an, hau da, % 1,6ko jaitsiera egon da 2022. urtearekin alderatuta. % 44,9 eskualde barruko garraioa da, % 48,5 eskualde artekoa eta % 6,5 nazioartekoa. Eskualdeen arteko eremuan, trukeen bolumen handiena Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabriarekin egin da berriz. Euskal ekonomiaren merkataritza-bazkide nagusiak dira.

IV. EMPLEGU ETA LAN-HARREMANAK

Lehendabizi, EUSTATen “*Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren*” (BJA) datuen arabera, EAEko **biztanleria aktiboa** 2024. urtearen amaieran (laugarren hiruhilekoko datuak) 1.072.500 pertsonakoa zen, eta horietatik, % 51,5 gizonak, ziren (552.100) eta % 48,5 emakumeak (520.500). 2024an, behin-behineko datuekin, biztanleria aktiboa 14.100 pertsonatan igo da, edo, bestela esanda, % 1,3. Sexuaren arabera, hazkundera desberdina da: emakume aktiboak % 2,6 hazi dira (+13.100), eta gizon aktiboak, berriz, % 0,2, hau da, 1.100¹².

Bestalde, **2023ko laugarren hiruhilekoaren eta 2024ko laugarren hiruhilekoaren artean**, enplegua % 1,4 igo da Euskadin (+14.100 enplegu), eta aurreko urtean % 1,7 (berrikusitako datuak); emakume landunen kopurua 8.100 hazi da, eta gizonena 5.900¹³. Ondorioz, urtea 996.900 landunekin amaitzen da, 516.700 gizonekin eta 480.200 emakumerekin (% 51,8 eta % 48,2, hurrenez hurren). Estatuaren testuinguruan, okupazioa % 2,2 hazi da batez beste (IV. hiruhilekoa, EINen BAIren datuak), eta erkidego gehienek 2024an okupazioaren hazkundeari eutsi diote, nahiz eta, iturri horren arabera, EAEk % 4,2ko beherakada izan duen enpleguan.

Sektoreen arabera, EAEko azken urteko okupazioaren hazkundera zerbitzuetan izan da batez ere, 16.200 enplegu gehiago (+% 2,3); industrian, aldiz, % 2,3 jaitsi da (+% 4,9 2023an) eta 4.700 enplegu galdu ditu, gizonen enpleguan (-4.500) eta emakumeen enpleguan (-200) izandako galeren agregatu gisa. Bestalde, lehen sektorean 2.300 langile gehiago daude, % 29,5 igota. Eraikuntzaren sektoreak, azkenik, 300 langile gehiago ditu, +% 0,5 tasarekin (-% 6,1 2023an).

2024an **kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk** honako hauek dira: lehenik eta behin, 2023an bezala, lanaldi partzialeko landunen ehunekoak gora egin du, kasu honetan 2 puntutik % 18,8ra, EINen BAIren datuekin. Era berean, EUSTATen BJA hartzen badugu iturritzat, lanaldi partzialeko enpleguaren tasak gora egin du Euskadin, % 16,9tik % 17,1era (2023ko eta 2024ko urteko batez besteko datuak).

Bigarrenik, BAIren arabera, 2024an zertxobait jaitsi da behin-behinekotasunaren garrantzia, 0,3 puntu, eta soldatapekoen % 20,7tik % 20,4ra igaro da, sektore publikoan izandako bilakaerak eraginda (-4,9); izan ere, sektore pribatuan gora egiten jarraitu du (+0,2). Ondorioz, 2024ko laugarren hiruhilekoan, aldi baterako kontratuen tasa % 41,1ekoa izan zen EAEn sektore publikoan, eta % 14,6koa sektore pribatuan. Era berean, BJAko datuen arabera, behin-behinekotasuna 1,9 puntu jaitsi da, 2024ko laugarren hiruhilekoan % 19,1era iritsita.

Bestalde, Euskadin **Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten pertsonen** (altan dauden afiliatuak) batez besteko kopurua 1.024.511 da (hilabeteko batezbestekoa) 2024ko abenduan. Horietatik % 48,4 emakumeak dira eta % 51,6 gizonak. Zifra hori % 1,1 aurreko urteko hil beraren aldean, eta 11.564 pertsona irabazi ditu.

Jarduera-sektore handiei dagokienez, lehen sektorea % 1,6 jaitsi da eta guztizkoaren gainean duen pisuari eutsi dio (% 1,1). Bestalde, industria % 0,3 hazi da, batezbestekoaren azpitik (+ % 1,1), eta afiliazioaren gaineko pisuan bi hamarren galdu ditu, % 17,9ra. Eraikuntza % 0,7 hazi da, eta afiliazioaren % 5,7 dauka (hamarren bat gutxiago). Azkenik, zerbitzuen sektoreak batezbestekoa baino portaera hobea izan du, % 1,4 igo baita. Bestalde, alta egoeran dagoen afiliazioa % 75,3raino handitu da (2 hamarren).

Produktzio-adarren arabera, ia denek handitu dute afiliazio-kopurua 2023ko abenduaren aldean, honako hauek izan ezik: enplegatzaileak (-% 3,6), etxeko langileak (-% 3,8), “beste zerbitzu batzuk” epigrafea (-% 0,6) eta lehen sektore hori (-% 1,6). Igoera absolutuak nabarmentzen dira osasunean (+2.668 afiliazio, hots, % 2,3ko igoera), ostalaritzan (+1.887 afiliazio, +% 2,7), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (+1.596 afiliazio, % 2,5ko igoera), eta hezkuntzan (+1.230 afiliazio, +% 1,5eko igoera, 2022ko abenduaren aldean). Hala, lau produktzio-adar horiek afiliazioan urte artean egondako

¹² Sexuaren araberako aldaguntzen batura maiz ez dator bat saldo osoarekin, datuak milaka adierazita daudelako, eta BJAk datuak biribiltzen dituelako.

¹³ Ikus 28. oin-oharra.

hazkundearen % 63,8 hartzen dute, eta, gainera, altan egondakoen afiliazioa 2024ko abenduan EAEko afiliazioaren % 33,2 izan da.

...

EAEko lan-merkatuak 2024ean zehar izandako bilakaeraren ondorioz, BJAREN **langabezia-tasa orokorra** % 7ra iritsi da urtearen amaieran (IV. hiruhilekoa) (aurreko urtean baino 1 puntu gutxiago). Era berean, EINren BAIKO datuen arabera, EAEko langabezia-tasa % 8,2koa da. Europar Batasunean, langabeziak hartzen dituen balio-sorta oso altua da, hala nola Espainiakoa eta Greziakoa (% 10,7 eta % 9,6, hurrenez hurren), baita % 3tik beherako ratioak ere, Txekiar Errepublikan, Polonian eta Maltan bezala. Erkidegoko batezbestekoa % 5,8koa zen, hots, eurogunekoa baino 0,4 altuagoa (% 6,2); Estatu Batuek 2024an % 4,1eko langabezia-tasa izan zuten, eta Japoniak % 2,4koa, erreferentziatzko beste herrialde batzuk aipatzearren.

2020an, langabeziak sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin. 2021ean % 11,5 jaitsi zen, eta 2022an eta 2023an (berrikusitako datuak) joera horri eutsi zitzaion, % 12,5 eta % 17,1 hurrenez hurren. 2024an langabeen kopurua ez da aldatu, eta **urtea 75.600 langaberekin amaitu zela** uste da; horietatik % 53,2 emakumeak dira eta % 46,8 gizonak). Adinaren arabera, 25 urtetik beherakoen taldean murriztu egin da langabeen kopurua (-% 4,5, hau da, -400 pertsona), eta batez ere tarteko adin-taldean (-% 8,8, 3.000 pertsona gutxiago). Aldiz, langabezia % 10,4 hazi da 45 urtetik gorakoentzat (+3.400 pertsona).

Bestalde, 2024ko abenduan, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak 107.308 langabe erregistratu** zituen, hau da, 2023an baino 399 gutxiago (-% 0,4, eta Estatuan, berriz, -% 5,4, non langabezia 2,5 milioi pertsonatik gorakoa baita). Langabezia murriztu egin da bi sexuetan, eta gehiago gizonen artean (-% 0,7) emakumeen artean baino (-% 0,1). Bilakaera horren ondorioz, langabeen % 57 emakumeak dira 2024ko abenduan (2023an baino hamarren bat gehiago). Adinen arabera, erregistraturiko langabezia igo egin da 25 urtetik beherako pertsonen artean, eta jaitsi gainerako adin-taldeetan. Langabeziak gora egin du 25 urtetik beherakoen artean (+% 4,3 guztira, +% 7 gizonentzat eta +% 1,1 emakumeentzat), eta batez bestekoaren gainetik jaitsi da tarteko adin-taldean (-% 1, -% 1,9 gizonentzat eta -% 0,4 emakumeentzat). 45 urtetik gorakoen taldean ere jaitsi da langabezia, baina gainerako taldeetan baino gutxiago, % 0,6: gizonentzat % 1,4 jaitsi da, eta emakumeentzat, berriz, ez da aldatu.

Ikasketa-mailaren arabera, erregistratutako langabeziak behera egin du bigarren mailako ikasketetan, 2023ko abenduarekin alderatuta (-% 2,1), LHko ikasketak dituztenen artean izandako gorakadaren (-% 2,2) eta hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenen artean izandako jaitsieraren (-% 3,6) ondorioz. Ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak dituztenen langabezia-tasak gora egin du (+% 1,1, guztira), baina gora egin du, bereziki, lehen mailako ikasketa osoak dituztenen artean (+% 2,1). Bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak dituztenen artean, igoera bereziki esanguratsua da goi-mailako ikasketa teknikoak dituztenentzat (+% 4,4). Aurten ere, LANBIDEn erregistratuta ageri diren 10 langabetatik 6 baino gehiagok (% 62,5) kualifikazio txikia dutela esan daiteke (lehen edo bigarren mailako hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenak). Proportzio hori are handiagoa da gizonen artean (% 65,1 eta emakumeen artean % 60,5).

Kontuan hartzen badugu **langabezia igarotako denbora**, 2024an igo egin da 6 hilabete baino gutxiago daramaten langabeen guztizko kopurua (+% 1,4), eta jaitsi, berriz, 6 hilabete eta urtebete artean langabezia daramatenena (-% 2,8), batez ere emakumeen kasuan (-% 5,2). Eta iraupen luzeko langabeziak, urtebete baino gehiago irauten duenak, behera egin du gizonen artean (-% 2,9) eta gora egin du emakumeen artean (+% 0,3), eta % 1 jaitsi da. Ondorioz, luzaroko langabeen ehunekoa guztizkoaren aldean 3 hamarren jaitsi da 2024ko abenduan, % 48raino (+1,5 puntu Estatu osoan, % 46,3ra iritsita). Ratio hori % 43,4koa da gizonen artean (-9 hamarren) eta % 51,6koa emakumeen artean (+2 hamarren).

Bestalde, LANBIDEn bulegoetan erregistraturiko langabeziaren datuek erakusten dutenez, 2024an igo egin zen EAEn bizi diren atzeritarren langabezia, langabezia osoa ez bezala (-% 0,4), % 3,9 igo baita. Hortaz, gora egin du atzeritar langabetuek langabezia duen pisuak, % 18,4tik % 19,2ra.

...

2022an, **lan-erreforma berria** sartu zen Espainian. Lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren helburu nagusia Espainian lan-merkatuaren egiturazko erreforma gauzatzea da, hartara bereizgarri dituen behin-behinekotasun tasa altuak murrizteko eta, beraz, behin-behinekotasun horren ondorioz enpleguan dagoen prekarietateari aurre egiteko. Funtsezko helburu horrekin batera, erreformaren beste helburu garrantzitsu batzuk ere lortu nahi dira, hala nola lanaldia murrizteko eta eteteko neurriak bultzatzea, ABEEE direlakoak, lan-kontratuak azkentzearen ordezkioa den aldetik, langileen prestakuntza indartzea eta negozioazio kolektiboa modernizatzea.

Kontratazioak nabarmen egin zuen behera Euskadin 2020an (-% 30,2), COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta 2021ean susperraldi handia egon zen (+% 22,5). 2022an, contratazioak % 5,3 egin zuen behera, eta aldaketa handiak egon ziren osaeran, 32/2021 ELDaren ondorioz, 2023ko zifrei ere eragin ziena. 2024an, aurreko urtean ez bezala, kontratuen guztizko kopuruak (+% 2,7) eta kontratatutako pertsonen kopuruak (+% 1,2) gora egin zuten.

Jarduera-atalen arabera, bilakaera desberdina da. Kontratazioan garrantzi handiena duten atalen artean, merkataritza (kontratuen % 11,4) % 1,1 hazi da, 2023aren ondoren (-% 12,6), eta osasun-jarduerak ere bilakaera positiboa izan dute (+% 4,4 2023ren aldean, kontratuen % 12,8 dira). Hala ere, administrazio-jarduerak (guztizkoaren % 9,7) contratazioaren % 7,5 galdu dute, eta gauza bera gertatzen da manufaktura-industriarekin (sinatutako kontratuen % 12,6), % 3,2 jaitsi baita 2023ren aldean. Aurreko urteetan bezala, sexuaren arabera aldea ageri dira. Izan ere, manufaktura-industriak gizonek sinatutako kontratuen % 19,1 hartzen du (2023an baino 5 hamarren gutxiago), eta emakumeen artean, berriz, pisu handiena duten jarduerak Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuen jarduerak eta Ostalaritza dira (bien artean, emakumeek sinatutako kontratuen % 36,8, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago).

2024an kontratatutako pertsonak 278.458 dira guztira (-% 1,2), EEZPk emandako datuen arabera. Adin-taldeen arabera, pertsona horietako gehienak, gizonak zein emakumeak, 35 eta 54 urte bitartekoak dira (% 38): 35 eta 44 urte bitartekoak (guztizkoaren % 19,8) eta 45 eta 54 urte bitartekoak (% 18,2). 25 urtetik beherako pertsonak % 26,1 dira (2023an % 25,1), hau da, biztanleria aktiboan duten pisua baino nabarmen gehiago, azken hori % 6,1ekoa baita (2024ko laugarren hiruhilekoaren datua). 25 eta 34 urte bitartekoak % 26,3 dira, eta 54 urtetik gorakoak gainerako % 9,7. 2023aren aldean, bi sexueta jokoera nahiko antzekoa izanik, 2024an talde guztietan galdu dira contratazioak, 25 urtetik beherakoen eta 54 urtetik gorakoen taldeetan salbu, % 3,8 eta % 4,5 igo baitira, hurrenez hurren. Beherakada handiena izan duen taldea 35 eta 44 urte artekoa da (-% 5); 45 eta 54 urte artekoa % 1,1 jaitsi da, eta 25 eta 34 urte artekoa % 0,5.

Kontratatutako pertsonen banaketari dagokionez, ikasketak-mailaren arabera, % 41,7k derrigorrezko edo beheragoko ikasketak ditu, proportzio handiagoa gizonen artean (kontratatutakoen % 44,7) eta txikiagoa emakumeen artean (% 38,5). Bigarrenik, kontratuen % 23 Batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen dagozkie. Ondoren, % 15,7 ikasketak profesionalak dituzten pertsonen dagokie eta % 19,1 unibertsitate-ikasketak dituztenei. 2023ari dagokionez, Batxilergoko ikasketak izan ezik (+% 7,7), gainerako ikasketak-mailak behera egin dute; batez ere unibertsitate-mailakoak egin dute behera (-% 2,8).

Lanaldi motari dagokionez, bilakaera positiboa da, lanaldi finko eteneko kontratuak izan ezik, % 11,6 murriztu baitira eta erregistratutako kontratuen % 4,3 baitira, 2023an baino 7 hamarren gutxiago. Lanaldi partzialeko kontratuak 270.881 dira EAEn (-% 4,4, 2023 urtearekin alderatuta; hau da, guztira baino gehiago hazi dira), hots, kontratu guztien % 36,1. Lanaldi osoko kontratuak, bestalde, 446.647 dira, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago (eta guztien % 59,6 dira). Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko contratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen ia erdia baita (% 46,2 2024an). Gizonekoek sinaturiko kontratuak, berriz, % 25,6 dira. Hala, 2024. urtean emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratuen % 65,3 (% 65,9 2023an).

Iraupenari dagokionez, sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira oraindik (gutzizkoaren % 76,9), 576.174, nahiz eta datu hori 2023an baino % 6 handiagoa den. Bestalde, 2024an kontratu mugagabeak % 7 murriztu dira, eta 173.518 sinatu dira, erregistratutako kontratuen % 23,1 izan arte; 2023an, berriz, % 25,5 (0 9,3 2021ean, lan-erreformaren aurretik).

Gainera, kontratatutako pertsona gehienak hainbat aldiz kontratatu dira urtean zehar. 2024an kontratatutako pertsonen kopurua (278.458) erregistratutako kontratuen guztizkoa (749.692) baino askoz txikiagoa da. Zifra horiek kontuan hartuz, laneko txandakatzetako indizea kalkulatu da (sinatutako kontratu-kopuruaren eta kontratatutako pertsona-kopuruaren arteko zatidura), emakumeentzat handiagoa izan dena aztertutako sail guztian. Esan bezala, 2024an gora egin dute kontratuen kopuruak (+% 2,7) eta kontratatutako pertsonenak (+% 1,2); beraz, lan-txandakatzetako gora egin du 2,69ra arte (+4 ehunen). Emakumeen kasuan, datua 2,87 kontratuko da (+6 ehunen) eta gizonena 2,53 (+2 ehunen). Horrenbestez, bi sexuen arteko aldea mantendu da (34 ehunen, aurreko urteko 20en aldean). Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena 2024an 39 egunekoa da (2023an baino hiru gutxiago), Estatu osokoa baino 6 egun gutxiago.

“Lanaldi mota” eta “iraupena” aldagaiak gurutzatuta, sinatutako 749.692 kontratuetatik ia erdia, % 48,1 (% 46,8 2023an), lanaldi osoko aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate horrek % 5,5 egin du gora (gutzizkoaren +% 2,7). Horren atzetik lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak daude, guztizkoaren % 28,7 (% 27,6 2020an), % 6,7 handitu direnak. Hirugarren tokian dago lanaldi osoko kontratazio mugagabea, % 11,5 dena (-1,2 puntu), eta % 7 murriztu da. Laugarren tokian, lanaldi partzialeko kontratazio mugagabea, % 7,4an kokatu da (% 7,9 2018an), eta % 3,9 jaitsi da. Bestalde, lanaldi finko eteneko kontratuak % 4,3 dira, 2023an baino 0,7 puntu gutxiago, % 11,6 jaitsita.

...

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **EAEen erregistratutako enplegu-erregulazioko espedienteek** buruzko estatistikak argitaratu ditu, eta 258 espediente zenbatu ditu 2024an (276 espediente 2023an); 9.508 langileri eragin die (+% 28,4), horietatik % 83,2 gizonak. Espediente motaren arabera, eragindako langileen % 85,1 aldi baterako etenaldiko espedienteek eragin dute (+% 33,7a), % 5,1 lanaldi-murrizketak (-% 6,9) eta gainerako % 9,7 kontratu-amaierako enplegu-erregulazioko espedienteek (+% 12). Azken horiek, azkentze edo iraizpen kolektiboko EEE-ek, beraz, 927 langileri eragiten diete (2023an baino 99 gehiago). Ondorioz, aldi baterako etendurako edo lanaldi-murrizketako espedienteek, 2024an, guztira 8.581 langileri eragingo liekete, hau da, EEE-ek eragindako ia langile guztiei (% 90,3), eta 6.576 izan ziren 2023an (+% 30,5).

Bestalde, banakako iraizpenak eta azkentzeko EEE-ek 2024an eragindako langileen agregatua kontuan hartzen badugu, eta iturritzat Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa hartzen badugu (12.706 iraizpen gehi Ministerioak kontabilizatzen dituen azkentzeko EEE-n eragina duten 1.306 langile gehiago), ikusten da % 8,9ko igoera izan dela, aurreko urtean % 9,4 hazi baitzen.

...

Langileen ordezkariak aukeratzearen garrantzia, besteak beste, arrazoi honetan datza: **hauteskunde sindikalen** negozio-eremuen arabera emaitzen bidez eta dagokion araudiaren arabera, negozio-eremuen osaera lortzen da, sektoreko hitzarmenen negozio kolektiboan eta enplegu publikoaren lan-baldintzen negozio-eremuan langileen ordezkarietara dagokionez. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak jakinarazten du Euskadin 2024ko abenduaren 31ra arte egindako hauteskunde sindikaletan 19.671 ordezkari aukeratu zirela, urtebete lehenago baino % 6,6 gehiago; horietatik 18.065 (% 91,8) sektore pribatukoak ziren eta 1.606 (gainerako % 8,2) administrazio publikoetakoak. Urte arteko hazkunde hori sektore pribatuan (+804) eta administrazioan (+406) gertatu da. Sexuaren arabera, delegatuen % 59,1 gizonetakoak izan ziren (% 40,9 emakumeak), eta emakumezkoen kopurua txikiagoa da enpresetan (% 40,2 emakume delegatuak) Administrazioan baino, azken horretan parekotasuna hurbilago baitago (% 49,3 emakumeak).

LHKren 2024ko datuen arabera, urtea indarreko hitzarmena zuten langileen % 52,3kin hasi zen; % 42,6k, berriz, luzatutako hitzarmen bat zuen berritzeke, eta % 5,1ek bertan behera zuen bere hitzarmena. **Negoiazio kolektiboaren** estaldurak, beraz, langileen % 94,9 hartzen zuen (% 92,8 aurreko urtean).

Negoiazio-jarduerari dagokionez, 2024an zehar **295 hitzarmen erregistratu ziren Euskadin**, 2023an baino % 16 gutxiago. Horrek, 101.773 pertsonak lan-baldintzak berritzea ekarri du, aurreko urtean baino % 53,9 gutxiago. EAEren eremuan, akordio gehiago erregistratu ziren (220 hitzarmen, sektoreko 26 eta enpresako 194) EAEn eragin handiagoa izan zutenak estatuan baino (75 hitzarmen erregistratu ziren), eta, aldi berean, lehenengoek langile gehiago hartu zituzten (66.438 pertsona; estatu-mailako hitzarmenetan, berriz, 35.335).

Horren ondorioz, hauxe da urtearen bukaeran negoziazio kolektiboaren egoera: langileen % 67,7k indarrean zegoen hitzarmen bat zuen (% 15,4k urtean erregistratutako hitzarmenekin eta % 52,3k aurreko urteetan), % 27,7k luzatuta zeukan berritu gabe, eta gainerako % 4,6k hitzarmena bertan behera utzi zuen (beraz, egiteke zeuden hitzarmenen % 32,3ren batura zen). Ondorioz, 2024. urtean negoziazio kolektiboaren estaldura % 95,4koa izan zen (2023an baino +1 puntu gehiago). Lan Harremanen Kontseiluaren datuek nabarmentzen dutenez, estaldura-maila handiena da 2012ko lan-erreforma onartu zenetik. Sexuen arabera banaketari dagokionez, 2023aren aldean, igo egin zen bai gizonen ehunekoa, indarreko hitzarmenekin (% 68,1etik % 71,4ra), bai emakumeena, eguneratutako hitzarmenekin (% 58,2tik % 63ra). Emaiza horiekin, genero-arrakala murriztu da, 2023ko 9,9 puntuetatik 2024ko 8,4 puntuetara.

Lortutako akordioen edukiei dagokionez, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2024rako itundutako batez besteko soldata-igoera % 3,35koa da (% 3,06 Estatu osoan), eta hitzartutako batez besteko lanaldia 1.704 ordukoa da urtean. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriei dagokionez, LHKren txostenak nabarmentzen du indarreko hitzarmenen % 48,7k soilik hartzen dituela barnean 2021ean horrelako neurriak (% 47,2 2020an), horietako gehienek edoskitzeko eskubidea metatzeko aukerarekin lotuta, baita indarreko legerian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako baimen batzuk ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren datuen arabera, 2024an **lan-gatazkei** dagokionez 2023an atzemandako beheranzko joerari eusten zaio: EAEn, aurtan, 260 greba erregistratu dira. Horietan, 29.451 parte-hartzaile izan dira, eta, guztira, lanik egin gabeko 104.083 egun sortu dira. Kopuru horiek 2023. urtearekin alderatuta, % 20 jaitsi da greba-kopurua eta % 38,7 lan egin gabeko lanaldiak. Era berean, greba horietan parte hartu duten langileak % 49,5 jaitsi dira 2023. urtearekin alderatuta.

Bestalde, EINen *Lan Kostuen Hiruhileroko Inkestako* zifren arabera, 2024an (urteko batez bestekoak), enpresen eta langileen artean **itundutako hileko ordu kopurua** 147,8 izan zen, 2023an baino % 0,4 gehiago. Ordu horietatik 120 (-% 0,3), % 81,2, benetan lan egindakoak izan ziren, eta ratio hori hamarren bat gehitu da azken urtean. Era berean, 2024an lan egin gabeko orduak 28,3 dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2023an baino % 0,4 gutxiago eta benetan lan egindako orduen % 23,6 ordezkatzen dute.

Zifra horiei zuzenean lotuta, gogoratuko dugu 2020an lan-merkatuan pandemiaren ondorioz izandako gertakarietako bat, enpleguaren jaitsieraz gain, **telelanaren** zabalkundea izan dela.

2024an, EAEko pertsona landunen % 13,9k telelana egin zuten (horien % 8,4k noizean behin, eta % 5,5ek egunen erdia baino gehiagok), eta horrek esan nahi du 2,5 puntuko igoera izan dela 2023arekin alderatuta (EINek berrikusitako seriea). Gainera, zifra horiek erakusten dute gora egin duela telelana noizean behin egiten duen biztanleriak (+2,9), eta behera ohiko telelanak (-0,4). Estatuan, telelanaren erabilera orokorrak ere gora egin du aurreko urtearen aldean, % 15,4ra iritsi baita (+1,3 hamarren), eta, Euskadin ez bezala, gora egin du noizbehinkako telelanak (+0,6) eta ohikoak (+0,7). Datu horiekin, gure erkidegoa, telelana egiten duen biztanleria okupatuaren ehunekoa Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa zuena, ratio horretara hurbiltzen da, 2024rako puntu eta erdiko aldearekin. Dena dela, alde horien interpretazio zuzena egiteko zenbait aldagai aztertu behar litrateke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu Estatuko batezbestekoak era askotako datuak jasotzen dituela.

...

Soldatei dagokienez, EINen “*Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren*” arabera, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 2023an (azken datua) EAEn 32.314 € zen, hots, % 3,7ko igoera aurreko urtearekiko. Kopuru hori Estatuko batezbestekoa baino % 19,9 handiagoa da denboraldi berean (20.050 €), eta autonomia-erkidegoen zerrendako lehenengoa da. Ondoren, Madril eta Nafarroa datoz. Sexuen arabera soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia-erkidego guztietan 2023an. Hala ere, aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 87,2 zen, eta beraz, arrakala % 12,8koa da (3,7 puntu aurreko urtearen aldean).

Eta, lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunean ikasi ahal izateko beharrezkoa den lan-orduko irabazia kontuan hartuta, irabazia, 2023. urtean, 22,01 eurokoa izan zen gure erkidegoan, 2022. urtean baino % 5,6 handiagoa. Orduko irabazia, urteko batez bestekoa bezala, autonomia erkidego guztietako handiena da (eta Estatuko batez bestekoa (17,82 euro orduko) baino % 23,5 handiagoa). Sexuaren arabera, EAeko emakumeen orduko batez besteko irabazia 21,55 eurokoa zen 2023an (+% 8,8 2022ko datuekin alderatuta); gizonen kasuan, berriz, irabazia 22,36 eurora igotzen da (+% 2,9). Sexuaren arabera alde horrek esan nahi du emakumeek orduko kobratu zutela Euskadin gizonak jaso zutenaren % 96,4, edo, bestela esanda, orduko irabazia % 3,6 txikiagoa izan zela. Arrakala hori 5,2 puntu txikitu da azken urtean.

Bestalde, EINen “*Laneko Prezioen Indizeak*” (lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, egindako lanaren kalitatean eta kantitatean izandako aldaketek eraginik izan barik) erakusten du 2021etik 2022ra (azken datua) % 3,2 igo dela, Estatuko batez besteko aldakuntzarekin alderatuta (+% 5,5). Oinarrizko urtetik (2016-2022) izandako bilakaera aztertuta ageri denez, igoera % 11,3koa izan da: 2022rako EAeko datua 111,3 da, eta Estatuko batezbestekoa, berriz, 113,2.

...

Enplegurako politikei helduta, gaur egun indarrean dago 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia zehaztu eta garatzen duena. Horren definizioa “*kalitatezko enplegu inklusiboaren aldeko ituna da, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean lagunduko duena*”. Hauek dira Estrategiaren eta Planaren jarduteko printzipioak: aukera-berdintasuna; aurrea hartzea, berrikuntza, erantzuteko abiadura eta erresilientzia; lurralde-oreka; adostasuna eta lankidetzia; eta gobernantza irekia eta maila askotarikoa.

Planaren “*2023ko jarraipen-txostenak*” adierazten du, jarduketan gauzatze-mailari dagokionez, erreferentziako urtean planean aurreikusitako 164 jarduketetatik 153 egin zirela; beraz, gauzatze-maila altua izan zen, % 93,3koa, eta aurreko urteetakoa baino handiagoa (% 83koa izan zen 2021ean eta % 81,8koa 2022an). Aurrekontu-betearazpenari dagokionez, 2023an 623,43 milioi euroko gastu globala egin zen (ekitaldi horretarako planifikatutako aurrekontuaren % 95,5); beraz, 2021eko eta 2022ko betearazpenei lotuta, Planak 1.383,28 milioi euro ditu gauzatuta, hau da, indarraldi osorako zuzkiduraren % 66, 8. Azkenik, txostenak adierazten du 2023rako planteatutako 29 adierazleetatik seik bakarrik lortu zutela betetze-maila baxua, eta gainerakoek betetze-maila altua.

Bestalde, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak** funtsezko zeregina du EAeko enpleguaren gaineko politika aktiboen garapenean eta Planaren ezarpenean, zeren eta haren eginkizunak lan-aktibazioa (enpleguaren sustapena, bitartekotza, orientazioa, eta abar) eta enplegurako prestakuntza (landunak nahiz langabeak) baitira.

Aurrekontu-likidazioetatik abiatuta (aitortutako obligazioak), LANBIDEk 2024an 1.231,3 milioi euroko gastua izan zuen, 2023an baino % 6 gehiago; horietatik 819,5 milioi, guztizkoaren % 66,6, Gizarteratze Programara bideratu ziren (2023an baino % 6,3 gehiago), 236,9 milioi euro (gustizkoaren % 19,2) Enplegu Programara (+% 12,2) eta 119,5 milioi (gastuaren % 9,7) Prestakuntza Programara (+% 1,1). Eta enplegu-politika aktiboetan egindako gastua prestakuntza- eta enplegu-programen batura kontuan hartzea sinplifikatzea badakar ere, gizarteratze-programekin duten berezko lotura dela-eta,

LANBIDEk 2024an gauzatutako enplegu-politika aktiboetan 356,4 milioi euroko gastua zenbatetsi daiteke, 2023an baino % 8,2 gehiago, aurreko ekitaldian % 19,7 jaitsi baitzen.

Langileei zuzendutako **etengabeko prestakuntza** ere enplegu-politika aktiboen barruan sartzen da. EAEn, indarrean dagoen araudiaren eta eskumen-banaketaren ondorioz, jarduera horiek LANBIDEk eta estatu-mailan Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak (FUNDAE) kudeatzen dituzte.

FUNDAEk sustatutako ekintzei dagokienez, 2023an (eskuragarri dagoen azken datua), 273.926 prestakuntza eman ziren EAEn, 158.309 lagunentzat, aurreko urtean baino % 5,9 gehiago, 14.407 enpresa prestatzaileraren esku-hartzeari esker (2022an baino % 0,3 gutxiago). Enpresa horiek 29,8 milioi euro erabili zituzten enplegurako prestakuntzarako erabilgarri zeuden funtsetatik (+% 4,6), eta, horregatik, hobaria jaso zuten Gizarte Segurantzako kuotetan.

...

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, EAEn 2024an langabezia-prestazioetarako gastua, EEZPk emandako behin-behineko datuen arabera, 815,58 milioi eurokoa izan zen, 2023an baino % 11,1 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,84 da (% 0,79 aurreko urtean), eta Estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,54. Estatuan 23.000 milioi baino gehiago da gastu hori.

2024an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 51.262 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 1,9 gehiago, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. 51.262 hartzaile horietatik % 55,9 emakumeak dira (+% 2,9, 2023ko datuen aldean) eta % 44,1 (+% 0,6) gizonak.

Eta, abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 49.592 pertsonetatik, % 61,7, kotizaziopeko prestazioenak ziren (30.608 pertsona), % 35,5, laguntzenak (17.602) eta % 2,8k laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (1.382). Estatuan, hilabete horretan bertan 1,79 milioi onuradun erregistratu ziren, 2023ko abenduko berberak gutxi gorabehera, eta kotizaziopeko prestazioa jasotzen duten pertsonen ratioa % 51,2koa da, subsidioen % 40,5koa eta gizarteratzeko errenta aktiboaren % 4,1koa. Gainera, % 4,2k nekazaritzako aldi baterako langileen laguntza jasotzen zuten.

Kopuru horiek izanik, Estatuko batez besteko estaldura % 78,1 zen (2023ko abenduan baino 5,9 puntu gutxiago), eta EAEkoa baino txikiagoa da (lehenago lan eginda zeuden eta hil horretan erregistraturiko langabeen % 55, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Estaldura hori 2,8 puntu handitu da azken urtean. Ohikoa den bezala, EAEk autonomia-erkidego guztietatik langabeziaren estaldura-tasarik txikienetako bat dauka, Ceuta eta Melilla alde batera utzita berarekin¹⁴.

...

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik **lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak** dituzten pertsonentzako enplegu-politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntean sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere enplegua pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

¹⁴ Arrazoietako bat da langabezia-laguntzari lotzeko, behin kotizaziopeko prestazioa amaituta, bizikidetz-unitatearen errenta kontuan hartzen dela, eta errenta hori, EAEn, laguntza lortzeko gehieneko tartearen gainetik egoten dela askotan. Hori dela eta, langabezia dauden pertsona askok ezin dute laguntza hori eskuratu, eta sistema horretatik kanpo geratzen dira.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 2022ko abenduan, EAEn, orotara 10.011 ezinduk (% 64,3 gizonak eta % 35,7 emakumeak) 84 Enplegu Zentro Berezitako (EZB) plantilletan egiten dutela lan. Sexuaren arabera banaketa ia ez da aldatu, baina kolektibo horrek 354 pertsona gehiago ditu (% +3,7) 2021eko abenduarekin alderatuta. Eta, zentro horiek mantentzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak, 2022an, 60,77 milioi euro bideratu zituen horretarako LANBIDEren bitartez (+% 10,3 2021arekin alderatuta). Horrez gain, LANBIDEK, 2022an, 5,3 milioi euro erabili zituen (+% 10,4 2021aren aldean), 4.760 langile ezinduri laguntzeko (+% 4,2) EAEko 35 EZBetan, EZBko jardura profesionalerako laguntza-unitateetako 530 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratzeko modalitate berezi hori laneratzeko enpresen bidez hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, bai besteren konturako langile gisa, bai bazkide langile edo laneko bazkide gisa, laneratze-enpresa batean sartzeko kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzen ondorioztatzen da.

Gaur egun, urriaren 31ko 162/2023 Dekretuak laneratzeko enpresen kalifikazioa, horietara sartzeko prozedura eta LANBIDEk kudeatzen duen Erregistroa arautzen ditu. 2023an 44 laneratze-enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 14,8 milioi eurokoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 311 laneratze-posturi (161 emakume eta 150 gizon) eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 147 teknikariren lanposturi (75 emakume eta 72 gizon) laguntzeko. Une horretan aktibo zeuden hiru deialdiak kontuan hartuz gero (2021, 2022 eta 2023 ekitaldiak), sustatutako laneratze-lanpostuak 901 dira, 175 teknikariren laguntza-lanari esker.

...

OSALANEK (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2024an 34,66 **lan-istripu** izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu-kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu den kopurua) gure Erkidegoan milako (33,20 milako 2023an eta, beraz, ratioa 1,46 puntu hazi da). Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 72,08), eta 1,60 puntu hazi da 2023. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude industria milako 66,45arekin (+3,47) eta Lehen Sektorea milako 63,76rekin, eta 9,54 puntu hazi da azken urtean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batezbestekoa baino txikiagoa da, milako 24,24 (+1,04 puntu).

Autonomia-erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatu duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren rankingeko buruan istripuetan 2024. urtean (behin-behineko datuak), eta ondoren Nafarroa zegoen. EAEn, milako 29,79ko indizearekin, %2,25 jaitsi da datua, eta, beste urte batez, Estatuko batezbestekoaren gainetik eutsi dio (milako 26,54), hein batean sektorearen egituragatik, industriak pisu handiagoa baitu, sektore horretan ezbeharren tasa batezbestekoa baino handiagoa da eta.

V. BIZI BALDINTZAK

V.1. DEMOGRAFIA

EUSTATen *Biztanleen Udal Estatistikako* (BUE)¹⁵ datuen arabera, EAEko biztanleria 2.208.007 pertsonakoa da 2024ko urtarrilaren 1ean, hau da, 2023an baino 11.262 (+% 0,5) gehiago. Hazkunde hori 2022 eta 2023 artean izandakoari gehitu zaio (+10.228), eta, hala, pandemiaren urteetan izandako biztanle-galera orekatu da. Lurraldeka, biztanleria hazkunderik handiena Bizkaian izan da, 2023an baino 6.018 biztanle gehiago baitaude (+% 0,5), guztira 1.150.037; ondoren, Gipuzkoan, 722.824 biztanle daude, aurreko urtean baino 2.949 gehiago (+% 0,4); eta, azkenik, Araban, 2.295 biztanle gehiago, guztira 335.146 (+% 0,7).

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, EB-27ko biztanleria hazi egin zen berriro 2023an, 2023ko urtarrileko 447,6 milioietatik 2024ko urtarrileko 449,2 milioietara (milako +3,7). Beste urte batez, saldo begetatibo negatiboa (heriotzak gehiago jaiotzak baino) (milako -2,6) orekatu da migrazio-saldoarekin (milako +6,3), COVID-19 osteko migrazio-mugimenduengatik eta EBko estatu-kideen babesa jaso zuten Ukrainatik etorritako pertsonen desplazamendu masiboagatik, Errusiak 2022ko otsailean haien herrialdea inbaditu ondoren.

EAEn, berriro ere, 2023rako behin-behineko datuek adierazten dute hazkunde natural edo begetatibo (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela, hamaikagarren urtez jarraian, aurreko hamarkadan bilakaera positiboa izan eta gero: aurten 13.453 jaiotza erregistratu dira, aurreko urtean baino % 1,3 gutxiago, eta 22.311 heriotza, 2022an baino % 7,8 gutxiago. Datu horien ondorioz, hazkunde begetatiboa -8.858 biztanlekoa izan da, hots, milako -4koa.

Bestalde, EUSTATen 2023ko *"Migrazio Mugimenduen Estatistikak"* (MME) COVID-19aren 2020ko inpaktuaren ondoren 2021ean hasitako susperraldiaren sendotzea nabarmentzen du, urte horretan migrazioak nabarmen murriztu baitziren, barrukoak zein kanpokoak. 2023an, gure erkidegoak 20.928 pertsona gehiago izan zituen guztira (2022an baino % 5,6 gutxiago; urte horretan 22.171 gehiago baitziren). Lurraldeka, Bizkaia 11.622 pertsona gehiago ditu (-% 1,7 2022arekiko), Arabak 3.209 (-% 4,8) eta Gipuzkoak 6.097 (-% 12,7).

...

Immigrazioari dagokionez, Ikuspegik erabiltzen duen EINen datuen arabera, 2025eko urtarrilaren 1ean, *EAEn bizi diren jatorri atzerritarrekoko biztanleak* 316.942 dira (guztizkoaren % 14,1). Beraz, 2024an, hamargarren urtez jarraian, 21.040 pertsona gehiago daude (+% 7,9), 2021-2022 biurtekoan gutxieneko hazkundeak izan ondoren, COVID-19ak demografia-dinamiketan izan zuen eraginaren ondorioz. 2024tik 2025era bitartean izandako gorakadak sendotu egin du gure erkidegora iritsi diren migratzaileak berreskuratzeko eta berraktibatze joera, eta pandemiaren aurreko balioei heldu zaie berriro.

2024an, nazionalitateen arabera (2024ko datuak), hamar garrantzitsuenen artean zortzi latinoamerikar daude (Kolonbia, Nikaragua, Venezuela, Bolivia, Honduras, Ekuador, Paraguai eta Peru), Europar Batasuneko bat (Errumania) eta Afrikako bat (Maroko). Hamar jatorri horien batura atzerritar jatorriko biztanleriaren % 59,7 bada ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek jatorriko herrialdeen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerriko jatorriko taldeen osieran.

Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren arabera, berriz, 2024ko abenduaren 31n 185.763 atzeritar zeuden EAEn bizileku-agiriak indarrean zituztela, duela urtebete baino % 3,1 gehiago eta hamarkada bat lehenago 2014ko abenduan baino % 51,9 gehiago. Aurreko urteetan bezala, baimen horietako gehienak atzerritartasun-erregimeneko baimenei dagozkie (% 58), eta, gainera, urtetik urterako aldaketan, baimen guztien % 5,1 baino gehiago hazi dira. Bigarrenik, erregistro-ziurtagiriak (EBko zirkulazio libreak) guztizkoaren % 41,3 dira, eta % 0,5 baino ez dira igo 2023ko

¹⁵ EUSTATen *Biztanleen Udal Estatistikak* biztanleen udal-errolaren administrazio-erregistroak erabiltzen ditu iturri nagusi gisa, eta errolda-arteko udaletako informazio demografikoa eguneratuta mantentzen du.

datuekin alderatuta. Erresuma Batuko herritarrei emandako baimenak guztizkoaren % 0,6 dira, eta % 2,8 hazi dira azken urtean.

Migrazio fenomenoaren pertzepzio sozialari dagokionez, IKUSPEGIk dio euskal biztanleriak ez duela immigrazioa arazo gisa bizi. Soilik % 3,8k aipatzen du berez EAEko lehenengo arazo gisa (% 1,7 2023an), eta aipamenak, guztira, % 9,1 dira (2023an % 5,9), gehienez hiru erantzun emateko aukera izanda. Iradokizun modura, elkarriketatutako herritarren % 10ek aipatu du; 2023an, berriz, % 4,7k.

Enpleguari dagokionez, immigrazioarekiko ikuspegi funtzionala lan-merkatuari dagokionez, nabarmen higitu zen 2008an hasitako krisiaren ondorioz: 2004an, % 80ak uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2014an, berriz, % 30,4ak bakarrik uste zuen hori. Hala ere, gorabehera batzuekin, 2015etik aurrera hazi egin zen ikuspegi utilitarista hori, eta % 74,9an geratu zen 2024an (5,1 puntu gehiago 2023koarekin alderatuta, eta 1,1 puntu gutxiago 2022an lortu zen gehieneko datuarekin alderatuta). Antzeko zerbait gertatu zen beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014an % 32,8 zegoen ados baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratorik txikiena) eta, berriz ere zenbait gorabehera izanik, % 66,2raino iritsi da 2024an (2023an baino 65,2 puntu gutxiago).

Ikuspegiren ustez, 2022ko emaitza izugarri onak, aldagai horietan eta erlazionatutako beste batzuetan, Ukrainatik etorritako pertsonen aurrean euskal biztanleriak emandako erantzun positiboaren ondorio izan ziren, eta Ukrainako gerraren kronifikazioak eta asilo-eskaeren egonkortzeak eragindako gizarte-larrialdia desagertu ondoren, euskal biztanleriaren jarrera horiek 2019 eta 2020ko mailetara itzuli dira, atzerritar jatorriko pertsonetikiko jarrerari eta pertzepzioei dagokienez.

Azkenik, urteko inkestan bildutako datuak oinarri hartuta, IKUSPEGIk euskal biztanleriak immigrazioarekiko duen *“tolerantzia-indizea”* egin ohi du. 2020ko Barometroak 2019koak baino indize handiagoa eman zuen (65 puntu, aurreko urteko 60,67 puntuen aldean) eta serie historikoko handiena da. Bilakaera horri dagokionez, IKUSPEGIren txostenak ondorioztatu zuen indize horretan lortutako emaitzak ordura arte oso lotuta egon zirela dinamika makroekonomikoei. Hala ere, 2020an hasitako COVID-19aren krisiak lotura hori hausten zuen egoera berritzaile bat ekarri zuen; izan ere, ekonomiaren gainbeherak ez zuen tolerantziaren beherakada ekarri, kontrakoa baizik. Indizea 2021ean eta 2022an hazi zen berriro, 69,3raino. 2022ko gorakada nabarmena, hein batean, behintzat, Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren eta ukrainarrak asilo eta aterpe bila iristearen ondorioz etorri zen. 2024an, tolerantzia-indizea 63,5era jaitsi da (-2,8 puntu), eta, adierazle horretan ere, 2021era arteko mailak berreskuratu dira.

...

Demografiaren gaia da, gaur egun, gizarte-trantsizioan eraginik handiena duten faktoreetako bat. Familia, Emantzipazioa, Gizarte-politikak, Etxebizitza, Enplegua, Haur-hezkuntza eta antzeko politika sektorialek zuzenean eragiten duten erronka bat. Gazteek emantzipatzeko eta bizitza autonomoko proiektu bat garatzeko dituzten baldintzak aztertzea xede duen funtsezko adierazle bat. Kapitulu honetan ikusi den bezala, Euskadi ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko daturik baxuenak dituen Europako herrialdeen artean dago. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sailen arteko gogoeta-prozesu bat bultzatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta erakundeen artekoa, foru-aldundiekin, erronka demografikorako euskal estrategia baten edukiak definitzeko. Prozesu hori 2022ko ekainean amaitu zen, *“Erronka demografikorako Euskal Estrategia 2030”* onetsi zenean.

Euskadiko datuek erakusten dutenez, Europar Batasuneko herrialdeen artean, demografia-balantze baxuena duten herrialdeen artean gaude, eta, beraz, lehenengo mailako gizarte-erronka baten aurrean gaude. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuan eta Euskadin ELGAko batez bestekoaren azpitik gaudela, familian inbertitzera bideratutako BPGd-aren ehunekoari dagokionez. Konparazioan, balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizi egiten dira, baliabide gehiago bideratzen dituztelako gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzera, askotariko neurriekin, eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak ematen dizkietelako seme edo alaba bakoitzeko. Horrez gain, bateragarritasun-neurriak sustatzen dituzte, migrazioaren etorrera eta gizarteratzea eta laneratzea errazten dute,

eta, bestalde, zahartze aktibo eta osasungarriko politikak bultzatzen dituzte, adinekoen autonomia sustatzen dute, edo landa-ingurunearen potentziala birbalioesten dute¹⁶.

V.2. BIZI-BALDINTZAK

Europar Batasunean, 2010ean **pobreziaren edo gizarte-bazterketaren arrisku-tasa, AROPE** (ingelesezko siglak: *At Risk Of Poverty or social Exclusion*, sortu zen pobrezia erlatiboa neurtzeko, pobrezia-arriskuaren tasaren kontzeptua zabalduz, diru-sarrerak soilik kontuan hartzen baititu azken horrek. Horrela, AROPE tasa pobrezia-arriskuan dauden, gabezia material eta sozialak dituzten edo enpleguan intentsitate baxua duten biztanleak gehituta eraikitzen da. 2023an (herrialdeen arabera eskuragarri dauden azken datuak), pobreziaren edo bazterketaren arriskuak biztanleriaren % 21,3ri eragiten zion EBn, 2022an baino hiru hamarren gutxiago edo, bestela esanda, 94,6 milioi pertsonari, "2030 Agendan" ezarritako irizpideen arabera.

Agenda horren arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arriskua badu eta/edo gabezia material eta sozial larria badu.

EAE (munduko testuinguruan 12. postuan mantentzen da, Irlandaren eta Finlandiaren artean, NBEren 2023ko Giza Garapenaren Indizearen sailkapenaren arabera), pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 14,8ari eragiten dio 2024an (EUROSTAT eta EInen metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 326.800 pertsona ingururi, 2023an baino 7 hamarren gutxiagori. Intzidentzia hori, beste urte batez, nahiko txikia da Europako testuinguruan, eta Esloveniakoarekin (% 13,7) aldera daiteke, 2023an Europar Batasuneko tasarik baxuenak baitzituzten, Txekiarekin (% 12) batera.

EAEk Europako testuinguruan duen posizio konparatiboa oso positiboa da, bai oro har, bai AROPE tasaosatzen duten hiru elementuetan, eta adierazi behar dugu, gainera, azken urtean (2023-2024), adierazle orokorraren bilakaera positiboarekin (beherantzkoa) batera, hiru elementuek bilakaera bera izan dutela:

1. EBko biztanleen % 16,2 **transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan** zegoen 2023an. Egoera horretan dago, kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren banaketaren medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituelako herrialde bakoitzean ("pobreziaren atalasea" deritzona; beraz, herrialde bakoitzean, gutxieneko errenta-atalase horretara iristen ez den biztanleriaren ehunekoa neurtuko luke, hau da, "atalase monetarioa"). Ehuneko hori hiru hamarren murriztu zen 2022ko datuekin alderatuta, baina, hala ere, bost pertsonatik bat baino gehiago zeuden egoera horretan sei herrialdetan: Estonian (% 22,5), Letonian (% 22,5), Errumanian (% 21,1), Lituanian (% 20,6), Bulgarian (% 20,6) eta Espainian (% 20,2). EAE, Estatuko autonomia-erkidego guztiei batez besteko pobrezia-atalasea esleitzen dien EUROSTAT metodologia aplikatuta, tasa % 9,4ra iristen da 2024an, 2023an baino 0,8 puntu gutxiago, eta 208.000 pertsona ingururi eragiten die, aurreko urtean baino 18.000 gutxiagori.
2. 2023an, EBko herritarren % 6,8k **gabezia material eta sozial larria** izan dute; izan ere, baliabide-faltak eragindako bizi-baldintzak dituzte, hala nola fakturei aurre egiteko gaitasuna (etxeko ohiko gastuenak), etxea bero edukitzea edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea. Ratio hori hamarren bat igo da azken urtean, eta alde handia dago herrialdeen artean: Eslovenia eta Zipre, % 2,5etik behera; Errumania, % 19tik gora eta Bulgaria ere % 18tik gora.

¹⁶ 2022 eta 2023ko Memoria Sozioekonomikoetara jo dugu Estrategiaren xehetasunak jasotzeko eta 2023ko jarduketak deskribatzeko (azken informazio erabilgarria), hurrenez hurren.

Espainiak % 8,3ko tasa du 2024an (2023an baino -0,7 puntu), eta EAEk % 4,6koa (-1 puntu), hau da, 101.500 pertsona inguru, aurreko urtean baino 22.500 gutxiago.

3. EBko biztanleriaren % 8 **lan-intentsitate oso baxuko etxekoen** unitateetan bizi zen 2023an (2022an baino 3 hamarren gutxiago). Egoera hori dagoela jotzen da etxeko 64 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean guztira duten lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean. Belgikak (% 10,5), Alemaniak (% 9,9) eta Danimarkak (% 9,8) Batasuneko ratorik altuenak zituzten, eta Malta, Errumania, Polonia eta Luxenburgok % 4 baino gutxiagoko ratioa zuten. 2024an EAEko datua 0,7 puntu jaitsi da azken urtean, % 7,6tik % 6,9ra (152.000 pertsona inguru, 2023an baino 16.400 gutxiago).

Bestalde, EINen **“Bizi-baldintzen Inkestako”** 2024ko zifrek, aurreko urteetan bezala, gure erkidegoan hobera egin duten adierazle batzuk eta okerrera egin duten beste batzuk erakusten dituzte:

- Errenta pertsonalak zein familia-errentak hiru urtez igoerak izan dituzte (2024an % 4,9 eta % 4,5 hazi dira, hurrenez hurren), baina biak Estatuko batez bestekoa baino proportzio txikiagoan hazi dira. Zifra horiei esker, EAE autonomia-erkidegoen araberrako rankingetako lehen postuetan dago, baina kontuan hartu behar da prezioek aldagai horietan duten eragina.
- 2024an, zenbait aldagaik hobera egin dute pixka bat urtean astebeteko oporraldia onartu ezin duten familietan, puntu erdi jaitsi baitira, % 18,3ra arte; etxebizitza nagusiarekin lotutako ordainketetan atzerapenak aitortu dituzten familien kopuruak, aldiz, gora egin du, % 7,6tik % 5,2ra (-2,4 puntu). Beste batzuek, aldiz, okerrera egin dute, hala nola ustekabeko gastuei aurre egin ezin dietela dioten etxekoen unitateen ehunekoak (% 22,5, 2023an baino 1,1 puntu gehiago) edo hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituzten familiek (% 32,9, +1,4 puntu).
- Ziurrenik zailtasun eta gabezia handienak islatzen dituzten bi adierazleei dagokienez, biek ala biek erakusten dute bizi-baldintzek okerrera egin dutela; izan ere, okela, oilasko edo arraina (edo horren baliokide begetarianoa) gutxienez bi egunean behin jan ezin duten etxekoen unitateen ehunekoak gora egin du (% 4,1etik % 5,1era), eta aurreko urtearekin alderatuta, ez da aldatu pobrezia energetikoak eragindako familien ehunekoa (% 12,6), aurreko urtean 2,3 puntu igo ondoren.

...

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak egiten duen Pobreziari eta **Gizarte Desberdintasunei buruzko 2022ko Inkestaren (PGDI)** emaitza nagusia da 2018-2020 biurtekoan PGDI adierazleek, ongizaterik ezari zein pobrezia zorrotzeko arriskuari buruzkoek, hobera egiten jarraitzen dutela 2022an, mantenuaren dimentsioan ongizaterik ezeko arriskua izan ezik.

PGDI inkestaren emaitzen txostenak nabarmentzen du 2008an hasitako krisiaren batera desberdintasuna nabarmen handitu zela 2014ra arte, eta 2014 eta 2016 artean enplegua berreskuratu izanak eta egoera zaurgarrienean zeuden kolektiboen emigrazioak lagundu zutela gorakada hori neurri batean murrizten. Ildo positibo hori hautsi egin da 2016 eta 2020 artean; biurteko horretan, desberdintasun-adierazleak areagotu egin dira Euskadin. Badirudi joera hori eten egin dela, 2020tik 2022ra bitartean desberdintasuna murriztu egin baita, neurtzeko erabilitako adierazle nagusien arabera:

- Lehenik eta behin, *Gini Indizea*,¹⁷: 2012ko 25,3ra arte etengabe jaitsi (hobetu) ondoren, 2014an 27,1era igo zen, eta 2016an berriz ere 25,8ra jaitsi zen. 2018an, berriz ere goranzko joerari heldu dio, 28,2ra iritsi arte 2020an (denbora-serieko baliorik altuena). 2022an 1,3 puntu jaitsi zen datua 26,9ra arte. Europar Batasunak 29,6ko batez bestekoa du 2022an (-4 hamarren 2020aren aldean), eta Estatuak 32ko indizea (hamarren bat jaitsi da azken biurtekoan).
- Deskribatutako joera antzekoa da EAEko biztanleen % 20 aberatsenen diru-sarrerak eta % 20 behartsuenen diru-sarrerak (S80/S20) lotzen dituen zatidura kontuan hartzen bada. Indize hori hazi egin zen 2016 (3,9) eta 2020 artean, eta urte horretan 4,4 izatera iritsi zen (+ 3 hamarren 2020aren aldean), orain arteko datu maximoa. Badirudi 2022an

¹⁷ Beste adierazleen artean, Gini-ren indizea aztertzen da. Ekonomia bateko kideen edo familien diru-sarreraren banaketaren eta berdintasunezko banaketaren artean dagoen aldea neurtzen du, halako moldez non 0 indizeak berdintasun perfektua adierazten baitu, eta 100eko indizeak, berriz, berdintasunik ez perfektua.

joera hori gelditu egin dela, indizea hamarren bat jaitsi baitzen, 4,3raino. EBn, Giniren indizearekin bezala, batez besteko datua nahiko egonkor mantentzen da aztertutako seriean (5 inguru eta beheranzko joerarekin), eta 4,7ra iritsi da 2022an, 2020an baino bi hamarren gutxiago.

- Kontuan hartu beharreko beste dinamika bat EAEn baliabide gutxien dituzten pertsonen % 10ari dagokion biztanleriaren diru-sarreraren guztizkoari dagokio. 2008ko % 3,9ko maximora iritsi ondoren, ratio horrek behera egin du 2020ko 3,2ra arte (aztertutako serieko gutxieneko datua). 2022an joera hori lehengoratzten has liteke, datua 2 hamarren hobetu baita, 3,4raino. EBn, Espainian bezala, tasa minimoa 2014an erregistratu zen (2,7 EBn, 1,8 Estatuan), eta bi eremu horietan tasak etengabe hazten ari dira ordutik, 2 hamarren azken biurtekoan, 3,1 eta 2,4 hurrenez hurren.

...

Bestalde, EAEko **familia-sistemen** tipologia nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, honako hauek daude: familia-moten dibertsitate handiagoa; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zaillean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez.

EUSTATEk "*Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta*" egin du. Inkesta horren 2022ko emaitzak nabarmentzekoak dira. Hasteko, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonen baino % 30,6 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 21,1 gehiago mendeko pertsonak zaintzen; gainera, bikotekideek baino % 25 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan. Gizonen egunean 3,6 ordu ematen dituzte adingabeak zaintzen (2022ko datu bera), eta emakumeek, berriz, 4,7 (2022ko datu bera). Beraz, arrakala ez da aldatu azken urtean. Alde hori askoz ere handiagoa da mendeko pertsonen zainketa kontuan hartzen badugu: gizonen 1,9 ordu ematen dituzte egunero (1,7, 2022an) eta emakumeek 2,3 ordu (2022. urtean bezala). Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonen, berriz, 1,6 ordu (2 eta 1,5 ordu hurrenez hurren 2022an).

Batez besteko horiek batuz, emakumeek etxeko lanetan eta zainketa lanetan emandako denbora, guztira, 9 ordu dira, gizonen 7,1 orduen aldean. Beraz, arrakala % 26,8koa da. Ratio hori % 41,5ekoa zen 2021ean eta % 32,4koa 2022an; beherakada ikusten da. Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko gogobetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 6,2ko gogobetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonen 7,6koa.

Enpresan edo erakundean baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, EUSTATEN inkestaren arabera, landunek, batez beste, 10etik 3,4ko zailtasun-maila dute (2013ko datu bera), eta, 2,5ekoa, zehazki, norberaren arazoak konpontzeko lanetik irteteko baimena lortzeko (2013an 2,9koa). Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea errazteko neurrien artean, eszedentziek 4,1eko batez besteko zailtasuna dute (3,8koa 2013an), lanaldi-murrizketak ere 4,1eko zailtasuna (3,8koa 2013an), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 2,8ko zailtasun-indizea dute (3,2koa 2010ean). Azken urtean izandako aldaketei dagokienez, 2023an, enplegurik eta soldatarik gabeko egunak eskatzeko zailtasuna izan ezik (4 hamarren jaitsi da), adierazitako zailtasunak areagotu egin dira, bereziki lanaldi-murrizketarako eta noizbehinkako absentzietarako (+4 hamarren bi aldagaian).

Zailtasun horietan ez da antzeman sexuaren arabeko desberdintasunik, eta adinak, ziur aski lanpostuko antzintasunari lotuak, aipatutako uztartze-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago uztartzearekin lotutako zenbait alderdik beren ibilbide profesionalean izan dezaketen eragin negatiboa dela eta (emakumeen % 30,5ek uste zuten hori, eta gizonen artean, berriz, % 26,5ek, 2020an) (eskuragarri dagoen azken datua).

Horren isla da gizonak neurri horietan (eszedentziak edo lanaldi-murrizketak hartzea) duten ia parte-hartze testimoniala, azken urteotan ez baita nabarmen aldatu. Hala, adingabeak edo mendetasuna duten senitartekoak zaintzeko 3.846 lan-eszedentzien % 14,8 soilik sinatu zituzten gizonak Euskadin 2023an, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren datuen arabera (% 15,6 Estatu osoan). Eszedentzia guztien % 87k adingabeak zaintzea zuen helburu, eta mota espezifiko horretan, gizonen parte-hartzea are txikiagoa da (% 12,9). Zaintzagatiko lanaldi-murrizketei dagokienez, Estatu osorako zifrek (Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak, ez dira autonomia-erkidegoen arabera bereizten) adierazten dute 2023an lanaldi partzialean borondatez lan egiten zuten 380.000 soldatapekoen % 7,4 baino ez zirela gizonak, senitartekoak, adingabeak izan edo ez, zaindu ahal izateko.

Ordutegi-motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATen Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestaren arabera, 2023an, EAEko langileen % 20,7k ia egunero luzatu behar dute lanaldia (eta % 16k batzuetan). 2022. urteari dagokionez, ohiko edo noizbehinkako lanaldia luzatu behar duten pertsonen ehunekoak gora egin du, lanaldia ia beti luzatzen dutenen ehunekoak gora egin duelako (+3,2 puntu) eta batzuetan luzatzen dutenen ehunekoak behera egin duelako (-0,8). Ildo beretik, EUROSTATEk *“Antolaketari eta lanaldiari”* buruz egindako inkestaren arabera, 2019an, EBko langileen % 21ek, asteen behin, lanaldia egokitu behar zuten beren enpleguaren eskakizunetara eta % 19 baino gehiagok hilean behin (ratioak % 13 eta % 10 dira Espainian, hurrenez hurren) (eskuragarri zeuden azken datuak).

Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestaren arabera, irteera-ordutegi malgua, kontziliazioa hobetzeko tresna osagarria, EAEko langileen % 51k baliatzen dute (% 52,6k 2022an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 45,3) gizonak baino (% 56,5). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %9k noizean behin egiten du lan etxean eta %6,8k egunen erdia gutxienez. Oro har, beraz, enplegua duten pertsonen % 15,8k noizbehinka edo maizago lan egiten du etxean (% 17,8k 2022an, % 18,7k 2021ean, % 18,1ek 2020an eta % 15,5ek 2019an), eta ratio horrek COVID-19aren eragina izan zuen.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak ditu Eusko Jaurlaritzak 2002tik, zertarako-eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

Familiei Laguntzeko IV. Planaren (2018-2022) *“Azken Ebaluazio Txostenaren”* arabera, Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzak denboraldi horretan gauzatutako aurrekontua 245,8 milioi eurokoa da, gutxi gorabehera, Planean aurreikusitako jardueren % 40koa. Oro har, eraginaren helburuak modu positiboan bete direla egiaztatzen du ebaluazioak, nahiz eta desberdinak izan: enpleguan, pobrezian, haur-hezkuntzan eta kontziliazioan hobekuntzak egin diren arren, ugalkortasunaren eta emantzipazioaren arloko helburuak ez dira lortu.

Zehazki, lan-eremuari buruzko adierazleek lortu nahi diren erreferentzia-mugak lortzen dituzte (okupazioaren % 80 25-44 urteko emakumeen eta gizonen artean); haur-hezkuntzaren kasuan, helburua lortu ez arren, joera positiboa ikusten da eskolatze goiztiarrean. Pobrezia-egoerei eta seme-alaba adingabeen zaintza-arrailari lotutako adierazleei dagokienez, datuek aurrerapen positiboa islatzen dute, baina ez dituzte Planean ezarritako helburuak lortzen. Azkenik, lortu ez diren helburuen artean daude gazteen emantzipazioari eta ugalkortasunari buruzko adierazleak, hobetu beharrean okerrera egin dutenak. Emantzipatutako gazteen proportzioa murriztu egin da, eta atzeratu egin da pertsonen familia-etxea utziz eta euren eratan duten adina. Bestalde, ugalkortasun-adierazleak –jaiotza-tasarekin batera– kopuru baxuetan jarraitzen du.

2024an, eta Familiei eta Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde arteko V. Plana egiteko prozesuarekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak *Haur bermearen Estrategia* bat egin du lehen aldiz, 2030erako. 2030erako Haur Bermearen Estrategiak haurrek eta nerabeek beren bizi-proiektuak bultzatzeko eskubideak eta aukerak eskuratzeko aukera jorratzen du. Euskal estrategia hori bat dator Europako Haur Bermearekin, eta modu berritzailean eragiten du funtsezko arloetan, baina ez dira beti kontuan hartzen, hala nola aisialdian eta kulturaren, bai eta gizartean eta politikan ere. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan, 2030 Agendan eta Gizarte Eskubideen Europako Zutabearen kokatzeaz gain, Euskadiko Haur Bermearen Estrategia *Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Lege* berrian sartzen da. Lege horrek haur eta nerabe guztiek eskubide guztiak modu eraginkorrean erabil ditzaten sustatzeko ikuspegia jasotzen du, baina arreta berezia ematen dio, nahitaez, lehen haurtzaroari, funtsezko etapa gisa, bai eta bazterkerian edo zaurgarritasunean dauden haurrei ere.

Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikako 3124 Programak 121,4 milioi euro bideratu zituen guztira *familientzako transferentzia* horietara, 2023an baino % 5,6 gutxiago; horietatik 102,4 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzetarako (guztizkoaren % 84,3) eta 19 milioi uztartzeko laguntzetarako (guztizkoaren % 15,7). 2023an, seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara bideratutako funtsak asko handitu dira 27/2023 Dekretu berriaren ondorioz. Dekretu horri esker, hiru urtetik beherako seme-alabak beren kargura dituzten familiek 200 euro ordaintzen dituzte hilean jaiotzen direnetik hiru urte bete arte, eta hilean 100 euro ordainduko dira adingabeak zazpi urte bete arte, hirugarren seme-alaben eta ondorengoen kasuan (familia ugariak). Hori dela eta, seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara bideratutako zenbatekoa 22,9 milioi eurokoa zen 2022an, eta 103,9 milioi (+% 354,3) 2023an. 2024an, familientzako laguntza horiek (27/2023 Dekretua) % 10,2 hazi dira, 102 milioi eurotik gorakoak izateraino, eta seme-alabak dituzten familientzako laguntza guztiak % 1,5 jaitsi dira. Kontziliaziorako laguntzei dagokienez, % 23 jaitsi dira aurreko ekitaldiaren aldean.

Bestalde, seme-alabak dituzten familientzako eta kontziliaziorako laguntzen *onuradun diren pertsonen (familien)* zifrak ezagutzen dira, Ekonomia eta Ogasun Sailak “*Dirulaguntzen Programen Ebaluazioaren*” urteko txostenean sailez sail jasotako informaziotik abiatuta. 2023ko ekitaldiari buruzkoak, adierazten du urte horretan 82.468 onuradunek jaso zituztela familientzako laguntzak, 2022an baino % 89,7 gehiagok. Horietatik 67.969 (guztizkoaren % 82,4) jaiotzagatik eta/edo adopzioagatik familiei ematen zaizkien laguntzei dagozkie (+% 125,2 2022arekin alderatuta), eta 14.499 langile (guztizkoaren % 17,6) uztartze-laguntzen onuradun izan ziren (+% 9,1) 2023an.

Nolanahi ere, eta laguntzak jasotzen dituzten familien zifra horiek gorabehera, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren “*Familiei eta Etxeei buruzko Inkestaren*” emaitzen arabera, 2023an EAEko familien % 38k ez zutela seme-alabak dituzten familientzako laguntzen berri.

V.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN

Genero-berdintasunaren Indizea (GBI) adierazle sintetiko bat da, eta gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak laburbiltzen ditu, horien ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten zenbait alderditan. EAEko, EUSTATEk kalkulatu du, “*Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren*” (EIGE) metodologia erabiliz, bai eta erakunde horrek Europar Batasuneko 27 herrialdeei buruz emandako informazioa erabiliz ere. Adierazle sintetiko horrek eskala adimentsional batean laburbiltzen ditu –eskala horretan, 1ek erabateko desberdintasuna eta 100 erabateko berdintasuna adierazten ditu– gizonen eta emakumeen artean oraindik ere dauden desberdintasunak, haien ongizateari eta garapen pertsonalari eragiten dieten alderdi garrantzitsu batzuetan.

EAEko GBI 2024 74,5 puntutan dago 100etik (2021eko datuak). Aurreko neurketan bezala (2019ko datuak), EB-27ko batez bestekoak baino puntuazio hobea lortu du aztertzen diren dimentsio guztietan. Gainera, baliorik altuenak, Euskadin, osasunaren, diruaren eta denboraren dimentsioetan lortzen dira, eta baxuena, berriz, boterean. Aztertutako aldian (2010-2021), EAEko GBIaren bilakaera positiboa da; izan ere, 68,8 puntu lortu zituen 2010ean, 69,1 puntu 2012an, 69,3 2015ean, 71,1 2017an, 73,1 2019an eta 74,5 puntu 2021ean (aldi horretan metatutako hazkundea 5,7 puntukoa izan da, +1,4 azken biurtekoan). Gainera, genero-berdintasunaren adierazleak hobetu egin dira arlo guztietan, bereziki Boterean (+8,8 puntu) eta Ezagutzan (+6,5). Boterearen dimentsioak 63,1eko puntuazioa lortu du, eta Botere politikoaren azpidimentsioa nabarmendu behar da, 8,5 puntu hobetu baitu 90,2raino. Denboraren arloari dagokionez, 78,3 puntu lortu ditu, 2010ean baino 4,9 gehiago. Bilakaera hori, batez ere, zainketekin lotutako jardueren hobekuntzari zor zaio, 2010ean 88,7 puntu izatetik 2021ean 93 puntu izatera igaro baita.

Europako konparazioan, EAE zortzigarren lekuan dago, Luxenburgo, Finlandia eta Irlandatik hurbil, eta Europar Batasuneko batezbestekorako kalkulaturako 70,2 balioen gainetik. Balio horren azpitik daude Europar Batasuna Europako ekialderantz hedatu zuten herrialdeak. Gainetik daude, ordea, 1995etik gutxienez Batasuneko kide direnak eta, oro har, per capita errenta-maila handienak dituztenak. Bereizketa horren salbuespenak Italia, Portugal eta Grezia dira, berdintasunaren arloan lorpen txikiak izan dituzten taldean baitaude. Datu horietatik ondorioztatzen da EUSTATEk lotura dagoela garapen ekonomikoaren eta genero-berdintasunaren artean, gutxienez Europar Batasunaren testuinguruan.

...

EAEko berdintasun-politikak 1988an sortu ziren, **EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea** legez sortu zenean, emakumeen mugimenduen eskariari eta arlo horretan sinatutako nazioarteko konpromisoei erantzunez. EMAKUNDEren azken helburua da emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzea eta EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea. Horretarako, gure erkidegoko berdintasun-politikak arautu, bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzeaz arduratzen den erakundea da.

Gaur egun, indarrean dago [Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua](#) (aurrerantzean, Berdintasunerako Legea). Dekretu horren **helburua** da “emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko neurriak arautzea ere, eta, bereziki, emakumeen ahalduntzea, haien autonomia eta haien posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea, egiturazko desberdintasuna eta sexuagatiko diskriminazio-mota guztiak ezabatzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne. Horren guztiaren azken helburua da berdintasunezko gizarte bat lortzea, indarkeria matxistarik gabea, non pertsona guztiak askeak izango diren, bai eremu publikoan, bai pribatuan, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta erabakiak hartzeko rol tradizionalak generoaren arabera ezarritako mugarik gabe, eta non berdin kontuan hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeen eta gizonen jokabide, jomuga eta beharriak”.

Plangintzari dagokionez, lehenengo Berdintasun Plana 1991n onartu zen, eta, gaur egun, indarrean dago zortzigarren Berdintasun Plana, [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia](#) gisa formulatua, 2024ko otsailean Gobernu Kontseiluak onartua. Plan horren **xedea** da “euskal botere publikoei beharrezko jarraibideak eta orientabideak ematea, beren politiken bidez, egungo gizarte-antolaketa patriarkalaren ereduaren alternatiba bat eraiki dezaten. Estrategia Eusko Jaurlaritzaren plangintza-tresna da, emakumeek emakume izateagatik estrukturalki aurre egiten dieten desberdintasunak eta diskriminazioak ezabatzeko, eta 2030ean gizarte-antolaketa demokratikoagoa, justuagoa, berdintasunezkoagoa, jasangarriagoa eta indarkeria matxistarik gabea eraikitzen aurrera egiteko. Horretarako, estrategiak paradigma feministan oinarritu behar du, eta balioak aldatzen eta genero-rolak eta -estereotipoak ezabatzen lagundu behar du zeharka”.

V.4. GIZARTE-BABESA

Lehenik eta behin, EUSTATen 2023ko **“EAEko Gizarte-babesaren Kontuaren”** azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 24.382 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2022an baino % 7,9 gehiago (+1.792 milioi). Kopuru hori urte horretako BPGd-aren % 26,3 da (2022an baino 3 hamarren gehiago). Gizarte-babeseko gastu osoak etengabe egin du gora denbora-serie erabilgarrian, eta biztanleko gastua 6.402 eurokoa izan zen 2008an, eta 11.064 eurokoa 2023an (+% 72,8). Gainera, EUROSTATEk argitaratutako azken datuen arabera, 2022an, Euskadiko gizarte-babeseko per capita gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 10.927 eurokoa izan zen, EBko batez bestekoa (10.222 €) baino handiagoa, baita Estatuko batez bestekoa (7.733 €) baino handiagoa ere, nahiz eta euroguneko 11.444 € per capita baino txikiagoa izan.

...

Bigarrenik, 2024an, milioi erdi pertsona baino gehiago (536.359, lehenengo zenbatespenaren arabera) **Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen** onuradunak izan ziren gure Erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak¹⁸), aurreko urtean baino % 0,9 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 24,3ra heldu zen, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (onuradunen % 97,4 eta gastuaren % 99,2), 2024an batez beste 522.570 onuradun zeuden (+% 0,8), eta 578.300 pentsio jaso zituzten (+% 0,9). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 12.531,5 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2023an baino % 5,8 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 13.789 pertsona estaltzen zituzten 2024an (urteko batez besteko datua), eta 103,8 milioi euroko gastua sortzen zuten (+% 12,5, 2023. urtearekin alderatuta). Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua, 12.635,3 milioi eurora igo zen 2024an, behin-behineko datuekin, eta % 5,9ko igoera izan zuen 2023. urtearekin alderatuta. Hala, BPGd-ari dagokionez, ehunekoa hamarren bat igo da, % 13raino (EUSTATen behin-behineko datuekin).

Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako zifrak erlazionatzen baditugu, 2023an, bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian, gastua 11.841,4 milioiokoa zen, 8.913,6 milioiko diru-sarreraren aldean, eta, beraz, saldoa negatiboa izango litzateke, 2.927,8 milioi eurokoa, 2022an baino % 20 handiagoa.

...

EAEko pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresna nagusien artean —Gizarte-zerbitzuei buruzko Legean, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean jasoak—, honako hauek daude: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL), **Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren** sartutako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak hainbat plan egin izan ditu pobrezia eta gizarte-bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzeko eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzeko. Gaur egun, **“Inklusiorako V. Euskal Plana 2022-2026”** dago indarrean, zeinean urteko 1.202 milioi euroko gastua aurreikusten baita —hezkuntzako eta osasuneko gastuak zenbatu gabe—, hau da, 6.010 milioi euro inguruko gastu metatua indarrean dagoen aldian zehar.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)** da. Laguntza horien ondorioz, 2022ko PGDI inkestaren arabera, Euskadin pobrezia atalase-mailaren azpian bizi

¹⁸ Kalkulu horietan ez dira barne hartu laguntza-pentsioak eta Desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Legearen ondoriozkoak, desagertuz joan direnak. Gainera, ez dago informazio eguneratutik. Dena den, guztizkoaren gaineko pisua % 0,4aren azpitik dago.

diren pertsonen kopurua % 45,3 jaitxi da. Zifretatik ondoriozta daiteke, halaber, pobrezia-arriskuan dauden biztanleen % 75,5era iristen zela sistema hori erreferentzia-urtean: 120.594 pertsona (biztanleria osoaren % 5,6).

2024an 57.986 bizikidetza-unitatek jaso zuten DSB Ea (abenduko datua; 97.472 onuradun), eta laguntza horiek 56.144 izan ziren 2023. urtearen amaieran, beraz, 2024an % 3,3ko igoera izan zen. LANBIDEn 2024ko abenduan aktibo zeuden espedienteen fitxaren ¹⁹ arabera, bizikidetza-unitateetako 57.986 titularretatik % 42,2 gizonezkoak ziren eta % 57,8 emakumezkoak (aurreko urtean baino puntu erdi gehiago). Onuradun gehien dituen adin-tartea 45-54 urte bitartekoa da (guztizkoaren % 22,7), eta nabarmenezkoa da 9.464 hartzaille 34 urtetik beherakoak direla (% 16,3, 2023an baino 4 hamarren gehiago). DSB Ea jasotzen emandako denborari dagokionez, 2024ko urteko batez besteko datuen arabera, titularren % 14,9k urtebete baino gutxiago darama hartzaille gisa, % 28,1ek urtebete eta bi urte artean, % 21ek 3 eta 5 urte artean, % 17,1ek 6 eta 10 urte artean eta gainerako % 19k 10 urte baino gehiago daramatza DSB Ea jasotzen.

LANBIDEn zifren arabera, bizikidetza-unitate hartzaillearen titularraren profila (aztertutako seriean ia ez da aldatzen) honako hau da: emakumea, Espainiako nazionalitatearekin, 40 urtetik gorakoa eta oinarritzko ikasketak dituen (% 61,2k derrigorrezko ikasketak ditu —amaituta edo ez—, % 17,9k lanbide-tituluren bat, eta % 4,6k unibertsitate-tituluren bat). Gainera, urtebete eta 5 urte artean daramatza DSB Ea jasotzen (guztizkoaren % 49,1, 2024ko batez besteko datuen arabera). Bestalde, titular hartzailen % 26,6 pentsiodunak dira (2023an % 25,5). Era berean, 12.110 pertsonak, hau da, bizikidetza-unitate hartzailen % 20,9k, jasotzen dute DSB Ea, soldata-errenten osagarri gisa (+3,6 puntu 2023arekin alderatuta). 2024an prestazioa jasotzen duten titularren % 39,2 atzeritarrak dira (2023an % 38, urteko datuen arabera).

2010ean, 18/2008 Legea garatzeko, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) jarri zen abian. Prestazio ekonomikoen sistema bat bideratzea du helburu, DSB Earen osagarri, biztanleriaren talde ahulenei etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko.

Indarraldiko lehenengo urtean (2010), guztira 51 milioi eurotik gorako gastua eragin zuen EGPOak, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016an 91 milioi eurotara iritsi arte (orain arteko zenbatekorik altuena). 2024an 76,4 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako (-% 12,7 2023ko datuekin alderatuta). Zenbateko horretatik, 15,3 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren % 20), 43,5 milioi Bizkaiari (% 56,9) eta 17,6 milioi euro Gipuzkoari (% 23,1).

EGPOa indarrean jarri ondoren, GLLek jatorrizko helburua berreskuratu zuten eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaizen aurrekontu-partida. Hala, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2023an (eskura dagoen azken datua, dagokion estatistikaren arabera), 50,17 milioi euro bideratu ziren laguntza horietara (2022an baino % 3,6 gehiago). Bestalde, 2024an gauzatutako gastua, [Irekia atariak emandako informazioaren](#) arabera, 41,5 milioi eurokoa da (-% 17,3).

2023an, 28.751 kontsumo-unitate hartzaille zenbatu ziren, 2022an baino % 0,8 gehiago; horietatik 4.008 Araban bizi ziren (guztizkoaren % 13,9), 8.377 Gipuzkoan (% 29,1) eta gainerako 16.366ak Bizkaiari (% 56,9). Guztira, urtean 65.729 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, hala nola oinarritzko premiak (11.567 laguntza, guztizkoaren % 17,6), alokairua (8.962 laguntza, % 13,6), energia (17.479 laguntza, guztizkoaren % 26,6) edo etxebizitzaren mantentzea (18.419, laguntzen % 28). Laguntza bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 1.744,98 eurokoa izan zen (2022an baino +% 2,8).

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak 512,4 milioi euro gastatu zituen orotara 2024an, 2023an baino % 1,1 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 394,5 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan egindako gastuari dagozkio (kopuru osoaren % 77, eta 2023an baino % 3,8 gehiago), 76,4 milioi Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriarako (kopuru osoaren % 14,9 eta 2023an baino % 12,7 gutxiago) eta, azkenik, 41,5 milioi euro Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetarako (Sistemaren % 8,1 eta 2023an baino % 17,3 gutxiago).

¹⁹ Erreferentzia-hilabeteen ordainketa-mugimenduren bat izan dutenak.

Konparazioa egite aldera, Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren “Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostenari” esker, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien urteko jarraipen konparatiboa egin daiteke, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen-mailak kontuan hartuta betiere. 2023ko txostenaren arabera (argitaratutako azkena), gure erkidegoak 2023an DBE gehi EGPO gastuetarako erabili zuen Estatuan autonomia-erkidegoek prestazio horietara bideratutako funts guztien % 20,3ren baliokidea. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, % 4,6koa da erreferentziako urtean.

2020an, Estatuan *bizitzeko gutxieneko diru-sarrera* (BGDS) sortu zen. Pandemiaren krisialdiaren erdi-erdian agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako zaurgarritasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu baitu. Tresna honen helburua da konponbidea ematea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari.

Eskubide Sozialak, Kontsumo eta 2030 Agenda Ministerioaren “*Estadísticas IMV*” txostenaren arabera, 2024ko abendura arte GSINek 943.620 etxeri aitortu die prestazio hori, eta 2.805.670 pertsonak jaso dute prestazioa. Laguntza horietara bideratutako funtsen zenbateko osoa, martxan jarri zenetik 2024ko abenduaren 31ra arte, 13.357 milioi eurokoa da (4.368 azken urtean).

Iturri horrek erakusten duenez, EAEn 37.715 ebazpen onartu ziren 2024ko abenduaren 31ra arte, eta datu hori 87.544 onuraduni dagokie, guztira 662,3 milioi euro ordainduta. 2024an, Euskal Enplegu Zerbitzuak 237,5 milioi euroko laguntza horiek izapidetu zituen (2023an baino % 26,9 gehiago).

Azkenik, esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatuz gizarteratzea bultzatzeko programen barruan, 2023an Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak eman zituen, guztira 4,79 milioi eurokoak, aurreko urteko zenbateko bera. Laguntza horietatik, 3,9 milioi (% 81,6) “esku-hartze soziala” ildora bideratu ziren, % 12,5 (599.000 euro) “indartze asoziatibora” eta gainerako % 5,8a (280.000 euro) “ezagutzaren kudeaketa” ildora. Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak dira, baina beste erakunde batzuek (foru-aldundiak eta udal ugari) ere funtsak bideratzen dituzte helburu horietara, eta ez dago programa horiei buruzko informaziorik.

...

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) erantzukizun publikoko sare publiko arautu gisa eratu da, eta bere helburua pertsona, familia eta talde guztiak gizarteratu daitezen eta gizarte-autonomia eta -ongizatea lor dezaten laguntzea da; horretarako, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuko du, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (GZL) arautzen eta antolatzen du sistema hori, eta hauek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzea, Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea eta, horrela, eskubide horren irismena zehaztea eta haren garapena eta ezarpena bermatzea, eta, azkenik, katalogo horren garapenaren aurreikuspena egitea, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez, ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definituko dituena.

GZESa “Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin” osatzen da. Plan horren bigarren edizioa 2023-2026 aldirako egin da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ahalik eta eraginkortasunik eta efizientziarik handiena lortzeko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduketak planifikatzeko. Plan horren arabera, GZESaren gastu korrante publikoa urtean 1.491 milioi eurokoa izango da 2025erako, eta 1.695 milioi eurokoa 2030erako.

...

2007ko Mendekotasunaren Legea ezartzeari dagokionez, *Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren* (IMSERSO) 2024ko abenduaren 31ko azken datuen arabera, aipaturiko data horretan, EAEk 117.575 balorazio-eskaera zituen erregistraturik Mendekotasunaren Arretarako Sistemari. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berrikuspenei dagozkie. Eskatzaileen profila honako hau da: emakumea (guztizkoaren % 62,2) eta 80 urte edo gehiagokoa (eskaeren % 52,4; baina % 60,6 emakumeen artean).

Erregistratutako 117.575 irizpen-eskaeretatik, % 99,87k zegokion ebazpena jaso zuten jada (Estatuan, batez beste, % 94,10), eta 85.082 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 72,46ari, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Ehuneko hori Estatuko batez bestekoa (% 80,32) baino txikiagoa da. Baina biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartzen badugu, tasa handiagoa da EAEn Estatuan baino: Biztanleriaren % 5,30 EAEn, eta % 4,24 Estatuan.

Mendekotasunaren Espainiako Behatokiak, EAeri dagokionez, nabarmendu du azken urtean Sistemak artatutako pertsonen kopurua hazi bada ere, hazkunde hori Estatuan oro har artatutakoa baino txikiagoa dela (+% 4,6, Estatuko batez bestekoaren +% 7,5en aldean). Alderdi positibo gisa, nabarmendu da itxarote-zerrenda % 4,8 murriztu dela eta Estatuko batezbestekoaren parekoa dela; halaber, 530 enplegu garbi sortu dira, eta, beraz, zuzeneko 18.800 enpleguen muga gainditu da.

Zainketei dagokionez, Europa hegoaldeko herrialdeetako eredu tradizionalak familia jartzen du zainketen eta laguntzaren emaila nagusi gisa. Ikuspegi horrek zaintza-erantzukizunak eremu pribatuan kokatzen ditu, eta familiei esleitzen dizkie sozialki, eta, bereziki, emakumeei, haiek arduratzen baitira batez ere zeregin horretaz. Hala ere, zaintza eredu tradizional hori krisian dago. Biztanleriaren zahartzea, gaur egungoa eta espero dena, “zainketen krisia” deiturikoan eragina duten faktoreetako bat da.

Baina eredu alternatibo bat justifikatzen duen funtsezko arrazoia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna da, eta horrek ikuspegi berri batera garamatza, zeinaren helburua baita zainketak desfamiliarizatzea eta desfeminizatzea, eskubideak aitortuta eta lidergoa, erantzukizuna eta gastu publikoa indartuta gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuetan; EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoak 2025ean zorroan ia 1.500 milioi euro sartzea aurreikusten du, 4.4.1 apartatuan aipatutakoaren arabera. Eredu berriak, gainera, kontziliazioa, erantzukidetasuna eta lankidetzat sustatzen ditu zainketa ematen parte hartzen duten lau eragileen artean: Estatua, merkatua, hirugarren sektorea eta komunitateak eta familiak.

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko Inkestaren (GPI) azken emaitzen arabera, EAEko etxeen % 9,3k mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eta artatzeko zerbitzuak²⁰ eskatu zituen 2022an. 2006tik izan den kopururik handiena da. Etxe horietako gehienek eskatutako zerbitzuak jasotzen dituzte, eta ehuneko hori ere handitu egin da aurreko urteekiko, 2022an % 96ra iritsi arte. Zaintza-zerbitzuen eskaeraren eta eskuragarritasunaren igoera aztertzean kontuan hartu beharreko faktoreen artean, nabarmentzekoa da biztanleria zahartzen ari dela eta telelaguntza-zerbitzua eta antzeko zerbitzuen inplementazioan aurrerapausoak eman direla. Iturri horrek ematen ditu gaixoak, ezinduak edo etxeko adinekoak zaintzen dituzten pertsonen buruzko datuak. Hala, inkestan parte hartu duten pertsonen % 3,9k adierazi dute beren gain hartu dituztela ardura horiek. Zaintzaile informalen 10etik 7k 55 urte edo gehiago dituzte, eta % 56 emakumeak dira. Zeregin horiek egunean bi ordu edo gehiagoko lan-karga dakarkiete zaintzaileen % 70i. Beraz, % 19k baino gehiagok uko egin behar izan die beren hezkuntza- edo lan-bizitzarekin lotutako alderdiei, eta % 66k beren gizarte-bizitzari —% 20k adierazi du erabat uko egin diola bere gizarte-bizitzari—.

...

²⁰Inkesta honetan, mendeko pertsonak zaintzeko zerbitzu hauek sartu dira: etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak edo okupazio-zentroak, telelaguntza, aldi baterako egonaldiak egoitzetan eta etxebizitza komunitarioko edo bizilekuko zerbitzuak.

Amaitzeko, **EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistemaren** bilakaeraren balantzea egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak adierazten du 2023an EAEko BGAEek 28.894 milioi euroko ondarea zutela (azken datu erabilgarria). Zenbateko hori % 7,5 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, eta aurtengo BPGd-aren % 31,65 da. Era berean, erakunde horietan 1,17 milioi pertsona daude kidetuta edo atxikita (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan), hau da, 2022an baino % 2,2 gehiago. 2023ko abenduaren 31n, Euskadin 68 BGAE zeuden; horietatik 40 enpleguko BGAE ziren (horietatik 3 lehentasunezko enpleguak²¹), 26 banan-banakakoak eta 2 elkartutakoak.

Bazkideen erdia baino gehiago (% 52,7) banakako BGAEetan zeuden, eta horien atzetik enpleguak (bazkideen % 47,2). Ondareari dagokionez, % 55,1 enpleguko BGAEei dagokie, eta gainerako ia guztia banakakoei (% 44,8); ordaindutako prestazioak, berriz, enplegu-erakundeetan eta banakakoetan biltzen dira gehienbat (guztizkoaren % 69,6 eta % 30,4, hurrenez hurren). Azkenik, ekarpenak nagusiki enpleguko BGAEei dagozkie (% 52), eta gero banakoei (% 47,9).

2023ko balantze gisa, Euskadiko BGAEen ondarea 28.894 milioi eurotik gorakoa da, eta % 7,5 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kuotak edo ekarpenak, bestalde, 2023an 843,9 milioi eurokoak izan ziren, hau da, 2022an baino % 11,9 gutxiago. Genero-ikuspegiaren arabera portaera aurreko ekitaldietakoaren antzekoa izan da. Izan ere, sistemari egindako ekarpenen % 57 gizonak ordaindu dituzte, eta % 43 emakumeek.

Eta, BGAEei eta pentsio-planeei egindako ekarpenengatik PFEZaren zerga-oinarri orokorrean egindako murrizketei dagokienez, 2021ean (eskura dagoen azken datua) murrizketen zenbatekoa (+% 4) eta aitortzaile bakoitzeko batez besteko murrizketa (+% 3,2) handitu dira. Zenbateko hori aldatu egiten da: errenta-maila baxuenen batez besteko ekarpena 1.381 eurokoa da (30.000 eurorainoko likidazio-oinarria), eta zergadunen % 24,5ek soilik egin ditu ekarpenak; 30.000 eta 90.000 euro arteko oinarria duten zergadunen batez besteko ekarpena 2.577 eurokoa da, eta % 52,5ek egin ditu ekarpenak; eta batez besteko ekarpena 5.088 eurokoa da errenta-mailarik handienetan, eta zergadunen % 62k egin ditu ekarpenak.

²¹ Enpleguko BGAEek **lehentasunezko enpleguko BGAE**-kalifikazioa lor dezakete, baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte; besteak beste, jatorria eta enpresa-hitzarmen edo -itun bidez eratzea, bazkideak hartzeko orduan diskriminaziorik ezaren printzipioa eta, ahal dela, prestazioa errenta gisa jasotzea. Memoria hau egin den egunean, GEROA, ELKARKIDETZA eta LAGUNARO dira lehentasunezko enpleguko hiru BGAEak.

VI. BIZI KALITATEA

VI.1. HEZKUNTZA

EUSTATen arabera, 2023-2024 ikasturtean 365.986 ikasle matrikulatu ziren unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan EAEn²², aurreko ikasturtean baino 68 gehiago. **Matrikulazioaren bilakaera desberdina izan zen hezkuntza-mailaren arabera.**

- Beheko mailetan azken urteotako beheranzko joera mantendu da. Hala, Hezkuntza Berezia zenbatu gabe, Haur eta Lehen Hezkuntzan 194.570 ikasle matrikulatu ziren (73.031 Haur Hezkuntzan eta 121.539 Lehen Hezkuntzan), hau da, 2022-23 ikasturtean baino % 1 eta % 2,1 ikasle gutxiago, hurrenez hurren.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Oinarrizko LHn hazkundeari eutsi zaio azken 3 urteetan. DBHn 1.446 ikasle gehiago izan ziren, 90.335 ikasle guztira, eta Oinarrizko LHn 378 gehiago, 5.283 ikasle guztira.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan hazkundeak izan ziren bai Batxilergoan bai Lanbide Heziketan. Batxilergoan 32.575 pertsona²³ (+% 0,3 aurreko urtearekin alderatuta) matrikulatu ziren eta Erdi-mailako Lanbide Heziketan, berriz, 16.305 (+% 1,7). Hala, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleen % 66,6k Batxilergoa aukeratu zuen, eta % 33,4k, aldiz, Erdi-mailako Lanbide Heziketan eskainitako zikloetako bat egitea erabaki zuen. Goi-mailako Lanbide Heziketan 24.669 pertsona matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 4,1 gehiago²⁴.

Sexuen araberako banaketari dagokionez²⁵, Lanbide Heziketan handiagoa da gizonen ehunekoa emakumeena baino (erdi-mailako zikloetan, % 64 eta % 36, hurrenez hurren; goi-mailako zikloetan, aldiz, % 62,9 eta % 37,1, hurrenez hurren), baina Batxilergoan handiagoa da emakumeen parte-hartzea: guztizkoaren % 54 emakumeak dira eta gainerako % 46a, berriz, gizonak.

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan matrikula gehiago egon dira sare publikoan sare pribatuan baino. Bestalde, DBHn eta Batxilergoan matrikula-kopurua pixka bat handiagoa izan da sare pribatuan sare publikoan baino.

Hizkuntza-ereduaren araberako banaketari erreparatuz gero, D ereduko matrikulazioak goranzko joera du, matrikulazio guztien % 68,6 izatetik % 71,1 izatera igaro baita 2019-2020 eta 2023-24 ikasturteen artean. Bestalde, B ereduak % 18,4tik % 16,5era igaro da, eta A ereduak % 12,4tik % 11,8ra. Gainerakoa X ereduari dagokio (% 0,6); ratio hori egonkor mantendu da.

D ereduko matrikulazioaren goranzko joera hezkuntza-maila guztietan gertatzen bada ere, eredu horretan matrikulatzen diren ikasleen ehunekoak behera egiten du hezkuntza-mailek gora egin ahal. LHn, nahiz eta ikuspegi historikotik matrikulazioaren pisuak gora egin duen D ereduaren, ratioak askoz ere apalagoak dira. 2023-24 ikasturteko azken datuek erakusten dutenez, Erdi-mailako LHn % 28,4 matrikulatu zen D ereduaren (% 22 B ereduaren) eta % 49,6 A ereduaren; Erdi-mailako LHn, % 30,3 D ereduaren (% 18,1 B ereduaren), eta % 51,6 A ereduaren, eta, Oinarrizko LHn, osterak, % 4,3 baino ez zen matrikulatu D ereduaren, eta % 87,5 A ereduaren.

²² Helduen Hezkuntza eta araubide bereziko ikasketak alde batera utzita

²³ Batxilergoan bi ikasturte daude, ohiko moduan 16 eta 18 urte artean egiten direnak.

²⁴ Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen dira ikasleak erdi-mailako heziketa-zikloan, Batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi-mailako heziketa-zikloan, betiere hirugarren hezkuntzaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan. Erdi-mailako heziketa-zikloekin teknikari-titulua lortzen da, eta goi-mailako heziketa-zikloekin, berriz, goi-mailako teknikari-titulua.

²⁵ Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako sexuen araberako banaketa ez da aztertu, horrek, ez baitu zerikusirik hautaketa-arrazoiekin.

Azterketa hezkuntza-mailaren eta ikastetxeen titulartasunaren arabera egiten bada, ikusten da D ereduaren matrikulatzen diren ikasleen % 62,9 titulartasun publikoko ikastetxe batean matrikulatzen direla, eta Lanbide Heziketan daudela ratio handienak, bereziki Erdi-mailako Lanbide Heziketan, non D ereduaren matrikulatzen diren ikasleen % 81,2 ikastetxe publiko batean matrikulatzen diren.

Batxilergoko modalitatei helduta, 2023-24 ikasturtean erabat ezarri zen 243/2022 Errege Dekretua. Bada, talde berriarekin, ikasleen % 56,3 Zientzien eta Teknologiaren kategorian matrikulatu ziren, % 38,3 Giza eta Gizarte Zientzien kategorian, eta % 3,4 Arteen kategorian: Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua % 0,6k, eta Musika eta Arte Eszenikoak 1,4k.

Batxilergoko modalitatea aukeratzera, emakumeek eta gizonen desberdin jokatu zuten. Gizonen % 62,1ek Zientziak eta Teknologia adarra aukeratu zuen; emakumeek (% 51,3) baino 10,8 puntu gehiago dira horiek. Aldiz, Giza eta Gizarte Zientzietan prestakuntza jaso zuten emakumeen proportzioa (% 41,9) gizonena baino 7,7 puntu handiagoa izan zen (% 34,2). Artea gutxien aukeratu zen bi sexuetan, baina emakumeen ehunekoa (% 5,8) gizonena halako hiru izan zen. Azkenik, Batxilergo Orokorra gizonen % 1,8k eta emakumeen % 1,1ek soilik aukeratu zuten.

Lanbide Heziketan, 2023-2024 ikasturtean, ikasle gehien bildu zituzten erdi-mailako zikloak **lanbide-arlo hauetakoak** izan ziren: Osasuna (% 18,2, +%4,4), Fabrikazio Mekanikoa (% 12,6, +% 3,7), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,4, +% 1,1), Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,8, +% 0,2), Instalazioa eta Mantentze Lanak (% 7,8, +% 2,7), Informatika eta Komunikazioak (% 7,6, +% 2,4), Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak (% 7,2, +% 1,6). Goi-mailako titulazioen artean hauek nabarmendu ziren matrikulazio bolumenaren arabera: Fabrikazio Mekanikoa (% 11,7, -% 0,5), Informatika eta Komunikazioak (% 11,5, +% 8,4), Administrazioa eta Kudeaketa (% 11, +% 6,5), Gizarte eta Kultura Zerbitzuak (% 10,3, +% 6,1), Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,3, +% 1,8), Osasuna (% 8,6, +% 12), eta Instalazioa eta Mantentze Lanak (% 7, +% 0,5).

Emakumeen parte-hartzea oso handia da arlo hauetan: Irudi Pertsonala; Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza; Osasuna; Gizarte eta Kultura Zerbitzuak. Bigarren talde garrantzitsuan, arlo hauek nabarmentzen dira: Elikagaien Industriak; Administrazioa eta Kudeaketa; Merkataritza eta Marketina, Kimika eta Arte Grafikoak. Hala ere, batez bestean, emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa da lanbide-ikasketetan (erdi-mailako heziketa-zikloetan, % 35,9koa; goi-mailako heziketa-zikloetan, berriz, % 36,6koa). Horrez gain, hurrengo atalean aztertuko dugun bezala, ikusi da emakume gutxiago matrikulatu direla teknikoagoak diren lanbide-arloetan, laneratzeko aukera hobeak eskaintzen badituzte ere. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze Lanak, eta Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak arloei dagokienez, emakumeen matrikulazioa % 15,2koa izan da soilik, kasurik onenean (goi-mailako zikloa Informatikan eta Komunikazioetan, alegia).

LANBIDEk 2022an ikasketak amaitu zituzten **Lanbide Heziketako ikasleen** 2023ko **lan-egoerari** buruz emandako datuek erakusten dutenez, jarduera-tasa²⁶ % 62,9koa da, emakumeena gizonena baino handiagoa (% 65,1 vs % 61,5); enplegu-tasa²⁷ % 53,2koa da, emakumeena gizonena baino handiagoa (% 54,9 vs % 52,1); okupazio-tasa²⁸ % 84,5koa da, gizonena emakumeena baino zertxobait handiagoa (% 84,7 vs % 84,3), eta langabezia-tasa²⁹ % 15,5koa da, emakumeena gizonena baino zertxobait handiagoa (% 15,7 vs % 15,3).

Lanbide-arloen arabera azterketak (24 guztira) erakusten duenez, promozioko ikasleen bolumen handiena duten 8en artean (Fabrikazio Mekanikoa; Osasuna; Elektrizitatea eta Elektronika; Gizarte eta Kultura Zerbitzuak; Administrazioa; Produkzioaren Zerbitzuen Mantentzea; Informatika, eta Berez Dabiltzan Ibilgailuen Mantentzea), enplegu- eta okupazio-tasa handienak honako hauek dituzte: Elektrizitatea eta Elektronika (% 58,3 eta % 88,5, hurrenez hurren), Produkzioaren

²⁶ *Jarduera-tasa: lan-jarduera dutela (lanean edo lan bila daudela) erantzun duten pertsonen kopurua, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

²⁷ *Enplegu-tasa: lanean daudela erantzun duten pertsonen kopurua, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

²⁸ *Okupazio-tasa: okupatuta (lanean) daudela erantzun duten pertsonen kopurua, lan-jarduera dutela (lanean edo lan bila daudela) erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

²⁹ *Langabezia-tasa: langabezian (lan bila) daudela erantzun duten pertsonen kopurua, lan-jarduera dutela (lanean edo lan bila daudela) erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

Zerbitzuen Mantentzea (% 58,1 eta % 91,6), Berez Dabiltzan Ibilgailuen Mantentzea (% 57,4 eta % 86,3), Fabrikazio Mekanikoa (% 55,8 eta % 88,8), Administrazioa (% 54,9 eta % 82) eta Osasuna (% 52,6 eta % 85,8). Administrazioaren eta Osasunaren kasuan izan ezik, emakumeen matrikulazioa oso txikia da.

Aipatutako 8 lanbide-arloetako heziketa-ziklo bakoitzaren okupazio-tasari dagokionez, hauexek dira promozioiko ikasle-kopurua ehunetik gorakoa eta okupazio-tasa % 85etik gorakoa dituzten zikloak:

- Elektrizitatea eta Elektronikan, Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako zikloa, Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako zikloa, Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako zikloa, eta Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta goi-mailako zikloa.
- Fabrikazio Mekanikoan, Soldadura eta Galdaragintzako erdi-mailako zikloa, Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako zikloa eta Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi-mailako zikloa.
- Informatikan, Sareko Informatika Sistemen Administrazioko goi-mailako zikloa, eta Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko goi-mailako zikloa.
- Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanetan, Automobilgintzako goi-mailako zikloa.
- Instalazioa eta Mantentze Lanetan, Mantentze Elektromekanikoko erdi-mailako zikloa eta Mekatronika Industrialeko goi-mailako zikloa.
- Osasunean, Erizaintzako Zainketa Osagarrietako erdi-mailako zikloa, Osasun Larrialdietako erdi-mailako zikloa eta Aho-hortzetako Higieneko goi-mailako zikloa.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2022-2023 ikasturtean, guztira 71.142 ikasle zeuden matrikulatuta EAEn zentroak dituzten unibertsitateetan, hots, % 0,9eko igoera izan da aurreko ikasturtearen aldean. Horrela, finkotu egin da azken urteetako goranzko joera. Igoera hori graduiko titulazioetako ikasleen gorakadari esker gertatu zen; horrek konpentsatu egin zuen bai masterreko ikasketetan bai doktoregokoetan izandako matrikula-galera arina. Sexuaren arabera banaketa eginez gero, emakume gehiago doaz unibertsitatara (guztizkoaren % 54,2 emakumeak dira).

Ikasle gehienek (% 69) unibertsitate publikoak aukeratu zituzten. Hala ere, zentro publiko eta pribatuen arteko matrikulen banaketan azken horien aldeko joera nabari da. Erregistroak daudenez geroztik, unibertsitate publikoetan matrikulatutako ikasleak guztizkoaren % 70 baino gutxiago izan ziren lehen aldiz 2022-2023 ikasturtean. Unibertsitate publikoa, ordea, titulazio bikoitzen gorakadara egokitzen ari da bere eskaintza. Duela hamarkada bat, gradu bikoitzak unibertsitate pribatuen eskumen eskusiboa ziren, publikoek eskaintzen ez zituztelako, baina bilakaera nabarmena egon da, eta 2022-2023 ikasturtean, gradu bikoitzeko hiru ikasleak batek ikastetxe publiko bat aukeratu zuen.

Gradu-ikasketei dagokienez, matrikulen % 49,3 Gizarte eta Lege Zientzietan izan da. Horren ostean kokatu dira Ingeniaritza eta Arkitektura (% 22,9) eta, ondoren, Osasun Zientziak (% 14).

Aipatu dugun bezala, emakumeak ikasle guztien % 54,2 izan ziren, eta proportzio hori gutxi gorabehera konstante mantendu da denboran zehar. Dena den, sexuen banaketa oso desorekatua izan zen ikasketa batzuetan. Hala, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen esparruko ikasketak oso feminizatuta daude (zehazki, Osasun Zientzietan guztizkoaren % 77,3 dira emakumeak, Artean eta Giza Zientzietan % 65,3 eta Gizarte eta Lege Zientzietan % 58,7). Beste muturrean, Ingeniaritzari eta Arkitekturari buruzko irakaskuntzak daude; ikasleen % 70,5 gizonak dira. Natura Zientzien, Kimikaren, Fisikaren eta Matematikaren sektorean, sexuen arabera banaketa ekitatiboagoa izan da.

2020ko promozioiko **unibertsitate-ikasleen** 2023ko **lan-egoerari** erreparatuta, LANBIDEren datuen arabera, jarduerata-sa³⁰ % 93koa da, eta genero-arrakala esanguratsua ez bada ere, gizonen jarduerata-sa emakumeena baino zertxobait handiagoa da (% 93 vs % 92); enplegu-tasa³¹ % 85ekoa da, gizonena emakumeena baino handiagoa (% 87 vs % 84);

³⁰ *Jarduerata-sa: lan-jarduerata dutela (lanean edo lan bila daudela eta lanean hasteko prest daudela) erantzun duten pertsonen %, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

³¹ *Enplegu-tasa: enplegu ordaindua duten edo jarduerata independente bat burutzen duten pertsonen %, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

okupazio-tasa³² % 92koa da, gizonena emakumeena baino zertxobait handiagoa (% 93 vs % 91), eta langabezia-tasa³³ % 8koa da, gizonena emakumeena baino txikiagoa (% 7 vs % 9).

Enplegu ahokatuaren tasak hirugarren hezkuntzari (unibertsitateko ikasketei edo goi-mailako zikloari) lotutako enplegua lortu duten pertsonen ehunekoa islatzen du³⁴, eta % 88koa da; aurreko promozioiko tasa baino bi puntu gehiago dira horiek. Emakumeen tasa eta batez besteko tasa bat datoz. Ikasketekin lotutako enplegu-tasaren bidez, beren lanak unibertsitate-ikasketekin lotura handi samarra edo handia duela uste duten landunen ehunekoa neurtzen da. % 77koa da, aurreko promozioiko tasa baino puntu bat gehiagokoa. Emakumeen tasa batez besteko tasa baino ehuneko puntu bat txikiagoa da. Hileko soldata garbia, 14 ordainsaritan, lanaldi osoan 1.715 euro da. Emakumeen soldata txikiagoa da; 1.693 euro da. Hala eta guztiz, emakumeek soldata horrekiko duten gogobetetasuna batez beste erregistratzen denaren berdina da (10etik 7). Emakumeek enpleguarekiko duten gogobetetzea batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da (10etik 7,1 vs 7,2).

Jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak ezagutza-eremuen arabera banakatuz gero, alde nabarmenak daude, eta eremu esperimentalen bilakaera positiboa izan da Zehazki:

- Titulazio esperimentalek, teknikoek eta osasunarekin lotutakoek dituzte jarduera- eta enplegu-tasa handienak eta langabezia-tasa baxuenak.
- Enplegu ahokatuaren tasa % 98koa da arlo teknikoetan, % 96koa osasunarekin lotutakoetan eta % 93koa esperimentaletan. Guztiak ere batezbestekoaren gainetik daude, hura % 88koa baita. Tasarik txikiena ekonomia eta zuzenbide arlokoa da, % 82koa.
- Ikasketekin lotutako enplegu-tasa % 90ekoa da osasunarekin lotutakoetan, % 80koa teknikoetan eta % 76koa esperimentaletan. Guztiak ere batezbestekoaren gainetik daude, hura % 76koa baita. Tasarik txikiena giza zientzien arlokoa da, % 67koa.

Jarraian, **hezkuntza-sistemaren gastuari eta finantzaketari** buruzko adierazle batzuk aztertuko ditugu:

- EUSTAT. Hezkuntzaren Kontua³⁵

2024an, EAEko hezkuntzako gastu osoa % 6,4 hazi zen EAEn 2023. urtearekin alderatuta, eta 5.240,5 milioi eurokoa izan zen, EUSTATen datuen arabera. Guztizko gastutik, 5.003,8 milioi erabili ziren gastu arrunterako eta 236,6 milioi inbertsiorako. Biztanleka banatuta, hezkuntzako gastua 2.373 eurokoa izan zen, hau da, BPGaren % 5,4, aurreko urtean baino 0,1 ehuneko-puntu gutxiago.

- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastua 3.609.697 milioi eurokoa izan zen 2023. urtean. Hortaz, % 7ko gehikuntza egon da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, % 25,1ekoa izan zen; ratio hori % 25aren gainetik kokatu da berriro, aurreko urtean izandako beherakadaren ondoren. Gastu hori EAEko BPGaren % 3,89 da, 2022an erregistratutako ratio bera.

³² Okupazio-tasa: ordaindutako enplegua duten pertsonen %, pertsona aktiboen guztizko kopurua aintzat hartuta.

³³ Langabezia-tasa: ordaindutako enplegurik ez duten pertsonen %, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.

³⁴ Enpresen zuzendaritza eta gerentzia, unibertsitateko titulazioari lotutako profesional zientifikoak eta intelektualak, eta laguntza-teknikariak eta -profesionalak.

³⁵ EUSTATen Hezkuntzaren Kontuan hezkuntza-jarduera guztietako (arautuetako eta ez-arautuetako) ohiko gastua eta kapital-gastua jasotzen dira, hezkuntza-erakundeetan eta bestelako zentroetan eta enpresetan egindakoak, eta iturri publikoekin eta pribatuarekin finantzatuak izan direnak.

Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastu-ratioa (ikasleena, guztira, hau da, araubide orokorrekoa³⁶ zein berezikoa³⁷) berriro igo zen 2022 eta 2023 bitartean, 6.997 eurotik 7.554 eurora.

- Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa.
 - Hezkuntzako guztizko gastu publikoaren nazioarteko alderaketa, BPGarekiko. EB27n³⁸, 2021ean, % 4,86ra iritsi zen, Estatukoa baino ratio handiago (% 4,69). Ratio handienak izan dituzten herrialdeak azken urteotako berdinak dira, baina aldaketak daude sailkapenean: Suedia (% 7,05), Danimarka (% 6,44), Belgika (% 6,26), Finlandia (% 6,16), Herbehereak (% 5,51), Frantzia (% 5,42) eta Austria (% 5,36).
 - Hezkuntzako gastu publikoaren estatistika. 2023ko datuak Gastua administrazio-motaren, hezkuntza-jardueraren eta izaera ekonomikoaren arabera bereizita aurkezten da.

Estatu osorako hezkuntzako guztizko gastu publiko.

Hezkuntzako guztizko gastu publikoa (hezkuntza-administrazio eta unibertsitate publiko guztietarako), finantza-kapituluak kenduta, 67.773,3 milioi eurokoa izan zen, alegia, BPGaren % 4,52. Horrela, gastua % 7,3 igo zen.

Hezkuntzako gastu publikoa administrazio-motaren arabera.

Zatirik handiena (% 88,5) hezkuntza-administrazioei dagokie (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta unibertsitateak, bai eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-kontseilaritzak eta -sailak eta/edo unibertsitateak ere).

Autonomia-erkidegoen transferentziak kendu ondoren, ministerioen partaidetza % 8koa da. Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioei (ministerioak alde batera utzita) gastuaren % 84 dagokie. Gainerako ministerioei eta beste kontseilaritza batzuei (toki-administrazioak barne) gastu osoaren % 4,5 dagokie. Hori guztia EINen Kontabilitate Nazionalak ematen dituen gizarte-kotizazioen % 6,8rekin osatzen da. Ehunekook ez dute % 100 osatzen, ez baitira kendu administrazioen arteko transferentziak eta doikuntzako partidak.

Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen gastua 56.915,7 milioi eurokoa izan zen, eta 2022arekin alderatuta, +% 7,1 igo zen. Autonomia-erkidego guztietan izan ziren aldakuntza positiboak. BPGaren gaineko ehunekoa, hezkuntza-administrazio guztien gastua % 3,80 da (beheranzko joera izaten jarraitzen du). EAEn, 3.563,6 milioi euroko gastua egin da, hots, aurreko urtean baino % 7 handiagoa. BPGaren gaineko ehunekoa % 4,06 da (beheranzko joera izaten jarraitzen du horrek ere). Beraz, aipatutako ratioa Estatuko batezbestekoa baino handiagoa da.

Hezkuntzako gastu publikoa, hezkuntza-jardueraren arabera: unibertsitatez kanpokoa eta unibertsitatekoa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko hezkuntzan egindako ahaleginak (BPGaren gaineko gastuaren ehunekoa) gainditu egiten du autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek egindakoaren batezbestekoa (BPGaren % 3,36 eta % 2,95); ez, ordea, unibertsitate-hezkuntzan (% 0,6 eta % 0,78).

³⁶ Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa.

³⁷ Arte plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Diseinuko goi-mailako ikasketak.

³⁸ Maila guztiak sartzen dira, HNSN 01 azpimaila izan ezik: Lehen haurtzaroko hezkuntza-garapena (Haur Hezkuntzako lehen zikloa).

Hezkuntzako gastu publikoa, izaera ekonomikoaren arabera: itunetako gastu publikoa eta irakaskuntza pribaturako dirulaguntzak, hezkuntza-administrazioaren arabera

Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazio guztiek irakaskuntza pribaturako itun eta dirulaguntzetan egindako gastu publikoa 7.860 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2022an baino % 5,2 handiagoa. EAEn, Hezkuntza Sailak 879,4 milioi euroko gastua izan zuen; 2022an baino % 12,4 handiagoa da horia.

Hezkuntzako guztizko gastu publikotik, itun eta dirulaguntzetako gastua (2022ko datuekin) autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazio guztien gastu publikoaren % 14,1 eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastuaren % 23,5 da, hurrenez hurren. EAE da ratorik handiena duen autonomia-erkidegoa.

- Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako gastu publikoa ikasle bakoitzeko. Estatuko konparazioa.
Ikasle publiko nahiz itunpeko bakoitzagatik unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan EAEn egindako gastu publikoa 8.351 eurokoa izan zen 2022. urtean; hortaz, EAEk lehen postua lortu du berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean. Gastu hori % 18,1 handiagoa da 2019ko gastuarekin konparatuta, Estatuan erregistratutako % 18,5eko igoera baino txikiagoa, ikasle bakoitzeko gastua 6.392 eurokoa izan baitzen. Horrela, ikasle bakoitzeko gastua Estatuko batezbestekoa baino % 30,6 handiagoa izan zen EAEn.

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa 11.880 eurokoa izan zen EAEn 2022. urtean eta, hortaz, gure erkidegoak du, berriz ere, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Gastu hori % 19,5 handiagoa da 2019koarekin alderatuta, Estatuan erregistratutako % 18,4ko igoera baino handiagoa, ikasle bakoitzeko gastua 7.384 eurokoa izan baitzen ikastetxe publikoan. Horrela, EAEko ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko gastua Estatuko batezbestekoa baino % 60,9 handiagoa izan zen.

- Hezkuntza-erakundeetako ikasle bakoitzeko gastua (eurotan, EAP erabiliz bihurtuta). Nazioarteko konparazioa.
Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa
Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan gastu publikoa nahiz pribatua eta lanerako prestakuntza hartzen ditu kontuan, eta eurotan kalkulatuta dago (EAP erabiliz bihurtuta). Hezkuntza-maila guztiei erreparatzen zaie, salbu eta lehen haurtzaroko hezkuntza-garapenari (Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa).

EUROSTATen arabera, 2021ean, ikasle bakoitzeko gastua 7.554 eurokoa izan zen estatuan, hezkuntza-erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 8.429 eurokoa erakunde publikoetan. Berriz ere, bi gastuak estatu kide gehienetakoan azpitik daude.

Beste hezkuntza-adierazle batzuk:

- Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, EAEn, 2023an, 25 eta 65 urte arteko biztanleriaren % 18,2k hartu zuen parte prestakuntza-jardueraren batean (2021ean, % 16,9k). Horrela, EAE da ratio handiena duen bigarren autonomia-erkidegoa, Kantabriaren (% 18,4) atzetik. Orobat, EAE EB27ko batezbestekoaren gainetik dago (% 12,8) baina oraindik Europa iparraldeko herrialdeetako parte-hartze ratioetatik urrun: Suedia (% 38,8), Danimarka (% 30,5), Herbehereak (% 26,4) eta Finlandia (% 26,1). Lurralde gehienetan (EBko estatuetan eta autonomia-erkidegoetan) emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da. EAEn, % 21 eta % 19,2, hain zuzen ere, 2023an.

- Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza: ikasbide-hizkuntza gisa atzerriko hizkuntza bat erabiltzea.

2021-2022 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako EAEko ikasleen % 30ek ikasbide-hizkuntza gisa atzerriko hizkuntza bat erabiltzen duen hezkuntza-esperientziaren batean parte hartu zuen, Estatuko % 46,6ko batez bestekoaren azpitik. Hala bada, gure erkidegoa hamabosgarren postuan dago autonomia-erkidegoen sailkapenean. DBHn, ikasleen % 35,7k hartzen dute parte esperientzia horietan. Estatuko batezbestekoa % 36,4 da, eta, hala, EAE bosgarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean. Oro har, ingelesa da ikasbide-hizkuntza nagusia, eta Estatu osoko datuekin, itunpeko ikastetxeek dituzte programa horietako ikasleen ehuneko handienak.

- Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea

EAEn hezkuntza eta prestakuntza goiz uzten dutenen tasa, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren datuei jarraikiz, % 6,7koa izan zen 2023an, % 9ko helburuaren eta Estatuko batezbestekoaren (% 13,7) azpitik. Nafarroan baino ez dago ratio txikiagoa (% 6,5). EB27ko batezbestekoa % 9,5koa da. Sexuaren arabera, uzte-tasa txikiagoa da oraindik ere emakumeen artean gizonen artean baino. EAEn, 2023an, emakumeen tasa gizonena baino 1,7 puntu txikiagoa da (% 5,8 eta % 7,5, hurrenez hurren), baina emakumeen aldeko arrakala murriztu egin da, duela 10 urtekoarekin (5,1 puntu) alderatuta.

- Goi-mailako ikasketetako titulua dutenen ehunekoa gazteen artean (25-34 urte)

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, 2023an, goi-mailako hezkuntzako titulua duten 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa % 67,6koa da EAEn, % 63,5koa gizonen artean eta % 71,9koa emakumeen artean. Ratio horiek Estatuko batezbestekoak baino handiagoak dira (% 52; gizonen datua % 46,1 da, eta emakumeena % 58), eta Europako helburuaren (% 45) oso gaineratik daude. Alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen artean eta kopurua handiagoa da emakumeen kasuan. Berriz ere, gure erkidegoak du Estatuko ratorik handiena, eta % 8,2 igo da 2018. eta 2023. urteen artean.

- 25 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu- eta langabezia-tasak hezkuntza-mailaren arabera

Enplegu-tasek gora egiten dute lortutako prestakuntza-mailarekin. Hala, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren datuei erreparatuta, EAEn, 2023an, % 63,1koa da Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherako ikasketak soilik dituen 25-64 urteko biztanleria aktiboaren ehunekoa. Ratio hori % 74,2ra iristen da Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak izanez gero, eta % 86,2ra goi-mailako ikasketak izanez gero. Horrela, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen taldeak soilik du batezbestekoa baino enplegu-tasa handiagoa (% 86,2 vs % 78,4).

Bestalde, 25-64 urteko biztanleria aktiboaren % 6,7 langabezian dago. Tasa hori % 11,4ra heltzen da Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherako ikasketak dituztenak soilik hartzen baditugu kontuan. Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako maila dutenen langabezia-tasa ere batezbestekoaren gaineratik dago argi eta garbi; % 9koa da. Langabezia-tasa txikiena (% 4,4) goi-mailako hezkuntza duen biztanleriarena da, batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa (% 6,7).

- Nazioartekotzeko unibertsitate-adierazleak

2022-2023 ikasturtean nazioarteko 4.154 ikasle sartu ziren EAEko unibertsitaterean batean, hau da, nazioarteko ikasleak ikasle guztien % 6,8 izan ziren (Estatuko unibertsitate-sistema osoko % 10,5). Bi ratioek gora egin dute aurreko ikasturtearekin alderatuta. EAEn, ikasleen % 62,8 unibertsitate publikoan matrikulatu zen eta % 37,2a, berriz, pribatuan. Sexuaren arabera banatuta, guztizkoaren % 55,3 emakumeak izan ziren eta % 44,7a gizonak.

Bestalde, 2022-2023 ikasturtean, 4.440 ikasle atera ziren EAEtik mugikortasun-programa baten bidez, hots, ikasle guztien % 7,8, eta Estatuko unibertsitate-sistema osoan, berriz, % 3,5. EAEtik irten zirenetatik, % 41,1 unibertsitate

publikotik irten ziren eta % 58,9a unibertsitate pribatu batetik. Sexuari dagokionez, % 55,1 emakumeak ziren eta % 44,9a gizonak.

- Shanghaiko Unibertsitatearen rankinga

2024. urtean, Estatuko 9 unibertsitate daude munduko 500 onenen artean. 200 onenen artean Bartzelonako Unibertsitatea baino ez dago. 300 onenen artean dago, Bartzelonako Unibertsitateaz gain, Granadako Unibertsitatea. 400 onenen artean, aurrekoaz gain, honako hauek ageri dira: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Granadako Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Pompeu Fabra Unibertsitatea eta EHU. TOP 500 sailkapenean, aurrekoaz gain, Sevillako Unibertsitatea eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoa ageri dira.

Ondorioz, EHUK hobera egin du rankingean, eta 400 onenen taldean dago, 500 onenen taldean beharrean. Hauek dira EHUk kokapen onena duten diziplinak 2024an: Kimika, Nanozientzia eta Nanoteknologia, Ingeniaritza Zibila, Ingeniaritza Kimikoa, Materialen Zientzia eta Ingeniaritza, eta Energia Zientzia eta Ingeniaritza.

VI.2. KULTURA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

Kultura

Kultura eta Kirol Ministerioaren *Kultura Estatistiken Urtekarien* datuen arabera, 2019ra arte, **kultura-ohituratzat** ekipamenduak bisitatzea, liburuak irakurtzea, liburutegietara, antzokietara joatea... zuten 15 urtetik gorako pertsonen ehunekoa handiagoa zen EAEn Estatuan baino, eta joera gero eta handiagoa zen. **Praktika aktiboetan**, aldiz, ratioak handiagoak izan ohi ziren Estatuan. Hala ere, COVIDak eragindako krisiak desberdin eragin zien EAEko eta Estatuko biztanleen kultura-ohiturei; izan ere, bi kasuetan ohitura bakoitza duen biztanleriaren ehunekoak behera egin bazuen ere, EAEn beherakada handiagoa izan zen Estatuan baino. Memoria Sozioekonomikoaren kapitulu honen itxieran, 2024ko emaitzen aurrerapena baino ez dago eskuragarri Estatu osorako, eta ez dago autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik. Horrek erakusten du suspertzen ari dela 2022rako aurreikusitako kultura-partaidetzaren zifrekin alderatuta, eta, batzuetan, COVID krisiaren aurreko zifrak gainditzen ari dela.

Jarduera ekonomiko nagusia kultura izan zuten **enpresen** kopurua % 4,6 jaitsi zen EAEn 2022 eta 2023 artean; guztira, 9.164 geratu ziren. **Enpleguak**³⁹ % 12,6 egin zuen behera, 39,7 mila pertsonatik 34,7 milara. Estatuan, aldi berean, enpresa-kopurua % 4,6 murriztu zen, baina enplegua % 4 handitu zen. EAEn kultura-enpresetan lan egiten duten 34,7 mila lagun horiek EAEko enplegu osoaren % 3,6 osatzen dute, Estatuko batezbestekoa (% 3,4) baino ratio handiagoa.

Kulturako finantzaketari eta gastu publikoari dagokionez, honako hau dugu:

- Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera:
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kulturaren likidatutako gastua % 7,2 hazi zen 2021etik 2022ra. Gastu hori gure erkidegoaren BPGd-aren % 0,19 da eta, beraz, autonomia-erkidego guztien batez besteko ratioaren (% 0,11) gainetik dago. EAEko biztanle bakoitzeko gastua 70,2 eurokoa da, 2021ean baino 4,7 euro gehiago, eta kopuru hori Estatuko batez bestekoa (31,6 €) baino handiagoa da.

2023an, EAEko familiek kultura-ondasun eta -zerbitzuetan egindako gastua 530,4 milioi eurokoa izan zen; beraz, % 7ko hazkundea izan zuen. Gastu hori EAEko ondasun- eta zerbitzu-gastu osoaren % 1,5 da, autonomia-erkidego guztietako batezbestekoa baino txikiagoa (% 1,8).

³⁹ Enpleguari dagokionez, kontuan izan behar da enplegu-etaldia duen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) duten pertsonak landuntzat jotzen direla biztanleria aktiboaren inkestan, eta hori bereziki aintzat hartzekoa da 2020. eta 2021. urteetako datuei dagokienez.

Etxe bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE hamargarren lekuan dago autonomia-erkidegoen rankingean, 562,2 euroekin. Pertsonako batez besteko gastuan, aldiz, bederatzigarren postuan dago, 240,9 euroekin.

Gastu-taldeari dagokionez (liburuak eta aldizkako argitalpenak; kultura-zerbitzuak; ikus-entzunezko eta informazioaren tratamendurako euskarriak, ekipoak eta osagarriak; eta telefonia mugikorra eta Internetekin lotutako zerbitzuak), hau dugu:

- Etxe bakoitzeko, EAEn gastatutako 562,2 euroetatik % 37,8 telefonia mugikorrera eta Internetekin lotutako zerbitzuetarako erabili zen; % 29,8 informazioaren tratamendurako eta ikus-entzunezko euskarri, ekipo eta osagarrietarako; % 19,1 kultura-zerbitzuetarako; eta % 13,3 liburu eta aldizkako argitalpenetarako.
- Pertsonako, EAEn gastatutako 240,9 euroetatik % 25,8 ikus-entzunezko euskarri, ekipo eta osagarrietarako eta informazioaren tratamendurako erabili zen, % 25,4 liburu eta aldizkako argitalpenetarako, % 25,4 telefonia mugikorrerako eta % 23,3 kultura-zerbitzuetarako.
- EAEko Kulturako Finantzaketa eta Gastu Publikoaren Estatistikako datuen arabera:

EAEko administrazio publikoek kulturaren likidatutako gastua, haien arteko bateratze-ekitaldirik gabe, 652,8 milioi eurokoa izan zen 2022an. Gastu oso horrek % 25,9ko igoera dakar 2020. urtearekin alderatuta, eta % 16,9koa 2018. urtearekin alderatuta. Kulturako gastu likidatuaren % 42,4 udalei dagokie (277 milioi euro); % 26,8 erakunde autonomoi, sozietate publikoei eta erakunde publikoen mendeko fundazioei (174,9 milioi euro); % 15,6 Eusko Jaurlaritzari (101,6 milioi euro); eta % 15,2 foru-aldundiei (99,3 milioi euro).

Administrazio publiko guztiek berreskuratu dute pandemiak murriztu zuen kultura-gastua, eta aurreko bi edizioetan baino balio handiagoak lortu dituzte.

2020ko datuekin alderatuta, hazkunderik handiena foru-aldundietan izan da (+% 34): 73,9 milioi eurotik 99,3 milioi eurora pasatu da gastua. Udaletan % 31 igo da aurreko edizioarekin alderatuta, 211,4 milioi eurotik 277 eurora, pandemia aurreko balioak gaindituta (2018ko datuekin alderatuta, % 15 igo da kultura-gastua).

Gastu horren *xedeari edo kultura-esparruari* dagokionez, arteekin eta kultura-industriekin lotutako jardueretarako gastua nabarmen zuten da: Eusko Jaurlaritzaren % 59,7tik udalen % 69,7ra bitarteko pisua du, eta % 67ra iristen da erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan. Aitzitik, foru-aldundietan ondarrera bideratutako gastua gailentzen da: kultura-esparru horren pisua % 58,9koa izan zen 2022. urtean. Jaietara eta herri-kulturara eta kultura-zuzendaritza eta -zerbitzuetara bideratutako gastuaren pisu erlatiboa txikiagoa da administrazio guztietan.

Administrazio-motaren arabera, eta 2020 eta 2022 arteko gastuaren analisi ebolutiboa eginda, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, ondarrera bideratutako gastua handitu da batez ere: 25,7 milioi eurotik 38,4 milioi eurora igaro da (+% 49,4). Arteetara eta industrietara ere bideratu da gastu handiagoa: 50,5 milioi eurotik 60,7 milioi eurora (+% 20,2). Bi kultura-eremu horien kasuan, estatistika hasi zenetik gastu-zifra handienak lortu dira.

Foru-aldundietan ere antzera gertatu da: ondare-gastua handitu egin da (+% 37,6: 42,6 milioi eurotik 58,5 milioi eurora), baita arte eta industrien gastua ere (+% 30,4: 26,3 milioi eurotik 34,3 milioira).

Udalen kasuan azpimarratzekoa da jaietan eta herri-kulturaren egindako gastua berreskuratu dela. Pandemiaren ondorioz, 2020an, gastu hori % 67 murriztu zen, 9 milioi euroraino. 2022an, jaietako gastua 30,4 milioi euroraino handitu da. Kopuru horrek 2018an jaietara bideratutako gastua gainditzeko du. Zifra absolutuetan, arteen eta industrien arloak egin du gora gehien 2020ko datuekin alderatuta: udalek 44 milioi euro gehiago gastatu dituzte. Jaiei kasuan bezala, pandemiaren ondorioz esparru horretan galdutako gastua neurri handiagoan berreskuratu da.

Erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan joera antzekoa da. Jaietarako eta herri-kulturarako gastua nabarmen handitu da: 2,7 milioi eurotik 5,4 milioi eurora igo da (% 100eko igoera), eta arteetarako eta industrietarako gastua 90,9 milioi eurotik 117 milioi eurora igo da (% 28,7ko igoera).

Hizkuntza-aniztasuna

- **Biztanleen euskara-mailari dagokionez:** EUSTATen datuen arabera, 2016 eta 2021 artean, euskaldunen (euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duten pertsonak) eta *ia-euskaldunen* proportzioa, hurrenez hurren, % 42,2tik % 43,3ra (+% 1,1 puntu) eta % 18,5etik % 19,1era (+% 0,6 puntu) igo da, *erdaldunen* kategoriaren kaltetan (% 1,7 puntu jaitsi da).

2021ean, biztanle euskaldunen proportziorik handiena % 90,5 da 10-14 urte bitartean eta txikiena % 22,1 70 urtetik aurrera. Oro har, euskararen ezagutzak beheranzko joera du adinaren arabera.. Hala, 30 urtetik beherako biztanleen artean, euskaldunak % 70 baino gehiago dira, eta proportzio horren azpitik daude euskara sustatzeko aurrekontu publikoetako pertsona-taldeak, jarduketa-eremuen eta erakundeen arabera.

- EAEko administrazio publikoek euskara sustatzeko **likidatutako aurrekontu publikoei** dagokienez, EUSTATen datuen arabera, 2022an zenbatekoa 175.055,6 milioi eurokoa izan zen. % 59,4 Eusko Jaurlaritzari dagokio, % 23,4 5.000 biztanletik gorako udalerriei (hiriburuak sartu gabe) eta % 5,8 hiru hiriburuei (% 2,6 Gasteizi, % 1,7 Donostiari eta % 1,5 Bilbori). Hiruretan diru gutxien jarri zuen hiriburua, biztanle gehien zituena izanik, Bilbo izan zen. Foru-aldundien aurrekontua, guztira, 19.792,1 milioi eurokoa izan zen (kopuru osoaren % 11,3: % 5,5 Bizkaian, % 4,3 Gipuzkoan eta % 1,5 Araban).

2020tik 2022ra arteko alderaketan, entitate guztietan euskara sustatzeko aurrekontuetan igoerak izan dira, Gipuzkoako Foru Aldundian izan ezik (-% 1,4).

Ikuspegi dinamiko batetik eta 2022. eta 2008. urteak alderatuta ikusten da Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak baliabide gutxiago bideratu dituztela 2022an euskara sustatzera, 2008an bideratu zituztenak baino.

Udalak dira *ahaleginik* handiena egiten dutenak, Bilboko Udala izan ezik. Hala, 5.000 biztanletik gorako udalerriek aurrekontuaren % 2,4 euskara sustatzera bideratzen dute. Hiru hiriburuetan honako hau ikus daiteke: Gasteizek % 1,1, Donostiak % 1 eta Bilbok % 0,4. Izan ere, Bilbok du ratorik baxuena, Eusko Jaurlaritzak (aurrekontu osoaren % 0,8) eta hiru foru-aldundiek egindako ahaleginaren azpitik (Gipuzkoa: % 0,8, eta Bizkaia eta Araba: % 0,5).

Jarduketa-eremuka, 2022ko datuen arabera, zatirik handiena (likidatutako aurrekontu osoaren % 58,4) euskara jakitera eta transmititzera bideratu zen (83.360,6 milioi euro), honela banatuta: % 34 euskalduntze-alfabetatzeko (59.437,7 milioi euro), % 12,9 irakaskuntzaren arlorako (22.564,5 milioi euro) eta % 0,8 euskararen familia-transmisorako (1.358,4 milioi euro). Eusko Jaurlaritzak euskalduntze-alfabetatzeko aurrekontuaren % 76 jarri zuen, eta irakaskuntza-arlokoaren % 83,3.

Zehatzago esanda, hauek dira aurrekonturik handiena duten 5 esparruak: euskalduntze-alfabetatzea (% 34 aipatu dugun bezala), irakaskuntza (% 2,9), euskalgintzako egitura-gastuak (% 11,7), administrazioa (% 10,7) eta komunikabideak (% 9,6).

VI.3. OSASUN ETA OSASUN-SISTEMA

EUSTATen datuen arabera, EAEn, 2023an, **jaiotza-uneko bizi-itxaropena** 86,6 urtekoa izan zen emakumeentzat eta 81,2 urtekoa gizonentzat. Ondorioz, EAeko jaiotza-uneko bizi-itxaropena EB osokoa baino handiagoa da oraindik ere: 2,3 urte gehiago gizonen kasuan eta 2,4 urte emakumeen kasuan.

Bestalde, 2023ko Osasun Inkestaren (EAEI23) datuei jarraikiz, 2023ko jaiotza-uneko bizi-itxaropena 86,3 urtekoa izan zen emakumeen artean (2018ko Osasun Inkestakoa baino 2 hamarren gutxiago) eta 80,6 urtekoa gizonen artean (2018an baino 3 hamarren gehiago).

Hala ere, jaiotza-uneko bizi-itxaropenak, garatutako herrialde gehienetan, goranzko garapena izan du urteetan zehar; horrek ez dakar, ezinbestean, adierazle hori igotzen deneko bizitzako urte guztiak osasun-egoera onean bizi izandako urteak izatea, zeren eta, pertsonak gaixotasunak eta osasun-arazoak izan baititzakete eta horien ondorioz bizi-kalitatea galdu, nahiz eta horiek heriotza berehala ez eragin. Horregatik, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik erikortasun- edo desgaitasun-esperientzia aintzat hartzen dituzten osasun-adierazleak erabiltzea beharrezkoa da⁴⁰. Adierazle horien artean, desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI)⁴¹ edo osasun oneko bizi-itxaropena (OOBI)⁴² aipatu behar dira.

EAEI23ren datuen arabera, DGBIk bilakaera negatiboa du bi sexuetan, 2018arekin alderatuta. Gizonena 1,3 urte jaitsi zen, eta emakumeena 1,5 urte. Desgaitasunarekin bizitako urteak areagotu egin ziren bi sexuetan: 1,2 urte gizonetan eta urtebete emakumeetan. Bizi-itxaropen osoa, desgaitasunik gabekoa eta desgaitasunarekin bizitako urteen kopurua handiagoak izan ziren emakumeen artean gizonen artean baino.

EAEn, 2023ko EAeko hilkortasunari buruzko txostenean jasotako datuei erreparatuz¹, **adinaren arabera Europako populazio estandarrera doitutako 2023ko hilkortasun-tasa** 742,5 izan zen 100.000 biztanleko (569,7 emakumeentzat eta 994,0 gizonentzat). Estatuan, Osasun Ministerioaren 2023ko Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txosteneko datuen arabera, 2022an, adinaren arabera Europako populazio estandarrera doitutako hilkortasun-tasa 840,9 heriotzakoa izan zen 100.000 biztanleko (668,1 emakumeen artean eta 1.065,2 gizonen artean). 2020an baino kopuru txikiagoa da, eta 2019an baino handiagoa.

Bestalde, EUSTATen Heriotzen Estatistikak erakusten duenez, 2022tik 2023ra bitartean, heriotzen kopurua 24.194tik 22.311ra jaitsi zen EAEn (–% 7,8). % 49,5 gizonak izan ziren eta % 50,5 emakumeak. 2023an hildako pertsonen batez besteko adina 81,5 urtekoa izan zen, eta hamar urte lehenago, 2013n, 78,8 urtekoa; hau da, 2,7 urteko igoera izan da azken hamarkadan.

Heriotza-kausi helduta, lehenik tumoreak daude (guztizkoaren % 28), bigarrenik zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (% 23,8) eta hirugarrenik arnas sistemako gaixotasunak (% 7,4).

2023ko EAeko hilkortasunari buruzko txostenean jasotako datuen arabera, Eutanasiaren Legea (martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoa) indarrean jarri zenetik, EAEn 84 egoiliar hil dira eutanasia-prozeduraren bidez. Batez besteko adina 74,6 urtekoa izan zen emakumeen artean eta 68,2 urtekoa gizonen artean. Eutanasia egin zitzaizen pertsonen artean tumoreak dira kausa ohikoena, eta, ondoren, nerbio-sistemako gaixotasunak.

Hilkortasun goiztiarrari dagokionez, emakumeen artean, kausa espezifiko hauek galarazi dituzte bizitza-urte potentzial gehien: bularreko tumore gaiztoa eta trakea, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa; ondoren datoz, maiztasun-ordenaren arabera, suizidioak eta autolesioak, gaixotasun zerebrobaskularrak, obulutegiko tumore gaiztoa, pankreakoa eta entzefalokoa. Gizonen artean, hilkortasun goiztiarra gehienbat trakea, bronkio eta biriketako tumore gaiztoek eta

⁴⁰ Desgaitasuna iraupen luzeko muga da, edozein osasun-arazo kronikoren bigarren mailakoa. Jarduerak egitea edo jarduerak egiteko gaitasuna izatea da, osasun fisiko ona duten pertsonentzat ohikoak direnak, hain zuzen ere.

⁴¹ Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI) biztanleriaren osasunaren adierazle sintetiko bat da, hilkortasunaren datuek emandako ikuspegia desgaitasunarekin konbinatzen duena.

⁴² Osasun oneko bizi-itxaropenak (OOBI), x adinean, x adineko pertsona horri oraindik osasun onarekin (funtzio mugarik edo desgaitasunik gabe) bizitzeko gelditzen zaion urte kopuruaren batezbestekoa adierazten du.

kardiopatia iskemikoak eragin zuten; ondoren, suizidioek eta autolesioek, trafiko-istripuek, entzefaloko tumore gaiztoek, drogek eragindako istripuzko intoxikazioek eta pankreako tumore gaiztoek.

Suizidioen eta autolesioen ildotik, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren datuei erreparatuz gero, ahalegin autolitikoak eta autolesioak ageriko bihurtzen ari dira, bereziki gazteen artean.

Ospitaleko erikortasunari dagokionez, EUSTATen arabera, 2023an EAEko ospitaleek 248.650 ospitalizazio zenbatu zituzten, aurreko urtean baino % 2,1 gehiago, alegia, Estatu osoaren % 5,1. Aurreko urteko ehuneko bera da hori. EAEko arreten % 83,6 ospitale publikoetan eman ziren; Estatuko batezbestekoa (% 73) baino ehuneko 10,6 puntu gehiago da hori, eta 17 autonomia-erkidegoetatik 11ren aurretik kokatzen da. Tartean daude Katalunia (% 51,8), Madrilgo Erkidegoa (% 66,3) eta Kanariak (% 69,9). Horiek, gainera, Estatuko batezbestekoa baino datu txikiagoak dituzte arreta publikoari dagokionez. EAEn, 11.297 ospitalizazio izan ziren 100.000 biztanleko, hau da, Estatuko batezbestekoaren (10.065) gainetik geratu zen, eta ospitalizazio-tasa handienak izan zituen hirugarren autonomia-erkidegoa izan zen, Kataluniaren (11.521) eta Asturiasko Printzerriaren (11.583) atzetik. Bestela esanda, EAE ospitaleko erikortasun-tasarik altuenak dituzten autonomia-erkidegoen artean dago Estatuan.

Ospitalizazioagatiko batez besteko egonaldia 8 egunekoa izan zen (8,1 Estatuan), eta luzeagoa izan zen gizonen artean (8,4 egun) emakumeen artean baino (7,6 egun); biak ala biak Estatuko batezbestekoaren azpitik kokatu ziren (8,8 eta 7,5 egun, hurrenez hurren). Nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen taldea bereizi egiten da gainerako gaixotasun-taldeetatik, patologia batzuen ospitaleko egonaldiaren iraupen luzeagatik (eskizofrenia, nahasmendu eskizotipikoak eta delirio-nahasmenduak). Talde hori bakarrik egonaldi guztien % 28,7 izan zen, eta batez besteko egonaldi-egunak 75,5 izan ziren (80,8 gizonen kasuan eta 69,9 emakumeen kasuan).

Haurdunaldia borondatez etetearen (HBE) aldetik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, 2023an 4.223 HBE egin ziren EAEn (4.158 emakume EAEn bizi ziren, eta 65 beste autonomia-erkidego batzuetan). Bestalde, EAEn bizi zirenen HBE kopurua 4.225 izan zen (4.158 EAEko zentroetan egin ziren, eta 67 beste autonomia-erkidego batzuetako zentroetan). Gure erkidegoan bizi diren adin ugalkorreko (15-44 urte) 1.000 emakumeko HBE kopurua 11,9koa izan zen. Ratio horrek goranzko joera du, eta pandemia-urteetan soilik eten zen joera hori. Tasa Estatuko batezbestekoa (12,2) baino txikiagoa da.

Osasun mentalari dagokionez, EAEOI23ren datuen arabera, **antsietate- eta depresio-sintomen** prebalentziak (osasun-ezaugarri edo -arazo bat duten pertsonen proportzioa), adinaren arabera estandarizatuta, nabarmen okerrera egin du bi sexuetan 2018. eta 2023. urteen artean. Hala, emakumeen artean prebalentzia % 16,4tik % 26,5era igo zen, eta gizonen artean, berriz, % 9,6tik % 17,7ra. Prebalentzia horrek gora egiten du adinarekin batera, eta ehunekoa handiagoa da emakumeen artean adin-talde guztietan. Hala ere, ezin dugunez alde batera utzi, 2022ko memoria sozioekonomikoan adierazi genuen bezala, 2019-2021 hirurtekoan, Osakidetzako osasun mentaleko sareak artatutako 18 urtera arteko pertsonen kopurua % 15,8 igo zen, eta lehen kontsulten kopurua, aldiz, % 26,9. Horrek agerian utzi zuen pandemiak eragin argia izan zuela alderdi emozionalean, ez soilik gazteengan, baina baita haiengan ere.

Psikofarmakoen kontsumoari helduta, **lasaigarrien eta/edo somniferoen** kontsumoa, **opioideen** kontsumoa eta **legez kanpoko zenbait substantziaren kontsumoa** aztertuko ditugu.

- Lasaigarrien eta/edo somniferoen kontsumoaren prebalentziak gora egiten jarraitzen du, eta ez dira beti medikuak aginduta kontsumitzen. Euskadiko Adikzioei buruzko 2023ko Inkestaren arabera, 2023an, 15 eta 74 urte bitarteko EAEko biztanleen % 27k kontsumitu dituzte noizbait lasaigarriak edo somniferoak. Ehuneko hori, 2017aren aldean bi hamarren jaitsi bada ere, 2012an (% 19,7) eta 2010ean (% 21) erregistratutako ratioak baino handiagoa da.

12 hilabeteetako edo azken 30 egunetako kontsumoaren inguruan galdetuta, bilakaera-zifrek goranzko joera argia erakusten dute. Hala, 2010 eta 2023 artean, azken 12 hilabeteetan lasaigarriak edo somniferoak kontsumitu dituztela dioten 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen ehunekoa % 11,4tik % 15era igo da, eta azken 30 egunetan kontsumitu

dutela diotenen ehunekoa, berriz, % 8,4tik % 10,8ra. Sexuaren arabera bereiziz gero, kontsumoa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Modu berean, azken 30 egunetan errezetarik gabe edo medikoa ez den erabilerarako kontsumitu dituztela dioten biztanleen ehunekoa % 1,91 izan zen 2023an (2010ean % 1,85), eta azken 12 hilabeteetan kontsumitu dituztela diotenena % 0,46 (2010ean % 0,77).

- EAEko 15 eta 74 urte arteko biztanleen artean **analgesiko opioideen** (errezetarekin edo gabe) kontsumoaren prebalentzia % 4,2koa da, Euskadiko Adikzioei buruzko 2023ko Inkestaren datuen arabera. Emakumeen kontsumo-ratioa (errezetarekin edo gabe) gizonena baino handiagoa da (% 5,2 vs % 3,2). Errezetarik gabe kontsumitzen denean, prebalentzia askoz txikiagoa da (% 0,06), eta handiagoa da gizonentzat emakumeentzat baino (% 0,1 vs % 0,04).

Kontsumo-prebalentzia handienak dituzten analgesiko opioazeoak tramadola (% 4,7), morfina (% 3,4), kodeina (% 1,4) eta fentaniloa (% 0,3) dira.

Adin-taldeen arabera, kontsumoa “edozein kontsumo: errezetarekin eta errezetarik gabe” denean, kontsumoaren prebalentziak gora egiten du adinak gora egin ahala. Baina kontsumoa “errezetarik gabe edo medikoa ez den erabilerarako” denean, kontsumo-prebalentziarik handienak biztanleria-talde gazteenek dituzte; analgesiko opioideen kasuan, prebalentzia nulua da 35 urtetik gorako biztanleen artean.

Bai lasaigarrien eta somniferoen kasuan, bai analgesiko opioideen kasuan, errezetarik gabe eskuratzeko modua senide edo ezagun baten bitartez da batez ere.

- 15 eta 74 urte arteko EAEko biztanleen artean, **legez kanpoko substantzien kontsumoaren** prebalentziak (“bizitzan noizbait kontsumitua”) gora egin du 2017tik 2023ra bitartean, aztertutako substantzia guztietan, salbu eta heroinaren, beste opioazeo batzuen eta perretxiko haluzinogenoen kasuetan; horien prebalentziak behera egin du. Euskadiko Adikzioei buruzko 2023ko Inkestaren arabera datuak dira horiek.

Bestalde, legez kanpoko substantzien kontsumoaren prebalentziak bilakaera hau izan du EAEko 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean, azken 30 egunetan, 2017 eta 2023 artean:

- Gora egiten du MDMA eta antzekoetan, estasian, azidoan, LSDan, kokaina-hautsean, inhalagarrietan, perretxiko haluzinogenoetan eta ketaminan.
- Behera egiten du speedan, anfetaminetan eta beste opioazeo batzuetan.
- Oinarrian nulua izaten jarraitzen du cracka eta heroinaren kasuan.

Kontsumitzen hasteko batez besteko adina 19,8 eta 21,7 urte bitartekoa da. Ez dago alde handirik sexuaren arabera; izan ere, substantzia batzuen kasuan gizonak dira gazteagoak eta beste batzuetan emakumeak.

Jarraian, Osakidetzaren inguruan, **baliabideen eta asistentzia-jardueraren adierazle** batzuk azalduko ditugu, Osakidetzaren jardura-memoretatik abiatuta.

2023an, **Osakidetzaren egiturazko plantilla** 31.105 pertsonak osatzen zuten (+% 3,1 aurreko urtearekin alderatuta). Zuzendaritzako karguen kopurua egonkor mantendu zen (94 pertsona). Medikuek eta bestelako fakultatiboek % 5,3 egin zuten gora (7.810 pertsona), erizainek eta bestelako diplomadunek % 0,3 egin zuten gora (9.875 pertsona) eta beste lanbide-talde batzuetako langileek % 4 (13.326 pertsona). Emakumeak plantillaren % 76,2 dira, baita gehiengoa ere lanpostu guztietan, zuzendaritzako karguetan izan ezik (% 45,7).

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak informazioaren arabera (EH Bildu taldeak egindako legebiltzar-galderari Osasun Sailak emandako erantzun gisa jakinarazia), 2023ko abenduan 45.361 pertsonak osatzen zuten Osakidetzako plantilla; horietatik % 86,8 lanaldi osoan zegoen, % 5 lanaldi erdian, % 2,1 lanaldiaren herenean eta gainerako % 6,1ak beste lanaldi motaren

bat zuen. Pertsona bakoitzeko batez besteko nomina kopurua 1,08koa zen. **Asistentzia-jarduera, ospitalizazioa eta interbentzioak** 2023an, eta 2022arekiko aldaketa:

- 2023an, Osakidetzako lehen mailako arretako profesionalak (familiako medikuntza, pediatria, erizaintza, emaginak eta odontologia) 18,9 milioi kontsulta artatu zituzten, 2022an baino % 7,6 gutxiago. Bestalde, ospitaleko arretako profesionalak ospitaleko 7,7 milioi kontsulta artatu zituzten, 2022an baino % 8,1 gehiago.

2023ko datuak 2019koekin konparatuz gero (odontologia-datuak kenduta, 2019ko memoriak ez dituelako jasotzen), ikusten da lehen mailako arretako profesionalak (familiako medikuntza, pediatria, erizaintza eta emaginak) % 7,3 kontsulta gehiago artatu zituztela 2022an 2019an baino. Bestalde, ospitaleko arretako profesionalak 2019an baino % 54,2 kontsulta gehiago artatu zituzten.

- Profil profesionalaren arabera, familiako medikuntzako profesionalak 9,8 milioi kontsulta artatu zituzten (–% 5,4), pediatriakoek 1,5 milioi (–% 6,6), erizaintzakoek 6,9 milioi (–% 11,4) eta emaginek 0,6 milioi (–% 0,1).

Ostera, ospitaleetako kontsultek % 8,1 egin zuten gora, 7,7 milioi izan ziren guztira.

- Telefono bidezko kontsulten kopuruak behera egin zuen lehen mailako arretan (–% 12,4), baina gora egin zuen ospitaleko arretan (+% 34,1).
- Lehen mailako arretako telefono bidezko kontsulten ratioa lehen mailako arretako kontsulta guztien % 35,9 izan zen, hots, 2022ko ratioa baino 2 hamarren gutxiago. Bestalde, ospitaleko arretako telefono bidezko kontsulten ratioa ospitaleko arretako kontsulta guztien % 22,7 izan zen, hau da, 2022ko ratioa baino 4,4 hamarren gehiago.
- Ospitalizazioko altak⁴³ % 3,5 igo ziren akutuen ospitaleetan eta % 3,9 egonaldi luze eta ertainekoetan; etxeke ospitalizazioan, berriz, % 5,1 jaitsi ziren. Batez besteko egonaldia⁴⁴ apur bat laburtu zen akutuen eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, eta etxeke ospitalizazioan, aldiz, luzatu egin zen.

Eguneko ospitale medikoak 274.000 saio baino gehiago zenbatu zituen, aurreko urtean baino % 5 gehiago.

- Ebakuntza kirurgikoek % 4,9 egin zuten gora, eta horrek esan nahi du jarduera leheneratu egin zela.
- Prozedura ez-kirurgikoek⁴⁵ eta konplexutasun handikoek goranzko joera izaten jarraitzen dute (+% 8,2). Oftalmologiaren arloan egindakoak dira nagusi (guztizkoaren % 55, % 8,6ko hazkundearekin).

2023ko **itxarote-zerrendak** eta 2022arekiko aldakuntza:

- **Kirurgiako itxarote-zerrendak:** Osakidetzaren datuen arabera, aztertutako hiru adierazleek behera egin zuten, baina ez ziren iritsi pandemiaren aurretik erregistratutako balioetara. Hala, zerrendetako pazienteen kopurua 23.647tik 22.008ra igaro zen (10,2tik 9,5era osasun-txartela duten mila biztanleko), atzerapen-egunen batez besteko kopurua 73tik 62,3ra, eta ebakuntza egiteko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten pazienteen ehunekoa % 28,9tik % 22,4ra jaitsi zen.

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren arabera, 2023ko abenduaren 31ko datuekin, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko kirurgiako itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn Estatuko batezbestekoa baino (9,54 vs 18,11). EAEk du ratio txikiena

⁴³ Alta emateak esan nahi du pazienteak, ospitaleratu, behatu edo tratatu ondoren, ospitea utzi duela sendatu delako, hil egin delako edo beste arrazoi batzuegatik.

⁴⁴ Batez besteko egonaldia patologiaren eta artatutako paziente motaren arabera adierazlea da, eta horren luzeran eragina du, halaber, ospitalizazio-erregimenean arreta jasotzetik modu ambulatorioan konpontzera igaro diren tratamenduen proportzioak. Nolanahi ere, batez besteko egonaldia efizientziako adierazletzat hartzen da, jardunbide kliniko erabakigarriaren garapenarekin lotutakoa. Hala, batez besteko egonaldia murrizteak, txandakatze-indizea haztearekin batera, ospitalizazio arloko produktibitatea handiagoa dela adierazten du.

⁴⁵ Ebakuntza-gelatik kanpo egiten dira eta ez dakarte ospitalizaziorik.

autonomia-erkidegoen rankingean. Ebakuntza egiteko 60 egun baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoa % 2,5ekoa da EAEn, Estatuko batezbestekoa (% 24,3) baino txikiagoa. EAEk du bigarren ratorik txikiena, Madrilen atzetik (% 0,8). Itxaroten emandako batez besteko egunei dagokionez, EAE bigarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean (63 egun), Madrilen (51 egun) atzetik.

- **Kanpo-kontsultetako itxarote-zerrendak:** Osakidetzaren datuen arabera, zerrendetan zeuden pazienteen kopurua % 1,3 igo zen (aurreko urtean % 43 igo zen). 137.002 paziente izan ziren. Zerrendan paziente gehien dituzten espezialitateak oraindik ere traumatologia (24.586: +% 23), oftalmologia (16.390: +% 0,2), errehabilitazioa (13.006: +% 4,1) eta dermatologia (11.360: -% 23,3) dira, eta nabarmentzekoa da alergologian izandako hazkundera, % 57,5ekoa. Batez besteko atzerapena 68,9 egunetik 82,2 egunera luzatu zen. Hala, zerrendetan zeuden biztanleen % 62,9k hilabete baino gehiago itxaron zuen (ehuneko horrek goranzko joera du, pandemian, 2020an, soilik eteten da), eta % 37,1ak hilabete baino gutxiago itxaron zuen.

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren arabera, 2023ko abenduaren 31ko datuekin, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko kontsulten itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn Estatuko batezbestekoa baino (35,14 vs 81,47). EAEk bigarren ratio txikiena du autonomia-erkidegoen rankingean, Gaztela-Mantxaren (26,61) atzetik. Atzerapen-egunei erreparatuta, EAE bosgarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean (61 egun), Melillako hiri autonomoaren (29), Errioxaren (54), Ceutako hiri autonomoaren (58) eta Gaztela-Mantxaren (60) atzetik. Arreta jasotzeko zain 60 egunetik gora dauden hitzorduen ehunekoaren harira, ratioa EAEn % 36,3koa da, Estatuko batezbestekoa (% 53,6) baino txikiagoa. Gure autonomia-erkidegoak du bigarren ratorik txikiena, Kantabriaren (% 28,2) atzetik.

Osakidetzako osasun mentaleko sarearen jarduerak gora egin du. Hala, ospitalez kanpoko sarean, artatutako pazienteen kopurua % 0,7 igo zen 2022 eta 2023 artean, eta 109.117ra iritsi ziren. Alten kopurua % 1 igo zen; oster, egindako kontsulten eta prozeduren kopurua % 0,8 igo zen, eta 1.136.205 izatera iritsi ziren. Ospitale-mailan, alten kopurua % 4,1 igo zen 2022arekin alderatuta, 1.617 alta gehituta.

Arreta sanitario pribatuari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, EAEn diharduten aseguru libreko entitateek 525.435 pertsonari ematen zieten zerbitzua osasun-aseguru pribatu baten bidez 2023an (2021arekin alderatuta, +% 4,1), hau da, EAEko biztanleriaren % 23,9ri. Entitate horiek 398 milioi euro bildu zituzten prima gisa (% 8,7, 2021arekin alderatuta), hau da, 2023ko BPGaren % 0,43.

Kontratututako polizaren modalitatea kontuan hartuta, pertsonen % 33,9k banakako edo familiako aseguru dute, % 4,8k Estatuko Administrazio Zentraleko funtzionarioen mutualitate publikoa eta % 61,3ak bestelako aseguru kolektiboa.

Aseguratutako pertsona bakoitzeko batez besteko prima 757,5 eurokoa da. Aseguratutako pertsona bakoitzeko primarik handiena mutualitate publikoena da (1.070 €), ondoren banakako edo familiako aseguruena (900 €) eta beste kolektibo batzuen (654 €).

Jarraian, **osasun-sistemaren gastua eta finantzaketa** aztertuko ditugu.

EUSTATen Osasun Kontuaren datuei jarraikiz, EAEko **osasun-gastu arrunta**⁴⁶ 8.554,2 milioi eurokoa izan zen 2023an, BPGaren % 9,2. Ehuneko 0,1 puntu jaitsi da BPGaren gaineko ehunekoa (aurreko urtearekin alderatuta). Bestalde, biztanleko gastua % 5,4 hazi da, 3.683 eurotik 3.882 eurora.

Finantzaketa-iturriei dagokienez, 2023ko 8.554 milioi euroko gastu arruntetik 5.944,1 milioi euro (guztizkoaren % 69,5) administrazio publikoei eta nahitaezko aseguruiei dagozkie; 2022an baino % 5,5 gehiago da hori. Gainerako 2.610,1 milioi euroak (% 30,5) borondatezko osasun-aseguruiei eta etxeen zuzeneko ordainketari dagozkie; % 7,1eko hazkundera izan zuten aurreko urtearen aldean. Horrela, etxeen ordainketari eta borondatezko osasun-aseguruiei dagokien zenbatekoaren hazkundera handiagoa izan da administrazio publikoei eta nahitaezko aseguruiei dagokiena baino.

- *Administrazio publikoek eta nahitaezko aseguruiek ospitaleetako gastu arruntaren % 69,5 finantzatu zuten; gainerakoa etxeen zuzeneko ordainketen (% 25,2) eta borondatezko ordainketa-sistemen (% 5,4) artean banatu zen.*
- *Osasun-laguntza anbulatorioko gastuaren finantzaketa (mediku- eta dentista-kontsultategiak, dentistak, etab.) familiek hartu zuten beren gain % 49,5ean, eta administrazio publikoek eta nahitaezko aseguruiek % 40an. Gainerako % 1,4a borondatezko ordainketa-sistemen bidez finantzatu zen.*
- *Produktu medikoen txikizkarien eta hornitzaileen (farmaziak, produktu mediko iraunkorren hornitzaileak, etab.) gastuaren finantzaketa etxeek hartu zuten beren gain % 58an. Administrazio publikoek eta nahitaezko aseguruiek % 40,9 finantzatu zuten, eta gainerako % 1,1a borondatezko ordainketa-sistemen bidez finantzatu zen.*

Nazioarteko konparazioa eginda, EAEn, osasuneko administrazio publikoek BPGaren gainean egindako gastua % 6,5 izan zen 2022an, alegia, EB27ko batezbestekoaren (% 8,4) eta Estatuko batezbestekoaren (% 7,2) azpitik dago.

PPPko osasuneko guztizko *per capita* gastu arrunta (euro) hobea da, 3.775era iritsi baitzen EAEn; hala, EB27ko (3.685) eta zenbait herrialderen, hala nola Espainiako (2.814) eta Finlandiako (3.645) batezbestekoen gainetik jarri zen. Taularen punturik gorenean Alemania dago, 5.317rekin. Azken adierazle hori EB27ko batezbestekoaren gainetik mantendu da eskuragarri dauden urte guztietan.

EAEko administrazio publikoen guztizko gastuarekin alderatuta, osasuneko gastu publikoa % 15,8 izan zen 2022an, EB27ko batezbestekoa (% 14,7) eta Estatukoa (% 15,2) baino handiagoa.

Eusko Jaurlaritzaren 2023ko aurrekontu-likidazioak erakusten du Osasun Atalaren gastu-aurrekontua aldatu egin zela, 4.633,3 milioi eurotik 4.794,5 milioi eurora. Azkenean, Osasun Atalean egindako gastua 4.775,3 milioi eurokoa izan zen. Baliabideen ehunekoari dagokionez, lehenengo tokian geratu zen, gastu osoaren % 33,1 (programa nagusia Osakidetza egindako transferentziei dagokie) eta BPG nominalaren %5,15, aurreko urtearen antzera (% 5,17). Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa eta Farmazia programek guztizko gastu likidatu ia osoa hartzen dute (%97,8). Zehazki, Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa % 86,1 da, eta Farmazia % 11,7.

Aurrekontuan jasotako zenbateko osoaren eta benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, Osasun Atalean likidatutako gastua (4.775,3 M€) aldatutako aurrekontua (4.794,5 M€) baino txikiagoa da, eta horrek 19,2 milioi euroko beheranzko desbideratzea dakar.

Bestalde, 2024rako berariaz sanitarioak diren partiden gastuen aurrekontua 4.986,9 milioi eurokoa da (+% 7,6, 2023an hasieran aurrekontuan sartutako gastuaren aldean). Gastu hori BPG nominalaren % 5,12 da, 2023an aurrekontuen arabera erregistratutakoa baino apur bat baxuagoa.

⁴⁶ Osasun Kontuen Sisteman (System of Health Accounts-SHA 2011) argitaratutako ELGaren metodologiaren arabera kalkulatua. Osasun-GASTUAK osasunerako ondasunen eta zerbitzuen azken kontsumoa neurtzen du, hau da, edozein agente finantzatzailek egindako gastu arrunta. Gastu horren FINANTZAKETAREN barruan sartzen dira administrazio publikoak, nahitaezko osasun-aseguruak, borondatezko osasun-aseguruak eta etxeen zuzeneko ordainketa.

Osasun Ministerioaren datuen arabera, EAEn biztanle bakoitzeko osasun-gastu publikoak gora egin du 2023tik 2024ra bitarte, 2.116 eurotik 2.221 eurora biztanle bakoitzeko. Horrela, gure erkidegoa bigarren tokian dago biztanleko gehien gastatzen duten autonomia-erkidegoen rankingean, Asturiasen atzetik. Estatuko batezbestekoa 1.723 euro da biztanle bakoitzeko.

EAEko sektore publikoaren urteko aurrekontuen eta kontuen likidaziotik abiatuta egindako Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak erakusten duenez, erakundeak 3.886,5 milioi euroko gastua egin zuen 2023an. Hala, gastua % 1,1 murriztu da 2022tik 2023ra. BPG nominalaren % 4,19 da, eta ratioa 2022koa baino ehuneko 0,35 puntu txikiagoa da. Jaitsiera hori, osorik, ustiapen-gastuen jaitsieragatik gertatu da, inbertsioek % 7,1 egin baitute gora. Likidatutako guztizkoaren % 95,5 ustiapen-gastuei dagokie, eta % 4,5a inbertsioei.

Likidatutako ustiapen-gastuak 3.711 milioi eurokoak dira, hau da, % 1,4ko jaitsiera 2022ko likidazioarekin alderatuta. Langileen gastuak (soldatak eta gizarte-kotizazioak), ustiapen-gastuen % 68, 2.523 milioi euro, aurreko urtearen aldean % 2,5 jaitsi dira. Funtzionamenduko gastuak 1.183 milioi eurokoak izan dira, hau da, aurreko aldian baino % 0,9 gehiago.

Likidatutako kapitaleko gastua, esan bezala, 175,4 milioi eurokoa da, 2022an likidatutakoa baino % 7,1 handiagoa.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoaren eta 2023an benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidatutako gastua aurrekontukoa baino handiagoa da (+7,07 M€), eta inbertsioei (+9,87 M€) dagokie, ustiapen-gastuak murriztu egin baitira (-2,8 M€).

VI.4. ETXEBIZITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren “*Higiezinen salerosketa-estatistikak*” dio 2024an EAEn etxebizitzaren 23.105 **salerosketa** erregistratu zirela, 2023an baino % 13,1 gehiago eta 2014an baino % 97,6 gehiago. 2024ko salerosketa guztietatik, % 19,5 etxebizitza berriak izan ziren eta % 80,5 etxebizitza erabiliak. Hauxe da lurralde banaketa: salerosketen % 52 Bizkaian egin ziren (+% 16,4, 2023arekin alderatuta), % 32 Gipuzkoan (+% 5,1) eta % 16 Araban (+% 20,2).

Etxebizitza motari dagokionez, 2024ko laugarren hiruhilekoko salerosketen % 74,8 etxebizitza libre erabiliak dira (ehuneko -5,1 puntu 2023aren aldean), % 15,8 etxebizitza libre berriak (+4,8 puntu 2023aren aldean), % 5,3 etxebizitza babestu erabiliak (+0,7 puntu 2023aren aldean) eta gainerako % 4,1 etxebizitza babestu berriak (-0,4 2023aren aldean).

Euskadiko etxebizitzaren salerosketen **metro koadroko prezioari** dagokionez, etxebizitza librearen prezioa 3.045,2 €/m² izan da 2024an, 2023an baino % 2,9 gehiago Erabilitako etxebizitza librearen prezioa 2.994 €/m² izan da (+% 3,1 2023aren aldean), eta etxebizitza libre berriena 3.307,4 €/m² (+% 0,4). Etxebizitza babestuen metro karratuko prezioa zertxobait igotzen hasi zen 2013an, eta nabarmen jaitsi zen 2020an, 1.973,2 €/m²-ra iritsiz. 2022an (eskuragarri dagoen azken datua), prezioa % 43,4 igo zen 2021eko prezioarekin alderatuta, 2.763,2 €/m²-ra iritsita, eta azken hamarkadan izandako gehieneko prezioa erregistratu da.

EAEko **etxebizitza libre** salerosketen **batez besteko prezioa** 255.998 eurokoa izan da 2024an, aurreko urteko batezbestekoa baino % 3,6 gehiago. Lurraldeka, Bizkaian %2,8 igo dira prezioak, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, % 5,1 eta % 2,5 igo dira, hurrenez hurren Ondorioz, prezioak 291.196 euro (Gipuzkoa) eta 224.372 euro (Araba) artekoak dira, eta Bizkaia tartean dago, 241.472 euro etxebizitza bakoitzeko batez beste. Eraikitako metro karratuaren prezioan, EAEko batezbestekoa, ikusi dugun bezala, 3.045,2 €/m² da (+% 2,9, 2023koaren aldean): garestiena Gipuzkoan, 3.576,9 €/m², eta merkeena Araban, 2.296,4 €. Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 2.894,6 €/m².

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak **Alokairuaren Merkatuaren Estatistika** (AME) egiten du, EAEko alokairuaren merkatua aztertzeko. Eragiketa hori Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legetik aurrera sortutako erregistroetan gordailututako fidantzetan oinarritzen da eta, beraz, nahitaezkoa da hiri-errentamenduen kontratuak erregistratzea eta etxebizitzak alokatzeko kontratuen fidantzak gordailutzea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Jaurlaritzan duen ordezkaritza bakoitzean.

AMEk egiaztatu duenez, 2024ko irailaren 30ean (eskuragarri dagoen azken datua) alokairu libreko 87.821 kontratu zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuan (merkatuko prezioan), 2023an baino % 4,7 gehiago. Horietatik 2.885 sasoiko etxebizitzak dira, eta duten berezitasunagatik, analisi honetatik kanpo geratzen dira. Era berean, ikerketa honetan ez dira aintzat hartzen familia bakarreko etxebizitzei dagozkien 1.649 kontratuak, ohiko etxebizitza erabilera izan arren, ezaugarri bereizgarriak direla-eta, berariazko analisi bat egitea merezi baitute. Beraz, alokairu libreko 83.287 kontratutan ezarrita dago Eusko Jaurlaritzak AMEri buruz egindako txostenak aztertzen duen stocka: ohiko etxebizitzarako egoitza erabilera duten eta alokairu libreko kontratuak 2024ko irailaren 30ean indarrean zituzten eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak; 2023an urtean baino % 4,5 gehiago. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzaren % 14 Araban daude (11.683 fidantza), % 36,1 (30.063 fidantza) Gipuzkoan, eta gordailu kopuru handiena (41.541 fidantzari dagozkien % 49,9) Bizkaian dago.

2024ko hirugarren hiruhilekoan eratutako fidantzek 824,9 €-ko batez besteko errenta lortu dute, hau da, urte arteko % 3,9ko igoera. Eraikitako m² bakoitzeko prezioa kontuan hartuz gero, 2023ko hirugarren hiruhilekoan 10,5 €/m² izatetik 2024ko aldi berean 11 €/m² izatera igaro da (+% 4,8).

Etxebizitza libreen salerosketa-prezioei dagokienez, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioak etxebizitza libreen (berriak eta bigarren eskukoak) higiezinaren transakzioen batez besteko balioak kalkulatzeko Notariotza Estatistikak emandako informazioarekin, eta horrekin, **autonomia-erkidegoen** arteko konparazioak egin daitezke.

2024an EAEn saldutako etxebizitza libreen batez besteko balioa, notario erregistroetan agertzen denez, 244.446 eurokoa izan zen, 2023an baino % 4,5 gehiago eta estatuko batezbestekoa (193.719 euro) baino % 26,2 gehiago (+% 7,2). Oro har, preziorik altuenak Balearretan eta Madrilgo Erkidegoan daude, eta baxuenak Extremaduran, Gaztela-Mantxan eta Gaztela eta Leonen. Eraikuntza berriko etxebizitzak bakarrik kontuan hartzen baditugu, EAEko datua 281.979 euroraino igo zen, 2023an baino % 5,4 txikiagoa. Zifra hori (behi behineko datuekin) estatuko batezbestekoa (288.087 euro) baino pixka bat txikiagoa da, azken urtean % 7,1 igo baita. Erabilitako etxebizitzari dagokionez, EAEko batez besteko balioa, 2024an, 237.409 eurokoa da, 2023an baino % 5,7 gehiago. Estatuko datua 184.534 da (+% 7,3), beraz, bien arteko aldea da nabarmenena, % 28,7koa.

Eraikuntza-jarduerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Behatokiak dio COVID-19aren pandemia gertatu zen 2020. urtean 4.191 etxebizitza eraikitzen hasi zirela, aurreko urtean baino % 33,1 gutxiago, eta 2021ean tasa positiboetara itzuli ziren (+% 13,1), babestutako etxebizitzaren eraikuntza-kopurua berreskuratu zelako, eta joera hori 2022an mantendu zen (+% 23). 2023an datu negatiboa erregistratu da, hasitako etxebizitzaren gutzitzea % 1,8 jaitsi baita. Bilakaera hori 2024an mantendu da, % 5,1eko jaitsierarekin, hasitako etxebizitza libreen murrizketaren ondorioz (-% 8,5 2023koaren aldean), babestutako etxebizitzak % 1,4 igo baitira. Etxebizitza babestuak guttizkoarekiko duen ehunekoa hasitako etxebizitzaren % 36,9 da.

Bestalde, EAEn 2024an amaitutako etxebizitza guztiak 4.657 dira, aurreko urtean baino % 26,5 gehiago, amaitutako etxebizitza babestuen segmentuan (+% 92,9) eta libreetan (+% 1,3) izandako gorakadaren ondorioz. Zifra horien ondorioz, etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza jardueran duen partaidetzak gora egin du azken urtean, amaitutako etxebizitzaren pisua 2023ko % 27,5etik 2024ko % 42ra igaro baita.

Etxebizitzaren eskariei dagokienez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen lehenengo **etxebizitza izateko beharrari** dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestan" egiaztatu zuten, 2023an, diru-sarrerak zituzten 70.013 pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutela eta, beraz, 2021eko inkestarekin alderatuz, % 7,9ko igoera gertatu zen. Pertsona horiek behar duten etxebizitza kopuruari

dagokionez (baxuagoa da, etxebizitza banaka edo bikotean eskuratu dezaketelako), guztira 63.378 pertsona dira, bi urte lehenago baino % 9 gehiago.

Halaber, 77.369 familiak etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute, guztien % 8,4k. Hau da, % 6ko jaitsiera 2021aren aldean: urte horretan guztien % 9,1 ziren etxebizitza horiek. Badirudi datu horiek finkatu egiten dutela 2021ean hasi zen joera negatiboa, 2015-2019 urteetako gehikuntzaren ondoren. Azkenik, Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestak adierazten du, guztira, 75.620 euskal etxek behar zutela esku-hartzea 2023an birgaikuntza egiteko; hala, magnitude hori EAEko familia-etxebizitzaren parkearen % 8,2 da. Bilakaeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak behera egin zuen 2021aren aldean, bai etxeen bolumenean (-% 13,9), bai behar horren eragin erlatiboan (ehuneko -1,5 puntu) ere.

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin beharreko **finantza-ahaleginari** dagokionez, lehenik eta behin, Espainiako Jabetza, Ondasun Higiezin eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren “*Higiezin Erregistro Estatistikak*” adierazten du EAEko familiek beren etxebizitzak ordaintzeko egiten duten finantza-ahalegina, hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta soldata-kostuaren arabera neurtuta, % 29,5ekoa dela 2024ko laugarren hiruilekoan, aurreko urtean baino 0,8 puntu gehiago. Estatu osoari dagokionez, azken urteko bilakaera kontrakoa izan da, ahalegin hori batez besteko soldata-kostuaren % 32,6 baitzen 2024aren amaieran, urtebete lehenago baino 0,8 puntu gutxiago. Epe luzeagoko ikuspegitik, azken hamarkadan (2014 eta 2024 bitartean) finantza esfortzu hori 2,5 puntu handiagoa da EAEn eta 3,2 estatuan.

Bigarrenik, EINen “*Familia Aurrekontuei buruzko Inkestak*” aukera ematen du jakiteko, ECOICOP (European Classification of Individual Consumption by Purpose) gastuaren sailkapenaren lau digituko desagregaziotik abiatuta, zer gastu egiten duten familiek beren etxebizitza nagusiaren alokairua ordaintzeko, bai eta etxebizitza nagusiari jabetzan egotzitako alokairua ere (halako etxebizitza baten jabe den familiak ordainduko lukeen errenta, etxebizitza horretako maizterra balitz). Datu horiek etxe bakoitzeko batez besteko gastuari eta familia-unitatearen urteko gastuaren gaineko ehunekoari dagokienez ematen dira.

2023an, informazioa dagoen azken urtean, EAEko familiek, batez beste, 7.573,84 euro gastatu zituzten urtean ohiko etxebizitza ordaintzeko, 2022an baino % 0,4 gehiago, etxebizitza horri jabetzan egotzitako alokairua kontuan hartuta. Zenbateko hori urteko familia-gastuaren % 20,85 da (-0,43 puntu aurreko urtearen aldean). EAEko gastua, gainera, Estatuko batez bestekoa (5.458,19 €) baino % 38,8 handiagoa da, hau da, Espainiako familien gastuaren % 16,73. Alde hori aldatu egiten da etxebizitzaren alokairu-gastua kontuan hartzen badugu: EAEko familiek, batez beste, 1.159,18 euro gastatu zituzten 2023an (urteko gastuaren % 3,19) ohiko etxebizitzaren alokairuan; estatu osoan, berriz, gastu hori handiagoa da, bai kopuru absolutuetan (1.211,45 euro), bai erlatiboetan (gastu guztiaren % 3,71).

Bestalde, etxebizitzarekin lotutako alderdi delikatuetakoa bat da **hipotekak edo alokairu-errentak ordaindu ezin dituztelako** etxebizitzak galtzen dituzten familien egoera. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) Euskadiko lehen instantziako epaitegietan aurkezturiko hipoteka-betearazpenen segimendua egiten du, eta adierazi duenez, 2024an 475 betearazpen erregistratu ziren, hots, % 22,8ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. 2024an aurkezturiko betearazpenak estatuko 23.164 betearazpenen % 2,1 dira (-% 18,3, 2023arekin alderatuz).

Halaber, 2024an, EAEn, lehen instantziako epaitegiek 608 kaleratze egin zituzten, aurreko urtean baino % 2,5 gehiago, eta estatuko guztien % 2,2. Horietatik 78 hipoteka betearazpenak izan ziren (-% 41,8, 2023arekin alderatuz), 498 etxegabetze prozedurak (-% 3,9) eta 32 beste prozedura batzuk (-% 60).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak “**EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta**” egiten du, gure Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzaren parkearen dimentsioa eta kudeatzeko posibilitateak zein diren jakiteko, informazio garrantzitsua baita hutsik dauden etxebizitzak mugiarazteko politikak sortzeko. 2023ko azken emaitzak aztertuta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak nabarmendu du EAEn milioi bat etxebizitza baino zertxobait gehiago zenbatu direla, eta horietatik % 92,7 okupatuta egon ohi direla (2021ean, % 92,8). Eta hutsik dauden edo nagusiak ez diren etxebizitzaren % 7,3tik (78.358 unitate), % 3,3 sasoiko etxebizitzak dira, eta gainerako % 4 (43.052 etxebizitza) jenderik gabeko etxebizitzaren parkeari

dagozkio (% 4,4 2021ean). Lurraldeka, Gipuzkoan jenderik gabeko etxebizitzaren tasa txikiena izan da. % 2,6 dira; Bizkaian eta Araban, berriz, % 4,9 eta % 3,9, hurrenez hurren.

Era berean, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, etxebizitza horietako zenbait dagoeneko merkatuan daude eta, beraz, ezin kudea daitezke etxebizitza hutsak mugiarazteko programen ondorioetarako. Halaber, beste batzuk aldi baterako daude hutsik, ezinbestean, jabeen osasunarekin lotutako arrazoiengatik edo lanagatik. Horregatik, “kudeagarriak” deritzen jenderik gabeko etxebizitzei erreparatzen die: 2023an 25.450 etxebizitza erabat kudeagarriak dira, 2021ean baino % 2,6 gutxiago eta etxebizitza-parkearen % 2,4 dira. Halaber, jenderik gabeko etxebizitzaren % 59,1 dira.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren** oinarria alokairuko etxebizitza publikoaren parkea gehitzea eta hiri birgaitze eta berrikuntza politika berria sustatzea izan da, irtenbide eraginkor eta jasangarri gisa, hain zuzen ere. Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko xedearekin, betiere, etxebizitza politikaren zerbitzurako baliabideen erabileran eraginkortasun handiagoa izateko testuinguruan, baina kontuan hartuta etxebizitzaren merkaturaren errotik aldatu dela finantza krisiagatik eta higiezinaren burbuila lehertu izanagatik.

Memoria honen erreferentzia-datan (2024) indarrean dagoen *2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzailearen* xedea da “*etxebizitza duin eta egoki baten beharra duten pertsonen erantzun integrala bermatzea, alokairu eskuragarria eta bizitegi-parkearen bizigarritasun- eta jasangarritasun-baldintzak hobetzera bideratutako baliabideen eskaintza handituz*”. Etxebizitza Programak 2020-2023 aldian gauzatutako gastu bateratua 1.221,1 milioi eurokoa da. Nabarmentzekoa da etxebizitza eraikitza bideratutako partida, 247 milioi euro (guztizko gastuaren % 20,2), Bizigune Programako 148,5 milioi (guztizkoaren % 12,1), familiei dirulaguntzak edo subsidioak ematera bideratutako 72,4 milioi euro (% 5,9) eta Gaztelagun Programako ia 36 milioi (egikaritutako gastuaren % 2,9).

Halaber, *2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala* tresna estrategikoa eta egiturazkoa da, eta eragile publiko eta pribatu askok konpromisoa hartzen dute 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean modu koordinatuan aurrera egiteko. Guztira, 88 erakundek egin dute bat Itunarekin, gizarte zibiletik edo kolektibo profesionaletatik hasi eta erakunde eta enpresetaraino. Hau da Itunaren helburu nagusia: “*etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea. Etxebizitza duin eta arrazoizko prezioa bat eskuratzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat da, zeinarekin erabat konprometituta baitago Euskal Autonomia Erkidegoa*”. Itun horren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren XIII. legegintzaldiko Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehenengo jardura estrategikoetako bat, 2024ko abenduan, *Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa* sortzea izan da. Foro hori kontsultarako eta parte hartzeko gunea da, eta eragile publikoak, pribatuak eta sozialak biltzen ditu, etxebizitza-politikak diseinatu eta ezartzeko.

Bestalde, Etxebizitzaren EAEko Behatokiak azpimarratu du 2021ean etxebizitza-arloko PFEZn egindako kenkariari lotutako **zerga-gastua** guztira 461 milioi eurokoa izan zela, 2020an baino % 3,1 gehiago. Zenbateko hori Etxebizitza Sailak ekitaldi horretan bertan likidatutako gastuaren bikoitza baino gehiago da (118 milioi euro). Guztira, 460.646 PFEZ aitorpenek ohiko etxebizitzagatik kenkariren bat zuten, 2020an baino % 11,7 gehiago, eta kopuru hori aitorpenen % 45,9 da. Motaren arabera, orotara 352.051 aitorpenek izan zuten ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkaria (etxebizitzaren ziozko kenkariaren % 76,4). Alokairuko kenkariari dagokionez, berriz, txikiagoa da kopurua, orotara 108.595 aitorpen izan baitira (aitorpen guztien % 23,6).

Azkenik, Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Estatuko Legeak hainbat neurri jasotzen ditu, besteak beste, etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzea bermatzeko. Horien artean, “**tenkatutako eremuak**” deiturikotara bideratutako neurri espezifikoak nabarmentzen dira. Tenkatutako eremu izendatzeko, bi irizpide hauetako bat bete behar da: Hipotekaren edo alokairuaren kostuaren batez besteko karga, norberaren edo bizikidetzaren unitatearen aurrekontuan, gehi oinarritzko gastu eta hornidurak, familien batez besteko diru-sarreraren edo batez besteko errentaren % 30 baino handiagoa izatea; edo etxebizitzaren erosketaren edo alokairu-prezioak, etxebizitza tenkatuaren merkatu-eremu deklaratu aurreko bost urteetan, dagokion autonomia-erkidegoko KPIaren hazkunde metatuaren ehunekoa baino ehuneko 3 puntu handiagoa izatea, gutxienez.

2024ko apirilean, 1,5 milioi pertsona bizi ziren EAEn, biztanleria osoaren % 68, tenkatutako eremu gisa identifika zitezkeen udalerrietan. Lurraldean arabera, Arabako biztanleriaren % 76 tenkatutako eremuetan bizi da erreferentzia-datan, % 65 Bizkaian eta % 68 Gipuzkoan. Oro har, EAEko 3 hiriburuak eta 35 udalerri tenkatu gisa agertzen ziren, legean ezarritako bi irizpideetako bat betetzen baitzuten, gutxienez. Eta, gainera, beste 5 udalerri partzialki tenkatuta zeuden. Guztira, EAEko 43 udalerriri eragiten zien.

Tenkatutako eremuaren izendapenak atea irekitzen die etxebizitza-politika publikoko esku-hartze espezifikoiei “tenkatugarri” gisa identifikatutako udalerriei. Ildo horretan, Gobernua lege-erreformetan ari da lanean, tentsioan dagoen eremuari irismen handiagoa emango diotenak. Gaztelagun edo Bizigune programak, Erabilera Turistikoko Etxebizitzaren mugak, tentsioan dagoen eremuari indexatuta egon daitezke, Jaurlaritzak figura horri ibilbide luzeagoa emango dioten premiazko neurrien arau-garapena aurreikusten baitu.

ONDORIOAK

I. EKONOMIA

Tentsio geopolitikoak eta politika ekonomiko eta arantzelarioei buruzko galderak areagotzen ari diren nazioarteko testinguru batean, ziurgabetasuna handituz joan da urtean zehar, eta, espero zitekeen bezala, EAEko jarduera ekonomikoari eragin dio ingurune horrek, eta moteldu egin da haren hazkundera, agregatu ekonomiko handi guztiek urtetik urterako aldakuntza-tasa positiboak erakutsi dituzten arren, eta hazkundera eurogunean eta EB-27n izandakoa baino handiagoa izan da.

Hala ere, adierazle ekonomiko batzuk kezkarriak dira. Horien artean, aipatzekoak dira kanpo-eskariak hazkunde ekonomikoari egindako ekarpena murriztu izana, ekipo-ondasunetan egindako inbertsioa moteltzen ari dela, industria-produkzioaren indizeak urte arteko aldakuntza-tasa negatiboak izan dituela eta txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak hazkundera moteldu duela.

Enpresa-sektoreari dagokionez, uste dugu komeniko litzatekeela Ekintzailatza Planaren eragina ebaluatzea, eta, aldi berean, enpresa-tamainaren bilakaeraren jarraipena egitea, hobera egin duen arren. Era berean, ezegonkortasun geopolitikoak irekitako erronka berrien aurrean, Euskadiko produkzio-sarearen lehiakortasuna babestu eta indartuko duten neurriak hartu behar direla uste dugu.

Prezioei dagokienez, eta datuak ikusita, esan dezakegu 2024a inflazio-urtea izan dela berriro. Erregaien prezioak inflazio handiaren eragile nagusiak diren arren, kezkarria iruditzen zaigu oinarritzko produktuen erosketa-saskiaren prezioak gora egiten jarraitzea, eta azpiko inflazioari ere atentzioa ematen diogu.

Errentaren banaketa funtzionalean ikus daitekeenez, 2023ko datuek, 2022koekin alderatuta, erakusten dute soldatapekoen ordainsariak pisua galdu duela guztizkoaren gainean, eta kapital-errentek baino emaitza txikiagoak lortu dituela. Hala ere, 2019arekin alderatuta (pandemia aurreko maila), soldatapekoen ordainsariek pisua irabazi dute.

Enpresa ez-finantzarioen errentagarritasun ekonomikoari dagokionez, azpimarratu nahi dugu I+G eta Arte, jolas eta entretenimendu jardueren sektoreetako enpresek errentagarritasun txikia dutela behin eta berriz, Produktu farmazeutikoen fabrikazioa eta Merkaturako jarduera sanitarioak sektoreetako enpresen errentagarritasun handiaren aldean.

...

EAEko sektore publikoari dagokionez, Kontseilu honek, lehenik eta behin, azpimarratu nahi du COVID-19ak sortutako ekonomia- eta gizarte-krisi larriaren ondoren, 2022an finantza publikoen berreskurapena bukatu zela, nagusiki, inflazioak lagundutako diru-bilketaren bilakaera positiboari esker. Aldagai horrek joera positiboari eutsi dio 2024ra arte, nahiz eta azken urte horretan tasa txikiagoak izan.

Bestalde, herrialdearen garapenerako funtsezkoak diren inbertsio errealak, ondo bideratuta daudenean, hazkunde nabarmena izan zuten 2023an, eta % 9 jaitsi dira 2024an (ia % 20 Eusko Jaurlaritzari dagokion zatian), eta horrek kezkatzen gaitu.

Aurrekoarekin lotuta, beharrezkoa da aurrekontu-ahalegin handia eta jarraitua egitea etorkizunean inbertsio-maila onargarriei eusteko. Era berean, berretsi egiten dugu “*Next Generation*” funts europarren aukera aprobetxatu behar dela funtsezko zerbitzuak eta inbertsio publikoa eta pribatua indartzeko, eta are gehiago kontuan hartuta funts horiek gauzatzeko baimendutako epea gero eta gertuago dagoela (hasiera batean, 2026. urtea).

Bestalde, positiboki baloratzen dugu bonu jasagarrien zortzigarren jaulkipena, martxan jarri zenetik 5.000 milioi euro pilatu dituen tresna, baina aldiari haren gizarte- eta ingurumen-inpaktua ebaluatzeko eta zorpetze osoak (BPGaren % 13,1) zuhurtziazko mailetan jarrai dezan bermatzeko eskatzen dugu.

Eta, finantza-jasangarritasunari dagokionez, uste dugu Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoaren esparru berria indarrean sartzean sartutako malgutasunak aukera eman dezakeela trantsizio ekologiko, digital eta demografikoei lotutako inbertsio-erronkekin bateragarria den gastu publikoaren maila bat gordetzeko⁴⁷.

Enplegu publikoari dagokionez, Kontseilu honek, beste urte batez ere, azpimarratzen du beharrezkoa dela EAEko administrazio publikoetako bitartekotasuneko eta behin-behinekotasuneko tasa altuak zuzentzea, modu horretan, egiturazko fenomenoak bihurtu den irregulartasuna zuzentzeko.

⁴⁷ Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoaren esparru berria 2024ko apirilean indarrean sartzeak estatu kide bakoitzaren inguruabar espezifikoetara egokitutako ikuspegia ezartzen du, lehen mailako gastu garbiaren hazkunderari lotutako epe ertainerako doikuntza fiskalen bidez. Malgutze horren ondorioz, Euskadiren kasuan, ekitaldi bakoitzerako adostutako finantza-iraunkortasunaren helburua % 15eraino gaitzetzeko aukera dago.

II. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTA ETA DIGITALIZAZIOA

Ikarketa, garapena eta berrikuntza gakoak dira klima-aldaketaren, biodibertsitate-galeraren, mendekotasun energetikoaren, osasunaren, biztanleriaren zahartzearen, desberdinkeria eta digitalizazioaren ondoriozko lehentasuneko erronkei aurre egiteko. Bestela esanda, I+G+B gakoak da gizarteak aurrez aurre dituen erronka handiei aurre egiteko; halaber, ezagutzaren mugan aurrera egiteko eta ekonomien lehiakortasuna sustatzeko helburu klasikoetatik askoz ere harago jo behar dugu.

Ezagutza berriak eta berrikuntzak bultzatuko dituzte abian diren eraldaketa energetiko, digital eta sozialak, eta, modu justu, kontziente eta parte-hartzailean kudeatzen baditugu (adostuta), guztiontzat eta planetarentzat jasagarria eta oparoa izango den etorkizun horretarantz azkarrago joaten lagunduko digute.

Pozegia egiaztatzen dugu gure erkidegoak I+G+b-ren arloan abantailak dituela —beste batzuekin alderatuta— eta, beraz, *Eskualdeko berrikuntza-adierazleen panelean (RIS 2024)* goi-mailako berrikuntzako eskualdeen taldera sartu dela.

Halere, ezin dezakegu bazter utzi RIS 2024ko emaitzak ikusirik EAEk baduela erronkarik ere: merkatuan edo beren antolakundearen barruan berrikuntzak txertatu dituzten ETEen ehunekoa igo behar du, eta berrikuntzako inbertsioa areagotu. Era berean, ezin dugu alde batera utzi berrikuntzak enpleguan eta salmentetan duen eragin ekonomikoa Europako batezbestekoa baino txikiagoa dela. Izan ere, gure enpresek oraindik ere zailtasunak dauzkate merkatuan edo beren antolakundeetan berrikuntzak sartzerakoan, bai eta I+Gn egiten duten inbertsioa emaitzetara eramaterakoan ere.

Halaber, komeni da enpresaren arabera berrikuntza zailtzen duten faktoreak kontuan hartzea; bereziki, enpresaren barruan beste lehentasun batzuk egotea eta berrikuntzaren kostuak handiak izatea nabarmentzen dira. Gero, enpresaren barruko finantzaketa falta, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko zailtasunak, merkaturako eskariaren inguruko ziurgabetasuna eta enpresaren barruko langile kualifikatuen falta datoz, eta, hain zuzen ere, azken hori da 2022tik hazi den bakarra, kanpo-ezagutzetarako sarbide faltaren ondoan; hortaz, ezagutzarekin zerikusia daukaten faktoreei arreta jarri beharko genieke.

Esparru horretan, eraldaketa digitalak funtsezko eginkizuna dauka, bai produktuen berrikuntzan, bai prozesuetan, antolaketan eta marketinean, hala enpresetan nola Administrazio Publikoetan eta gizarte zibilaren beste eremu batzuetan.

Testuinguru horretan, nahiz eta pozez ikusi EAE azpiegitura digitalen alorrean Europako liderren artean dagoela, gogorarazi beharra dugu gaitasun digitaletan liderrak izan gabe jarraitzen dugula, nahiz eta indarguneak eduki, eta enpresen eraldaketa digitaletan egoera askotarikoa dela. Hala, EAEko enpresak zenbait arlotan ondo kokatuta badaude ere (adibidez, informazioa elektronikoki trukatzeko eta sare sozialak maneiatzeko eremuetan), kokapena zertxobait baxuagoa da elementu aurreratuagoetan, hala nola makrodatuen, hodeiaren, fakturazio elektronikoen eta, bereziki, adimen artifizialaren erabileran. Makrodatuen eta faktura elektronikoen kasuan, gainera, rankingean behera egin du, eta beste lurralde batzuk azkarrago ari dira aurrera egiten. Halaber, lineako merkataritzarekin lotutako adierazleetan, EAEk Europaren batezbestekoaren atzetik egoten jarraitzen du.

Laburbilduz, lehen esan moduan, I+G+b gakoak da erronka digitalei eta ingurumen- eta gizarte-arloko erronka handiei aurre egiteko; halaber, ezagutzaren mugan aurrera egiteko eta ekonomien lehiakortasuna sustatzeko helburu klasikoetatik askoz ere harago jo behar dugu.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da, batetik, berrikuntza ingurumen- eta gizarte-irizpideekin sustatzea (isuriaren eta lurzorua erabileraren murrizketa, energia-efizientzia, ekodiseinua, genero-oreka), gizarterako eta ingurunerako balio erantsi iraunkor bat sortuko duten egitasmoak babestuz. Eta, bestetik, berrikuntza industrialetik harago, berrikuntza soziala indartzea komeni da; bereziki, zilarrezko ekonomiarekin eta pertsonengan zentratutako metodologiekin lotutako berrikuntza sustatu behar dugu, I+G+b-aren dimentsio soziala indartzeko.

Eta, etengabe eta ziztu bizian aurrera egiten ari den esparru honetan, ezinbestekoa da, baita ere, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikak enplegu eta sustapen profesionaleko politikekin bateratzea, herritarrek (bereziki, zientziaren, teknologiaren, ingeniartzaren, artearen eta matematiken inguruko ezagutzak dauzkatenean) Euskadin karrera profesionala garatzeko aukerak aurki ditzaten.

Azaldutako guztia dela-eta, komenigarria iruditzen zaigu enpresak (beren tamaina edozein dela ere) eta herritarrak egunerokoan I+Ga eta berrikuntza sartzearen inguruan sentibilizatzen jarraitzea, bai eta gizarteari eta gure enpresareari aholku ematea ere, aldaketak eta trantsizioak ahalik eta ondoen goberna ditzaten eta, horrela, nahi ez ditugun ondorioak saihestu eta nahi ditugunak areagotu daitezten.

III. INGURUMENA, ENERGIA ETA GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzaren azterketa soziologikoko kabineteak EErekin eta IHOBerekin egindako azken *2024ko klimaren eta energiaren ekobarometroak* agerian uzten du euskal herritarrek kontziente direla klima-aldaketaren larritasunaz, beharrezkoa dela denok erosotasunei uko egitea klima-aldaketa arintzeko eta energia- eta klima-trantsizioak aukera berriak sortuko dituela euskal ekonomian.

Hala eta guztiz ere, argitaratutako datuak ikusirik, kontseilu hau kezkatuta dago EAEko isuriak murrizteko joera EBk eta EAEk 1/2024 Legean markatutako helburuan azpitik dagoelako. Gogoratu behar dugu deskabornizazioak (atmosfera egiten diren karbono-isuriak pixkanaka murrizteko prozesua) ezinbesteko eginkizuna duela ekonomia jasangarriagoa lortzeko.

Aurrezpenak eta energia-efizientziak paper garrantzitsua dute, kontsumoak eta kanporako energia-menpekotasuna murriztuz. Horrekin lotuta, positibotzat jotzen dugu energiaren eskari osoa gutxitu izana, bereziki, euskal industria-sektorean energia-efizientziaren bidea markatzen duen energia-intentsitatea etengabe hobetu izana, eta baita ere martxan jartzen ari diren eguzki-instalazio termikoen eta fotovoltaiakoen gehikuntzatik eratorritako potentzia berriztagarriak gehitu izana.

Jakin badakigu eta beharrezkotzat jotzen dugu helburu dugun eredu ekologiko-energetiko berriak pixkanaka erregai fosilen erabilera gutxitzea, ekoizpen garbian eragitea eta baita kontsumo-, erabilera- eta birziklapen-jokabide egokietan ere; baina, aldi berean, ezinbestekoa da oreka lortzea klima- eta energia-trantsizioaren erritmoaren eta enpleguaren efektuen artean.

Ekologia- eta energia-trantsizioak lanpostuak galtzea ekar ez dezan, baizik eta birmoldaketa bidezkoa, funtsezkoa da prestakuntza- eta birkualifikazio-planak hedatzea energia berriztagarrietan, etxebizitzan energia-eraberritzean, mugikortasun jasangarrian edo hondakinen kudeaketan. Gainera, komeni da gaitasun “berdeetako” espezializazioa promozionatzea bai lanbide-heziketan, unibertsitatean eta etengabeko prestakuntzan.

EAEko energia berriztagarrien ekoizpena gehitzen jarraitu behar dugu, ez bakarrik ingurumen-abantailengatik, baizik eta maila ekonomikoan eta energia-mendetasun handiaren aringarri gisa ere abantailak dituelako.

Halaber, ulertzen dugu politika publikoek bizi-kalitatea hobetzen lagundu behar dutela eta esparru horretan ezinbestekoa da aurrekoa kontuan hartzea eta, ondorioz, herritarren eta enpresen energia-fakturak murriztea.

EAEko EGABek komenigarritzat jotzen du eragileak sentsibilizatzen jarraitzea (gizartea, enpresak eta administrazioak) etorkizuneko belaunaldian bizi-kalitatea arriskuan jartzen ez duten bizi-ohituren alde eginik; ohitura horiek BEGak murriztea, hondakinak gutxitzea, baliabide naturalen eta energia-baliabideen kontsumo arduratsua, lantokietara joateko mugikortasun-planak, garraio publikoa erabiltzea eta abar erraztu behar dute. Gainera, kontzientziazio-lana egin behar da eragileak kontziente izan daitezen beharrezkoa dela energia berriztagarrien azpiegiturak eta proiektuak instalatzea eta horren kostuak jakin ditzaten, albo batera utzi gabe horien ingurumen-inpaktuak kontrolatzeko aurretiko analisiak eta nahitaezko kontrolak egitea.

Azkenik, pertsonen eta salgaien garraioak duen ingurumen-inpaktu garrantzitsua kontuan hartuta, badirudi komeni dela —oinarrizko sareari dagokionez Europar Batasunak Arku Atlantikoko trenbide-azpiegiturarako ezarritako denbora-helburuak betetzeko, eta, zehazki, Euskal Y-ari lotuta— erakundeek konpromisoa indartzea eta eskumena duten administrazio eta erakunde publiko guztien inbertsioak ekonomikoki bultzatzea.

Ezin dugu albo batera utzi garraioa dela EAEko isuriek gora egin izanaren arduradun nagusia. Joera hori gelditzeko, ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak indartzea, zerbitzu publikoko flotak elektrifikatzea (autobusak, azken miliaren banaketa), salgaien trenbide bidezko garraioa eta intermodalitatea (logistikoa eta pertsonen mugikortasunekoak) proposatzen ditugu. Horrekin, gainera, sinergia handiagoa lortuko litzateke Europako oinarritzko trenbide-sarearekin (TEN-T).

IV. EMPLEGUA ETA LAN-HARREMANAK

Oro har, 2024an lan-merkatuak 2023ko joera positiboari eutsi dio okupazioan, baita langabeziaren jaitsierari ere, nahiz eta urte arteko tasak txikiagoak izan, hau da, enplegua gutxiago hazi dela eta langabezia aurreko urtean baino gutxiago murriztu dela. Gainera, hobekuntza zerbitzuen bilakaerari zor zaio batez ere; izan ere, industriak zifrak ematen ditu, eta horiei buruz kezkatuta gaude.

Positiboki nabarmentzen dugu biztanleria aktiboak gora egin duela azken urtean, enpleguak egin duen ia proportzio berean, nahiz eta oraindik ratio txikietan jarraitzen duen, batez ere emakumeen artean.

Iturrien arabera, aldi baterako kontratuen tasak jaitsi egin dira azken urtean. Nolanahi ere, oso altua da, batez ere sektore publikoan, eta arazo hori lehenbailehen zuzendu behar da. Partzialtasunari dagokionez, bilakaera ez dago hain argi, iturri ezberdinek irakurketa ezberdinak ematen baitituzte.

Lan-erreformari dagokionez, adierazi nahi dugu, indarraldiko lehen urtean hobekuntza argia izan ondoren, ondorioak mantentzen ari direla Gizarte Segurantzako afiliazioaren zifretan, baina agortze-sintoma batzuk ikusten direla, lehen ondorioei dagokienez.

Era berean, genero-arrakalen murrizketan izandako aurrerapenak positiboak direla ikusten badugu ere, lan-merkatuan emakumeei eragiten dieten desberdintasunak zuzentzeko ahaleginak sakondu eta zabaldu behar direla uste dugu, jarduera-tasa txikiei edo behin-behinekotasun handiari dagokienez, besteak beste.

Bestalde, enplegu-politika aktiboek zailtasun handienak dituzten kolektiboak enpleguan txertatzeko eta mantentzeko ahaleginak hobetzen jarraitu behar dute, baita enplegua lortzeko aukerak hobetzen ere, Lanbideren zerbitzu-zorroa ondo diseinatuta.

Era berean, enplegurako, bereziki, laneratzeko eta enpleguari eusteko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzako partida publikoen garrantzia nabarmendu behar da, baita gizarte-babeseakoak ere, enpleguaren gaineko helburuak lortzen ez diren bitartean.

Gainera, eta 2023an bezala, 2024ko negozioazio kolektiboaren emaitza positiboak azpimarratu nahi ditugu, urtearen amaieran % 95,4ko estaldura izan baitute, azken hamarkadako handiena, eta, aldi berean, estaldura horretan dagoen genero-arrakala murriztu baita.

Azkenik, 2024ko lan-ezbeharrei buruzko datuak ikusita, lan-merkatuko arriskuen prebentzioa eta segurtasunaren kultura indartzeko ahaleginei eutsi behar zaie, arrisku handieneko sektoreak lehenetsiz.

V. BIZI BALDINTZAK

V.1. DEMOGRAFIA

Beste urte batez, migrazio-saldo positiboek, pandemiaren eraginetik berreskuratutakoek, hazkunde natural negatiboa (jaiotzak ken heriotzak) orekatzen jarraitzen dute, eta, horri esker, biztanleria hazten ari da, bai gure erkidegoan, bai EB osoan.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu aurrean dugun egoera demografikoa. Memoria honetan azaldutako kopuruen aurrean, Erronka Demografikorako 2030 Estrategia sakondu eta bizkortzeko beharra azpimarratu nahi dugu.

Eraldaketa demografikoaren funtsezko alderdi gisa, aurten ere migrazio-erronkaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Eta, ildo horretan, IKUSPEGIren urteko azterlanetan egiaztatzen dugu euskal gizartea oso kontziente dela migrazioaren gaia egiturazko prozesu bat dela dinamika globalago baten barruan, eta migrazio-prozesuak gure aberastasunari eta ongizateari laguntzen dien bezala, guk ere ekarpenak egin ditzakegula pertsona horiek gure zuzenbide-estatuaren esparruan benetan parte har dezaten laguntzen duten mekanismoen garapenean, horrek ezartzen baititu gure eskubideak eta betebeharrak. Hala ere, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea, historikoki altua izan arren, bigarren urtez jarraian murriztu dela ere ohartarazi nahi dugu.

Gainera, Ikuspegi Barometroak urtero Euskadiko migrazioari buruzko pertzepzio soziala eskaintzen digun arren, EAEko migratzaileek beren egunerokotasunari buruz duten pertzepzioa ere jasotzeko beharra ikusten dugu.

Ildo horretan, 2030 Estrategiaren testuinguruan, migrazioaren arloko jarduketak indartu eta garatzearen garrantzia gogorarazten dugu, migratzaileen funtsezko ekarpena dela eta.

V.2. BIZI-BALDINTZAK

Beste urte batez, Euskadi oso posizio onetan dago bizi-kalitatearen nazioarteko rankingetan (GGI), Bizi Baldintzen Inkestako adierazle gehienetan bezalaxe.

Oro har, adierazi behar dugu, iaz bezala, 2024an ere hobekuntza batzuk hauteman zirela. Hala ere, adierazle jakin batzuen bilakaerak arriskuan jartzen du 2030 Agendaren helburuak betetzea. Izan ere, kontrako datuak ikusten ditugu gai garrantzitsuetan, eta horiei buruz atentzioa emango dugu.

AROE adierazleek, aurten ere, agerian uzten dute 2024rako behera egin duela pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dagoen biztanleriak; oraingo honetan, gainera, adierazle nagusia bereizten den hiru eremuetan. Era berean, 2022ko Pobrezia- eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI), gure aurreko Memorian aldagai nagusietan egindako aurrerapenak azpimarratu genituen, eta errentaren banaketan hobekuntza antzeman zuen. Era berean, Bizi-baldintzen Inkestak (BBI) adierazten du 2024rako errenta pertsonala eta familiarra handitu egingo dela Euskadin.

Hala ere, beste adierazle garrantzitsu batzuek okerrera egin dute gurea bezalako gizarte bateko bizi-maila baloratzekoan. BBIn zenbait daturen kasua da, hala nola pobrezia energetikoak eragindako familien ehunekoa (arazo horrek, 2023an bezala, biztanleriaren % 12,6ri eragiten dio, eta 4,9 puntu igo da 2015etik) edo behar bezala elikatu ezin diren familien ehunekoa, orain arte % 5eko muga gainditu ez duena. Ildo horretan, aurreko urteko memorian ohartarazi genuen azken PGDI inkestak adierazten duela pobrezia-egoerek eragin handia dutela migratzaileen kolektiboan eta emakumeak buru dituzten guraso bakarrekoko familien artean.

Gure ustez, adierazle horiek guztiek jarraipen xehatua merezi dute, batez ere prezioen bilakaerarekin lotura zuzenena dutenek.

Bestalde, gogorarazi nahi dugu, aurten ere, ezinbestekoa dela kontuan hartzea familia-tipologietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak. Familiek botere publikoen lehentasunezko arreta behar dute; izan ere, tipologia desberdinak izan arren, gure gizartean beren zentralitatea mantentzen jarraitzen dute.

Eta, familia-politikei dagokienez, 2023an ahalegin publikoak izugarri handitu ziren, batez ere 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzako hileko 200 euroko prestazio berriaren ondorioz, eta baita seme-alaba adingabeen zaintzaileak guraso langileek kontratatzeko laguntza berrien ondorioz ere. Ahalegin hori, oro har, 2024an mantendu da, eta hori positibotzat jotzen dugu.

Ildo horretan, atentzioa ematen digu, nahiz eta ondoz ondoko familia-planekin bi hamarkada baino gehiago eman, oraindik ere familien ehuneko hain handi batek ez dakiela zein den garatzen dituzten laguntzak jasotzeko aukera. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu arlo honetan egiten ari den aurrekontu-ahalegin handiarekin batera komunikazio-kanpaina eraginkorrek egitea.

Bestalde, lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzearen adierazleei dagokienez, urtez urte zaintza-lanetan genero-arrakala pixkanaka murrizten ari dela ikusten dugun arren, kezkagarria da oraindik ere emakumeek eta gizonen zeregin horietan ematen duten denboraren aldea. Arrakala hori errepikatu egiten da lan-merkatuan, kontziliazio-premiekin eragindako baimenei eta lanaldi-murrizketei heltzeko orduan parte-hartze hain desberdina izatean.

Amaitzeko, deigarria da telelanaren erabilerak behera egin duela pixkanaka, dagokion inkestak adierazten duen bateragarritasuna hobetzeko tresna gisa. Fenomeno hori aztertzen duten beste iturri batzuek, hala nola EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak ⁴⁸, ez dute joera argirik adierazten zifretan, eta, beraz, adi jarraitu beharko ditugu datu horiek.

V.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

EAE ez dago emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren arazo unibertsalek kanpo, eta, Memoria honen hainbat ataletan egiazta daitekeenez, azken urteotan bilakaera positiboa izan den arren, oraindik urrun gaude benetako berdintasuna lortzetik. Bereziki nabarmentzen dugu lan-eremuan ikusten den bereizketa.

Datu horiek eskuragarri dauden aldagai guztietan genero-ikuspegia sartzeaz gain, EAEko Memoria Sozioekonomikoaren 2024ko edizio honetan berariazko atal bat txertatu da, antzemandako gabeziak modu sintetikoan ikusarazteko, eta, aldi berean, Eusko Jaurlaritzak duela hiru hamarkada baino gehiagotik egiten dituen berdintasun-politiken ildo nagusiak deskribatzen dira.

EUSTATEk Europako metodologia bati jarraiki kalkulatzeko duen 2024ko Genero Berdintasunaren Indizeak (2021eko datuak) bilakaera positiboa adierazten du, bai aurreko neurketari dagokionez (2019ko datuak), bai 2010ekoari dagokionez (ekitaldi konparatibo honetan egin zen lehen urtea), eta berdintasun-baldintzetara pixkanaka hurbiltzea adierazten du, bereziki osasunari eta baldintza ekonomikoei dagokienez, ezagutzarekin eta boterearekin lotutako esparruen aldean, horietan emaitzak okerragoak baitira. Izan ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko hainbat faktoreen gainean eragin behar da.

⁴⁸ Ikus "IV. kapituluko 3.4 paragrafoa. Memoria honetako "EAEko enplegua eta lan-harremanak"

Horretarako, funtsezkoa da administrazioen ekimena eta eragile ekonomiko eta sozial guztien lankidetzak. Bide horretan, Berdintasunerako 2030 Estrategia funtsezko tresna dela uste dugu, eta prozedura lasaia goiarekin eta adostuagoarekin sortu behar dela, gure otsailaren 2ko 3/24 Irizpenean adierazi genuen bezala, eta gure gogoetetan adierazitako gaiak konpondu beharko dituela eta lortu nahi diren helburuetarako laguntza irmoa eta finantzaketa egokia izan beharko dituela.

V.4. GIZARTE BABESA

Apartatu honetan azaldutako datuek erakusten dute EAEko gizarte-babeseko sistemak bere estaldura mantentzen duela beste urte batez, Europako herrialde nagusien pareko mailetan. EAEko Gizarte Babesaren Kontuak erakusten du 2023an gizarte-babesera bideratutako baliabideen bolumenak gora egiten jarraitzen zuela. Era berean, EAEko gizarte-babeseko per capita gastua EBko eta Estatuko batez bestekoen gainetik zegoen, baina eurogunekoaren azpitik.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari dagokionez, gure ongizate-sistemaren tresna garrantzitsua baita, Eusko Jaurlaritzaren azken PGDIak (2022ko datuekin) baieztatzen du sistemak funtzionatzen duela, Euskadin pobrezia nabarmen murrizteko aukera ematen duen neurrian. Gainera, murrizketa hori 2020an % 33,3 izatetik 2022an % 45,3 izatera igaro da. Espero dugu, gainera, 2023an diru-sarrerak bermatzeko errentan izandako aldaketek aukera emango dutela atzemandako beharrak hobeto kudeatzeko, eta ordura arte estaldurarik gabe geratzen ziren arazo batzuk azaleratzen eta erantzuten lagunduko dutela (PGDIak gogorarazten du sistema pobrezia-egoeren % 75,5era iristen zela 2022an).

Testuinguru horretan, 2023an arau-aldaketa horiekin batera gertatu zen aurrekontu-igoera nabarmendu nahi dugu, eta ahalegin horri eutsi zaio 2024an ere. Espero dugu Inklusiorako V. Planean jasotako ekimenak abian jartzeak herritar guztien bizi-baldintzak hobetzen lagunduko duela.

Bestalde, 2023-2026 aldirako diseinatutako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak, Gizarte Zerbitzuen Sistema baby boomaren belaunaldiaren zahartzeak dakarren inpaktura egokitzeko erronka duenak, ahalegin berezia egin beharko du, gure ustez, beharrianak dituzten kolektibo guztiak gizarteratzeko laguntza-sarea indartzen jarraitzeko, zahartzearen ondoriozko mendekotasun- edo bazterketa-egoeretatik harago. Adibidez, bizitegi-bazterketa jasaten duten pertsonen edo etorkineen buruz ari gara.

Mendekotasunaren Arretarako Sistemari dagokionez, Mendekotasunaren Espainiako Behatokiaren txostenek nabarmentzen dute EAEk beste autonomia-erkidego batzuek baino garapen handiagoa duela, bai baloratutako pertsonen ehunekoari dagokionez, bai emandako prestazioei dagokionez. Aldi berean, azken urtean, itxarote-zerrendak murriztu egin dira, eta datozen urteetan finkatzea espero dugu.

Era berean, funtsezkoa iruditzen zaigu, ardura duten instantzia guztietatik, sistema hori behar beste hornitzea gero eta behar handiagoekin, zainketa kostu handia dela eta. Eta, testuinguru horretan, funtsezkoa da zaintzarekin zerikusia duten lan guztien aitorpen sozial eta ekonomiko handiagoa, bai familietan, bai lan profesionalizatuetan.

Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokionez, beste urte batez, Euskadiko saldo defizitarioak kezkatzen gaitu. Sistemaren jasagarritasunari eta ekitateari dagokionez, gogorazi nahi dugu berrikuntza-neurrien ondorioak egiaztatzeko aplikazio-epe bat behar dela, eta, beraz, jarraipena eta azterketa egin behar direla neurrian inpaktua eta planteatutako helburuekiko egokitasuna egiaztatzeko. Hala ere, oraindik ez da lehengoratu sistemak gero eta defizit handiagoa izateko duen joera.

Edozelan ere, 2024. urteak agerian utzi du, beste urte batez, gizarte-babeseko sistema sendoa izateko duen garrantzia, gure gizarteak bere gain hartu dituen erronkei, gero eta premia handiagoei eta balizko erronka eta errealitate berriei aurre egiteko.

VI. BIZI-KALITATE

VI.1. HEZKUNTZA

Berriz ere agerian utzi nahi dugu, hezkuntzako beheko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntzan) matrikulazioak aurreko urteetako beheranzko joerari eusten badio ere, DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta unibertsitatean matrikulazioak gorantz jarraitzen duela.

Ikus dezakegunez, aurreko urteetan bezalaxe, Batxilergoko modalitateak, lanbide-arloak eta unibertsitate-graduak aukeratzean, emakumeek eta gizonek desberdin jokatzeko jarraitzen dute. Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan aukeratzen dituzte giza, gizarte-, osasun- eta arte-arloak, eta gizonek, berriz, teknologia- eta industria-arloak. Dena den, poliki-poliki bada ere, aldeak murrizten ari dira.

Azpiratu nahi dugu, nahiz eta ikasle gehienek unibertsitate publikoak aukeratzen jarraitzen duten, matrikulazioen banaketan ikasketen pribatuen aldeko joera nabari dela. Horrez gain, unibertsitate publikoak titulazio bikoitzen gorakadara egokitzen ari da bere eskaintza; duela hamarkada bat, gradu bikoitzak unibertsitate pribatuen eskumen eksklusiboa ziren.

Hizkuntza-ereduei helduta, D ereduaren matrikulazioaren diren ikasleek ehunekoak behera egiten du hezkuntza-mailak gora egin ahala, baina urteetan zehar eredu horren presentziak gora egiten du unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza guztietan.

Positiboki baloratzen dugu gure erkidegoak beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta duen posizio ona, etengabeko ikaskuntzan parte hartzeari, hezkuntza eta prestakuntza goiz uzteari eta goi-mailako ikasketak dituzten gazte tituludunen ehunekoari dagokienez. Era berean, poztu egiten gaitu, bereziki, EHU 400 unibertsitate onenen taldean kokatu izana Shanghaiko rankingean, 500 unibertsitate onenen artean baitzegoen lehen.

Nabarmenezkoa da, halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastua, aurrekontu-likidazioaren arabera, handitu egin dela, eta Hezkuntza Ministerioaren datuen arabera, EAEko hezkuntza-administrazioen gastu-ratioa BPGaren gainean Estatuko batezbestekoa baino handiagoa dela.

Gainera, gure autonomia-erkidegoaren ituntze-ereduak unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetan duen garrantzia azpiratu nahi dugu.

Azkenik, batzorde honek dei egiten du hezkuntzari buruzko estatistikek eskola-segregazioari buruzko informazioa jaso dezaten, fenomeno horrek sortzen duen kezka kontuan izanda.

VI.2. KULTURA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

Kulturari dagokionez, deigarria egiten zaigu 2022tik 2023ra bitartean izandako beherakada, jarduera ekonomiko nagusia kultura duten enpresen kopuruari eta haiek sortutako enpleguari dagokionez. Hala ere, komeni da gertatutako aldaketa metodologikoa gogoan izatea, eta hurrengo edizioetara arte itxaron beharko dugu sektorean gertatzen ari denari buruzko ikuspegi zehatzagoa izateko.

Aurrekontu publikoei dagokienez, atsegina da egiaztatzea kulturaren sektorerako bideratutako funtsak handitu egin direla, eta euskal administrazio publiko guztiek berreskuratu zutela 2022an pandemian murriztutako gastua, eta horren aurretik erregistratutakoak baino balio handiagoak lortu zituztela.

Herritarren euskararen erabilerari dagokionez, poztekoa da ikustea euskaldunen eta ia euskaldunen proportzioak hazten jarraitzen duela. Hori bai, euskararen ezagutzak adin guztietan gora egin badu ere, adierazi nahi dugu oraindik badagoela zer hobetu jendaurreko emanaldietan. Zehazki, pertsona helduek eta migratzaileek euskara ikasteko duten aukera erraztu eta hobetzeko ekimenak ezarri behar dira, are gehiago.

Era berean, aurrekontuei dagokienez, hau da, euskara sustatzera bideratutako baliabide publikoei dagokienez, egiaztatu da entitate batzuek tarte handia dutela euskalduntze-politiketara bideratutako baliabideak handitzeko.

VI.3. OSASUN ETA OSASUN-SISTEMA

Gure memoria sozioekonomikoetan azaldu dugun bezala, oro har, EAEko biztanleriak osasun onaren adierazleak ditu, eta horiek hobetzen jarraitzen dute (bizi-itxaropen eta osasun oneko bizi-itxaropen handiak eta gero eta handiagoak, heriotza-tasa gero eta txikiagoak eta abar). Hala ere, hildakoen batez besteko adinak gora egiten jarraitzen du, horrek lehen mailako zein ospitaleko osasun-arretaren egiturarako dituen ondorioak kontuan hartuta, erikortasunari eta mendekotasunari dagokienez.

Osasun-laguntzaren eskaria handia eta gero eta handiagoa da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa ospitaleko erikortasun-tasa altuenak dituzten autonomia-erkidegoen artean dago Estatuan. Batez besteko egonaldia Estatukoa baino handiagoa da, eta ospitale publikoetako ospitalizazioen ehunekoa ere Estatuko batezbestekoa baino handiagoa da.

Gainera, kontsultek (ospitalekoak ez direnak, osasun mentalekoak eta ospitalekoak), ospitaleko altek eta ebakuntza kirurgikoek gora egiten jarraitzen dute. Horrenbestez, egokia eta beharrezkoa dirudi Osasun Sistema erreformatzea, eta ahaleginak egiten jarraitzea, bai ekonomikoki, bai sistemaren barne-antolamenduari eta plantillak indartzeari dagokienez.

Berriz ere, funtsezkoa da Osakidetzako plantillan plazak hornitzeko estrategia bati ekitea, hobekuntza zientifiko-teknologikoak txertatzea eta pazienteek beren osasunaren arduradun gisa parte har dezaten lortzea.

Beraz, komenigarria litzateke herritarrek osasun publikoarekiko duten konpromiso-maila handitzea, pazienteak beren osasunaren kudeaketan subjektu aktibo gisa ahaldundutzea, eta, halaber, baliabideetan sakontzea, hala nola teknologia berriak sartzeari (e-osasuna), besteak beste, sistemak eraginkortasunez funtzionatzeko modua izan dezan. Ildo horretan, arreta berezia jarri behar da arrakala digitalak kolektibo jakin batzuei eragiten dizkien ondorio negatiboetan, teknologia berrietan gaitasun gutxien duten pertsonen osasun-sistema eskuragarri izan dezaten eragozteko saihestuz.

Haurdunaldia borondatez etetearen (HBE) harira, agerian utzi nahi dugu etendura gehienak sistema pribatuan egiten direla, eta beharrak gero eta handiagoak direla. Sistema publikoan, berriz, arreta-kopuruak bere horretan jarraitzen du, eta hori emakumeen osasunerako eskubidea urratzearen seinale izan daiteke, bai eta gabezia horri konponbiderik ematen ez zaion seinale ere, dela behar diren bitartekoak ez jartzeagatik, dela HBE errazten ez duten arau-betekizunak ez izateagatik sistema publikoan sartzeko.

Aurten ere, osasun mentalari buruz dugun kezka azpimarratu nahi dugu; izan ere, antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziak nabarmen egin du okerrera 2018. eta 2023. urteen artean. Kontuan izan behar dugu prebalentzia horrek gora egiten duela adinarekin, ahaztu gabe pandemiak eragin argia izan zuela gazteengan, eta bizitzaren aldi horren ezaugarri bereziek osasun mentaleko arazoak areagotzea eragin dezaketela.

Bestalde, lasaigarrien eta/edo somniferoen kontsumoaren prebalentziak ere gora egiten jarraitzen du. Gainera, ez dira beti medikuak aginduta kontsumitzen, eta, kasu horietan, nagusiki senide edo ezagun baten bidez lortzen da psikofarmakoa. Ikertu egin beharko lirateke egoera horien kausak eta emakumeengan duten prebalentzia handiagoa.

Orobat, gogora dezagun psikofarmakoak (errezetarekin edo gabe) kontsumitzen dituzten pertsonen batez besteko adina murriztu egin dela 2010 eta 2023 artean: 40 urtetik 29,3ra jaitsi da gizonen artean, eta 40,1etik 34,7ra emakumeen artean.

Esparru horretan, autolesioen eta suizidioen intzidentzien kopurua gero eta handiagoa da, eta hori kezagarria da, bereziki gazteenen artean. Era berean, biztanleriaren zahartzea eta datozen urteetan biztanleria zahartua handituko dela aurreikusten duten proiektzio demografikoak kontuan edukita, biztanleriaren eremu horretarako ekintzak planifikatu behar dira, haien osasun mentalari heltzeko. Premiazkoa da osasun mentaleko krisia arintzeko neurriak hartzea.

Osasunarekin zerikusia duen guztia oso garrantzitsua denez, gure iritziz, informazio garrantzitsua falta da, besteak beste, osasun mentaleko sareko giza baliabideei dagokienez, eta, zehazki, lehen mailako arretako psikologia eta psikiatria arloko profesionalen kopuruari, klinika pribatuekin ebakuntza kirurgikoak ituntzeko gastuari eta lehen mailako arretako lehen hitzordurako itxaron-zerrendei dagokienez. Osakidetza urteko memorieta sartu beharko luke informazio hori.

Amaitzeko, batzorde honek aditzera eman duen legez, osasuneko gastu publikoak hobetzen jarraitu behar du, baliabideen optimizazioa alde batera utzi gabe. EAEko osasun sistemaren etorkizuneko iraunkortasuna gizarte osoa kezkatzen duen balio partekatu bat da.

VI.4. ETXEBIZITZA

Kapitulu honetan etxebizitzaren merkatuari buruz aztertutako datu nagusien arabera, jarduera suspertu egin da, 2023an nolabaiteko geldialdia izan ondoren. 2024an, bai etxebizitzaren salerosketak bai eraikuntza-jarduerak tasa positiboak izan zituzten, eta etxebizitza babestuen eskaerak, berriz, gora egin zuen. Hala ere, atentzioa eman nahi dugu prezioen hazkunde-bidearen jarraitutasunagatik, eta, bereziki, azken urteko gorakadagatik.

Alokairuko etxebizitza gutxiegi eskaintzen dira oraindik ere, bai arlo pribatuan, bai publikoan ere. Gainera, alokairu pribatuen errentak oraindik ere altuegiak dira eskatzaileen ordainketa-gaitasunarekin alderatuta, eta horregatik, herritar askorentzat zaila da alokairuak eskuratzea. Arazo hori areagotu egin da azken urteotan, eta, horregatik, kezkatzen gaitu kolektibo zabalengan duen eraginak, bereziki gazteengan eta baliabide gutxien dituzten pertsonengan.

Testuinguru horren aurrean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak azpimarratu nahi du aipatutako arazoan etxebizitza-politikak indartu eta gauzatzearen garrantzia. Alde horretatik, uste dugu Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala tresna estrategikoa eta egiturazkoa dela, eta eragile publikoek eta pribatuek konpromisoa hartzen dutela, besteak beste, 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean modu koordinatuan aurrera egiteko.

Era berean, gure ustez, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa sortzea inplikaturako eragileek parte hartzeko gune gisa, lankidetzat publiko-pribatua eman dezake, etxebizitza-politikak egokiago bideratu eta doitzeko.

Era berean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak oso garrantzitsutzat jotzen du “tenkatutako eremuen” figura etxebizitzaren merkatuan nabaritutako prezio-desorekak zuzentzeko tresna gisa sartzea, eta, horregatik, kezka berezia izango du horien jarraipena egitean, haien eraginkortasuna ebaluatzeko.

Era berean, 2025-2027 Plan Zuzentzaile berriaren bilakaerari erreparatuko dio, eta, ildo horretan, gogorarazi nahi dugu plangintza-tresnen ebaluazioaren garrantzia, hartutako neurriak lortu nahi diren helburuetara egokitzen joateko bitarteko gisa.